



Eusko Jaurlaritzak, 2012-2016 Legegintzaldian, **bake eta bizikidetzaren** arloan sortutako dokumentuen bilduma

---

1. Proiektu orokorra
2. Iragana argitzea
3. Biktimak

## 4. Memoria

5. Espetxe-politika
6. Hezkuntza
7. Bizikidetzarako kultura eta Giza Eskubideak

**2016ko urria**  
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

---



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA  
Secretaría General  
para la Paz y la Convivencia



## Aurkibidea

---

Zazpi libururen bilduma honen aurkezpen orokorra.	5
Liburu honen aurkezpena.	6
<b>1 . dokumentua.</b> Memoriari buruzko politika publikoa. Oinarriak eta proiektuak.	9
<b>2 . dokumentua.</b> Memoriaren Mapa amaituz.	19
<b>3 . dokumentua.</b> Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko Legea.	29
<b>4 . dokumentua.</b> Gogora Institua 2015-2016 aldirako Jarduera Programa.	43
<b>5 . dokumentua.</b> Memoria Historikoaren arloko Lehentasunen Oinarri Programa 2015-16.	61
<b>6 . dokumentua.</b> 2015-2020 aldirako EAEko Plana, hobien kokapena ikertzeko, Gerra Zibilean desagertutako pertsonek bilatu eta identifikatzeko.	97
<b>7 . dokumentua.</b> «Memoriaren ibilbideak» lanen laburpena.	129
<b>8 . dokumentua.</b> Memoria historikoaren egia errekonozitzea lortzeko prozesuan aurrera egiteko eta frankismoaren biktimei ordaina emateko proposamenak.	141

---



---

## Zazpi libururen bilduma honen aurkezpen orokorra

---

Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko hauteskundeak urriaren 25ean izan ziren. Azaroaren 20an, X. Legegintzaldiari hasiera eman zion Eusko Legebiltzarrak. Abenduaren 13an, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakari izendatu zuten. Sailburuak lanpostuaz jabetu ondoren, abenduaren 18an, lehen aldiz bildu zen gobernu-konseilua.

Hamalau hilabete lehenago, 2011ko urriaren 20an, ETAk jarduera armatua behin betiko utziko zuela iragarri zuen. Zenbait hamarkadaren ondoren, indarkeriaren eta terrorismoaren mehatxurik gabe ekin zioten Legegintzaldi bati euskal politikak eta gizarteak.

Hori horrela izanik, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak hartu zuen lehen erabakietako bat Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia sortzea izan zen, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariatzari atxikita, eta Lehendakariaren mende. 2013ko urtarrilaren 30ean, Jonan Fernandez izendatu zuen Lehendakariak Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi.

Idazkaritza horrek sail ezberdinetara atxikitako bi zuzendaritza bildu zituen egitura berean: Biktimen Zuzendaritza –ordura arte, Herrizaingo Sailaren mende zegoen– eta Giza Eskubideen Zuzendaritza –aurretik, Justizia Sailaren barruan zegoen. Hala, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren egitura berriak Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza bakar bat izan zuen, Monika Hernando buru zuela.

Legegintzaldi honetan, 14 plan estrategiko onartu ditu Eusko Jaurlaritzak; horietan lehena, 2013ko abendukoa, Bake eta Bizikidetzeta Plana izan zen. Horren ondorio dira, hain zuzen, 18 ekimen eta programa eta jarduera ugari. 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzeta Plana garatzeko prozesuan, hainbat dokumentu sortu dira Legegintzaldi honetan. Liburu-bilduma honek, bada, dokumentu nagusienak biltzen ditu zazpi liburukitan.

Hona hemen zazpi liburuon izenburuak: (1) Proiektu orokorra, (2) Iragana argitzea, (3) Biktimak, (4) Memoria, (5) Espetxe-politika, (6) Hezkuntza, eta (7) Bizikidetzaren kultura eta Giza Eskubideak. Laugarren liburu honek memoriaren politika publikoen arloari dagozkion dokumentuak jasotzen ditu.

---

## Liburu honen aurkezpena

---

Bilduma honen bigarren liburuak iragana argitzea du hizpide, eta hirugarrenak biktimen politika publikoak. Laugarren honek, aldiz, memoria-politikak jorratzen ditu. Hiru eremu horiek –iragana argitzea, biktimak eta memoria– elkarriz lotuta daude, jakina. Nolanahi ere, politika publikoaren eremu berezituak osatzen dituzte; berezituak eta elkarriz lotutakoak.

Iragana argitzeko politiken muina giza eskubideen urraketen sorburu diren egitate objektiboak dira. Helburu nagusia zera da: gertatutakoa agertzea eta azaltzea, ahanzturaren zigorgabetasuna saihesteko eta berriro gertatu behar ez denaren pedagogia egiteko. Berariazko eremu hau arduratsua den eta giza eskubideekin eta biktimekin konprometituta dagoen politika publiko baten betebeharra da. Gertatutakoa argitu beharra dago; hartara, kritikoki baloratu ahal izateko eta errepikatzea saihesteko.

Biktimen politika publikoek giza eskubideen urraketa pairatu duten pertsonak dituzte ardatz, bai eta beren egiarako, justiziarako eta ordainerako eskubideei erantzuna ematea ere. Lehengoratu behar dituzte moral eta materialki, ahal den neurrian, terrorismoak edo indarkeriak eragin dien kalte izugarri eta bidegabeagatik.

Memoriaren politika publikoek gizartea dute xede nagusiki. Beren helburua bizikidetzeta da. Zehazki, herritarren hausnarketa bat sustatzea, harremanetan jartzeko memoriaren eta gertatutakoaren ikuspegi ezberdinak eta bizikidetzaren egungo eta etorkizuneko errealitatea. Maiz pentsatzen dena ez bezala, memoriaren politika publikoak ez dira kontaketa ofizial bat finkatzean zentratzen, baizik eta pluraltasunaren parte-hartzea eta adierazpena bideratzean.

Memoriaren arteko elkarrizketa aske eta plural honen kudeaketak muga bakarra du: babestu behar ditu gutxieneko demokratiko batzuk. Oroimena ezin da erabili gertakariak parekatzeko, ezta kanpoan uzteko ere. Ezta terrorismo, indarkeria edo giza eskubideen urraketaren ezein adierazpide legitimatuko lukeen historia bat berridazteko ere. Alderantziz, urraketa haien salaketarik sendoena da, giza duintasunaren go-reneko baliori begira egiten baita, egia eta justizia helburu, baita balio horren ondorio diren eskubideei eta askatasunei begira ere.

Premisa horiek argituta, «Memoriaren politika publikoa. Oinarriak eta proiektuak» izeneko hasierako dokumentu batekin hasi zen Legegintzaldia –liburu honen 1. dokumentu gisa jaso da. 2013-2016 aldian garatu beharreko lanerako asmoen adierazpen bat da.

Eremu honetan, beste batzuetan gertatzen den bezala, gobernuak ez dira beren proiektuak zerotik idazten hasten. Aurreko Legegintzaldian, hainbat ekimen abiarazi ziren, eta, testuinguru berrira egokituta, honako honetan jarraitu dira. Nabarmentzekoak dira, ildo horretatik, Memoriaren Mapa eta Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko Legea.

Memoriaren Maparen xedeak dira, batetik, udalerrri bakoitzean biktimak gogoratzeko ekitaldiak egitea eta, bestetik, indarkeriaren aurrean eta bizitza defendatzeko memoria kritikoa bultzatzeko erakunde-betebeharrari erantzutea. Liburu honetan «Memoriaren Mapa amaituz» 2. dokumentu gisa aurkezten dugunak zeregin hori Legegintzaldi honetan osatzeko helburua zuen. Iradokizun batzuk eskaintzen ditu, udal-eremuan memoria-politika bat garatzeko. Bi zatitan egituratzen da: «premisak etikoak» eta «gomendio praktikoak».

Dokumentu hau garatzearen eta udal askok egin zituzten kontsulten ondorioz –beren udalerrietako biktimei buruzko datuak nahi zituzten–, «Bizitzeko eskubidearen aurkako urraketaren argazkiak, herriz herri» proiektua egin zen; bilduma honen 3. liburuan jasotzen da, 8. dokumentu gisa.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren proiektuak ere Legebiltzarreko talde ezberdinen elkarrizketa eta lankidetzeta ditu jatorrian, joan den Legegintzaldian. Berau sortzeko legea ezin izan zen hori amaitu baino lehen onartu, eta berriro heldu zitzaion honen hasieran. Proiektu horrek ezin hobeto irudikatzen du zer emankorra den Legebiltzarreko taldeen eta Gobernuaren arteko lankidetzeta anitza. Hori horrela, lan partekatua onaren ondoren, 2014ko azaroaren 27an, 4/2014 Legea onartu zen, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko. Liburu honetan jasota dago, 3. dokumentu gisa.

Legeak berak zehaztutako epeak betez, 2015eko ekainean, Institutuaren jardueri ekiteko Dekretua sinatu zuen Lehendakariak. Ekainean bertan, Institutuaren zuzendari izendatu zen Aintzane Ezenarro; ordu-ra arte, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren lantaldean zegoen, hezkuntza-eremurako aholkulari gisa. Gainera, Institutuaren egoitzaren kokalekua ezagutarazi zen. Euskadiko Artxibo Historikoa hartzen duen eraikina, hain zuzen, Bilboko Maria Diaz Haroko kaleko 3. zenbakian. Garai berean Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren logotipoa ere aurkeztu zen; Gogora hitza oinarri hartuta osatuta dago.

Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluaren eraketa atzeratu behar izan zen 2015eko maiatzaren 24ko udal-eta foru-hauteskundeak zirela eta, organo horretako Foru Aldundien eta Eudelen ordezkariak ezin izan baitzituzten irailera arte behin betiko izendatu. Urrian, Gogora Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluaren lehen bileran, 2015-2016 aldirako Jarduera Programa onartu zen; liburu honetan jasota dago, 4. dokumentu gisa.

Orain dela gutxi memoriari lotutako jarduerekin batera, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Memoria Historikoarekin erlazioatutako berariazko politika bat ere bultzatu du Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzatik. Hori horrela, eta Bake eta Bizikidetzaren Planaren 1. ekimenaren aurreikuspenetako bat betez, 2014ko azaroan, «Memoria Historikoaren arloko Lehentasunen Oinarri Programa 2015-16» aurkeztu zuen jendaurrean Iñigo Urkullu Lehendakariak; liburu honetan jaso da, 5. dokumentu gisa.

Hurrengo bi dokumentuek lehentasun-programaren barruan hartutako konpromisoetako biren garapena jasotzen dute. «2015-2020 aldirako EAEko Plana, hobien kokapena ikertzekoa, Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko» 6. dokumentua egitarako eskubidea betetzearen barruan dago, eta lehentasun bati erantzuten dio: ahalik eta gehien argitzea desagertutako pertsonen buruzko guztia. Estatu espainiarrari berariaz, esplizituki eta presaz egindako gomendio batzuen parte da lehentasun hori. Gomen-dio horien egileak dira, batetik, bortxazko edo nahitaezko desagertzei buruzko Nazio Batuen Lantaldea eta horren errelatore berezia, eta bestetik, egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermeak sustatzeko errelatore berezia.

7. dokumentua EHUKo Biography and Parliament Ikerketa Taldeari enkargatutako «Memoriaren ibilbideak» izeneko lanen laburpena da. Bai gerran bai diktadura frankistan zehar gertatutakoak gogoratzeko garrantzia duten guneak identifikatzea da proiektu honen xedea. Hori oinarri hartuta, gune horiek modu egokian babestu nahi dira, eta gure herriaren ondare historiko material zein ez-material gisa duten balioa agerian jarri. Hori testuinguruan jartzea eta interpretatzea tresna pedagogiko garrantzitsua izango da.

2016ko maiatzaren 14an, frankismoaren biktimei errekonozimendua emateko ekitaldi bat egin zen Donostian; Eusko Jaurlaritzak Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren esparruan aurreikusitako jardueretako bat izan zen. Ekitaldi horretan, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak etorkizunerako lan-proposamen bat aurkeztu zuen memoria historikoaren arloan. «Memoria historikoaren egia errekonozitzea lortzeko prozesuan aurrera egiteko eta frankismoaren biktimei ordaina emateko proposamenak» izeneko 8. dokumentu gisa jasotzen da. Hausnarketa ireki hori –proposamen bat da– hurrengo Legegintzaldiaren lanaren abiapuntutzat jotzen da.

Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak, egin zuen lehen proiektua Memoriaren Plaza izan zen. 2015eko udan abiarazi zen ekimena, eta 2016an garatu da hainbat herri eta hiritan. Memoriaren Plazak testigantzak biltzen eta azaltzen ditu. Terrorismoaren biktimen testigantzak, legez kontrako errepresioaren biktimen testigantzak, frankismoaren biktimen testigantzak eta herritarren testigantzak. Hainbat udalerritan garatzen da, eta elkarrizketak sustatu nahi ditu horietako bakoitzean, oroimenaren ikuspegi ezberdinak azaldu, entzun eta partekatzeko. Hori guztia webgune batean jasota dago. Nabarmendu ko dugu hemen Memoriaren Plazaren esteka, interesgarria baita: [memoriaplaza.eus](http://memoriaplaza.eus).





---

# 1. dokumentua

---

**Memoriari buruzko politika publikoa**  
Oinarriak eta proiektuak

---



---

# Memoriari buruzko politika publikoa

---

Oinarriak eta proiektuak

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

---

**EUSKO JAURLARITZA**

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia



**GOBIERNO VASCO**

PRESIDENCIA  
Secretaría General  
para la Paz y la Convivencia



---

## Memoriari buruzko politika publikoa

---

Memoriari buruzko politika publiko batek elkargune bat ahalbidetu behar du, gerrarekin, diktadorekin, terrorismoarekin, indarkeriarekin eta giza eskubideen urraketekin zerikusia duten bidegabeko bizipen traumatikoei lotutako memoria demokratikoei beren aldarrikapenak egiteko aukera emanaz.

Memoriari buruzko politika publikoak elkarrengana biltzeko plaza izan behar du, eta ez zatitzeko horma. Horregatik, politika horrek adostasun sozio-politiko zabaletan oinarritu behar du, helburuak eta edukiak zehazterakoan.

---

## Memoriari buruzko politika publikoa. Oinarriak

---

### I. Oinarrizko kontzeptua

Memoriari buruzko politika publikoa egitea plaza publiko bat egitea bezala da. Gizartea elkartzeko toki irekia, non askatasunez egoteko eta ibiltzeko aukera izango den, betiere gizalegezko gutxieneko etika errespetatuta. Memoriaren plaza da. Zenbait kale elkartzen dira plaza horretan, eta kale bakoitzak bere oroitzapenak ditu, modu desberdinetan atzemandako, sentitutako eta bizi izandako saminei lotuak. Hala eta guztiz ere, plaza elkargunea da.

Azken 80 urteko historian, gure gizartean lau samin handi metatu dira, indarkeriazko eta giza eskubideen urraketako esperientzia traumatikoei eraginda: Gerra Zibila, Diktadura, ETA eta terrorismoaren aurkako legez kontrako ekimenak.

Bidegabeko sufrimenduak dakarzkigute gogora lau kale horiek, eta gure gorputz sozialeko atal desberdinetan kokatutako minei lotzen zaizkie. Bere biografiaren arabera, bizi izan duen eta oroitzen duen auzoaren, kalearen, etxearen eta familiaren arabera, pertsona bakoitza iragan horrekin jartzen da harremanetan, pertzepzio eta sentsibilitate desberdinen bitartez.

Lau kale horiek gure Memoriaren plazan elkartzen dira. Kontua ez da batzuen eta besteen minen istorioak alderatzea, konparatzea edo konpentsatzea. Gure isla den gizarte-errealitatea azaltzea baizik.

### II. Memoriaren funtsezko faktorea

Gertatutakoaren oroitzapenari eusteko aukera ematen digun ahalmena da memoria. Atxikitzen ditugun gertaera objektiboetan oinarritzen da, baina pertsona bakoitzaren baitan konfiguratu da, subjektiboki. Ez ditugu aurkituko berdin-berdinak diren bi memoria. Horregatik, memoria publikoa eraikuntza poliedrikoa, dinamikoa eta gatazkatsua da.

---

### III. Memoriari buruzko politika publikoaren bi oinarriak

Eusko Jaurlaritzaren memoriari buruzko politika publikoan bi oinarri elkartzeko dira. Batetik, memoria demokratikoa gogoratzeko, oroitzeko, partekatze eta transmititzeko erantzukizun etiko eta politikoa, memoria hori jakinarazteko, memoria horren erabilera sustatzeko eta hari esanahi berri bat emateko. Bestetik, memoria hori konfiguratzeko, parte-hartzea eta pluralismoaren adierazpena bideratzeko borondatea, kontakizun bakar edo monolitiko bat inposatu gabe.

### IV. Memoriari buruzko politika publiko baten premia

Memoria ez da betebeharra, herritarren eskubidea baizik. Gure historian gertatu berri diren indarkeriazko hainbat gertaerak giza eskubideen urraketa etengabea ekarri zuten berekin, eta hori oso traumatikoa izan zen gizartearentzat. Hortaz, hausnarketa egin beharrea gaude horren guztiaren aurrean, eta memoriari lagungarri behar du hausnarketa hori partekatze prozesuan.

### V. Memoriari buruzko politika publiko baten eginkizuna

Memoriari buruzko politika publikoa ez da soilik sufrimendua eguneratzea. Hori baino gehiago ere bada, balioak proiektatu behar ditu. Samina ez da balio bat eta ezin da arrazoiarekin ordeztu duen memoria-agintaritzaren printzipiotzat hartu. Sufrimenduaren esperientziaren lekukotza memoriaren barruan biltzen da. Indarkeriazko gertakari larrien artean, duintasuna, berdintasuna eta askatasuna defendatzeko lehian jardun zuten balio eta ahalegin demokratikoak berreskuratzea, nabarmentzea, gosestea eta transmititzea izan behar du memoriari buruzko politika publiko baten eginkizun nagusiak. Borondate horien oroitzeak, ondo gordezea merezi duen ondare publikoa osatzen dute.

### VI. Memoriari buruzko politika publikoaren lehen eta azken helburuak

Lehen helburua honako hau da: elkarrekin bizi diren memoria demokratikoen artean herritarren elkarriketa sortzaile bat bideratzea, sustatzea eta horri adierazpidea ematea, iraganeko esperientzia sozial eta politikoki traumatikoei dagokienez. Eta azken helburuari dagokionez, plaza publiko edo agora bat modu dinamikoan eta produktiboan eratzeko laguntzea, gizartearen balioak elkartzeko toki bat, berdintasun-, askatasun- eta demokrazia-maila handiagoa lortzearen.

## VII. Memoriari buruzko politika publikoaren muga

Memorien arteko elkarrizketa libre eta plural horren kudeaketak muga bakarra dauka: gutxieneko demokrati-ko batzuk bete behar ditu. Ezin daiteke baztertzeko erabili, ezta gertakariak alderatzeko ere. Ezin da erabili, halaber, giza eskubideen urraketako, indarkeriazko, terrorismoko edo gerrako ezein ekintza legitimatuko duen historia bat berridazteko. Giza duintasunaren goi-mailako balioa eta balio horren ondoriozko eskubide eta askatasuna izan behar ditu xede, egia eta justizia argitzearren.

## VIII. Memoriari buruzko politika publikoa eta biktimak

Biktimen lekukotzak garrantzi handia dauka memoria eraikitzekeo prozesuan. Nolanahi ere, memoriari buruzko politika publiko baten xedea ez dira biktimak, herritar guztiak baizik, betiere herritar horiei erantzukizuna eskatzen dien aldetik. Bestela, biktimak bakartuta geratuko lirateke beren oroimenean, biktimak izan ez direnak memoria kolektibotik kanpo utzita. Memoriari buruzko politika publiko batek biktimen eta gainerako herritarren arteko bereizketa hori desegin behar du. Izan ere, bereizketa horren eraginez, biktima bere biktima-kondizioan itxita geratzen da etengabe, eta gainerako herritarrak, aldiz, ikusle soilak dira, begirunez eta elkartasunez jardun arren zuzenean inplikatzeko aukerarik gabe. Memoriari buruzko politika publikoak herritarren inplikazioko ibilbide etikoa egitea iradokitzen du.

## IX. Memoriari buruzko politika publikoa eta oroitzapenezko jarduera

Oroitzapenezko jarduera ezin daiteke oroigarri bat, plaka bat, instalazio bat edo horma-irudi bat ezartzera edota oroitzapenezko egun bat jartzera mugatu. Monumentu bat baino gauza ikusezinagorik ez dago. Egunerokotasunaren eta ofizializazioaren eraginez, efikazia eta bereizteko ahalmena galtzen dute erabat. Oroitzapenezko jarduerak mugarri nabariak beharko ditu, bai, baina hausnarketa bat ere beharko du, mugarri horiek sortzeko, mantentzeko eta iraunarazteko dinamismoaren inguruan. Horixe da memoriari buruzko politika publikoaren erronka nagusietako bat

---

# Memoriari buruzko politika publikoa. Proiektuak

---

## Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua

Eusko Jaurlaritzak Memoriaren eta Bizikidetzaren institutua eratuko du. Erakunde horretan memoriari buruzko politika publikoak eta zentrozen, espazioen edo ekitaldien sarearen sinergiak koordinatu eta dinamizatuko dira.

Institutuaren eginkizun zehatzenak honako hauek izango dira: oroitzapen-ospakizunak, kontserbazioko, ikerketako, prestakuntzako, parte-hartzeko, zabalkundeko, integrazioko, kontsultako eta dibulgazioko jarduerak sustatzea. Betiere erakundeekin, hezkuntza-arloko agenteekin eta gizarte-agenteekin elkarreaginean.

## Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa

Terrorismoaren Biktimen Errekonozimendu eta Babeserako Legearen 57. artikuluari jarraiki, Euskal Herrian Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa sortzen lagunduko du Eusko Jaurlaritzak. Zentro hori sortzea Espainiako Gobernuaren erantzukizuna da. Dena dela, Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzea bere Fundazioaren Patronatuan parte hartuz bideratuko da.

Gure gizartean larritasun eta garrantzi handia izan dute erakunde terroristek egindako giza eskubideen urraketek; horrez gain, ez da komeni indarkeriazko eta biktimizazioko testuinguru desberdinak nahastea. Bi faktore horiek kontuan izanik, jardun espezifiko honi bultzada eman beharko genioke, betiere bateragarria izanik indarkeriazko eta biktimizazioko bestelako testuinguruetan gertatutako urraketei merezi duten errekonozimendua eta ordaina emateko jardunekin.

## Adostasuna bestelako proiektu eta ekimenen irizpide gisa

Aurrekoak ez ezik, badaude beste zenbait ekimen memoriari buruzko politika publikoarekin zerikusia dutenak, hala nola memoriaren eguna, maparen eguna eta tokiko beste hainbat jardun. Eusko Jaurlaritzak horiek guztiak bultzatzeko konpromisoa dauka. Nolanahi ere, memoria, zatitzeko horma izan beharrean, elkarrengana biltzeko plaza izan dadin, behar-beharrezkoa da adostasun sozio-politiko zabalak sortzea, helburuak eta edukiak zehazterakoan; horrela bakarrik lortuko dugu memoriari eustea.







---

## 2. dokumentua

---

### **Memoriaren Mapa amaituz**

---





---

## Memoriaren Mapa amaituz

---

Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimak oroitzeko eta aitortzeko jarduerak udal-esparruan garatzeko iradokizunak

---

**2014ko maiatzaren 29a**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

---

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA  
Secretaría General  
para la Paz y la Convivencia



---

## AURKEZPENA

---

Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planak bi jarduera-ardatz osagarri garatuko ditu bik-timen arloan. Batetik, laguntzeko, aitortzeko eta konpontzeko ildo nagusietan *jarraitzeko* apustua egiten du. Bestetik, politika berri horiek *berrituko* ditu une honetan planteatzen diren behar berriei jarraiki.

Dokumentu hau bi arlo horietako lehenengoan sartzen da, jarraipen-ekimenen garapenean. Zehazki, Bake eta Bizikidetzaren Planaren IV. Ekimenaren jarduera-programaren 4. Ekintzak "Memoriaren Mapa adostasunez garatzea sustatzea" aurreikusten du. Eusko Jaurlaritzaren jarduera hori 2009ko azaroan aurkeztu zen.

Memoriaren Mapak bi xede zituen; batetik, udalerrri bakoitzean bertan bidegabe hil zituzten pertsonak gogoratzeko oroimen-ekintzak egitea sustatzea, betiere Udalen laguntzarekin. Eta, bestetik, indarkeriaren aurkako eta bizitza defendatzearen aldeko memoria kritiko bat bultzatzeko erakunde-betebeharra betetzea.

Ekimen hori ez da oraindik amaitu. Dokumentu honen helburua xede hori berriro bultzatzea da, osatzeko. Horrexegatik deitzen da, bada, "Memoria Mapa amaituz". Gainera, proposamen honek memoriari lotutako udal-politiken arloan hainbat Udalek planteatu dizkiguten kontsultei eta zalantzei erantzun nahi die.

Dokumentu honek "terrorismoaren eta indarkeriaren biktimak oroitzeko eta aitortzeko jarduerak udal-esparruan garatzeko iradokizunak" eskaintzen ditu. Bi zatitan egituratuta dago: "premisak etikoak" eta "gomendio praktikak". Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak udal-esparruan oroimen-politikak bultzatzeko egiten duen ekarpena da.

Dokumentu irekia da. Abiapuntu bat da, beraz, iradokizun moduko bat, eta Udal bakoitzarekin elkarrizketan jarduteko pentsatuta dago, bai eta tokiko errealitate berezian aplikatzea aztertzeko ere. Eudelek eta Legebiltzarreko talde guztiek partekatzen dute proposamena, aurkeztu zen egunetik.

---

# I. Premisa etikoak

---

## 1. Jarduera justu bat

Erakundeek biktimak oroitzea eta aitortzea ez da eduki etikorik edo politikorik ez duen oroimenezko ekintza huts bat; aitzitik, biktimek pairatutako bidegabekeriaren aurrean elkartasuna eta humanitatea agertzea dakar. Indarkeria-garaian bakea defendatu zuten balio demokratiko batzuk berrestea, eta giza eskubideak, batik bat bizitza-eskubidea, ukatzen dituen edozer eraso errotik deslegitimatzearen pedagogia bat. Horiek biak ezinbestekoak dira. Bidezkoa da udal-esparruan biktimak oroitzeko eta aitortzeko jarduerak sustatzea(\*).

## 2. Jarduera zintzo bat

Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketek buruzko oinarritzko txostenaren arabera, 1.076 pertsona hil zituzten 1960 eta 2013 artean. Horietatik 837 ETAK hil zituen; 94 Segurtasun Indarrek; eta 73 talde parapolizialek edo eskuin-muturreko taldeek. Beste 77 kasuren egileak ezezagunak dira. Dokumentu honetan aipatzen ditugun biktimak terrorismoagatik, indarkeriagatik eta giza eskubideen urraketagatik hildako pertsonak dira. Hildako biktimen familiek, banan-banan, bidegabekeria atzeraezina pairatu dute, eta beren tokiko erakundearen eta beren bizilagunen inplikazio zintzo eta gertukoaren beharra dute.

## 3. Beharrezko jarduera bat

Memoriaren politika publikoak iragana gogoratzen du, eta, gertatutakoaren oroimenetik gure gizartearen iraganean, orainean eta etorkizunean esku hartzen du. Iraganari dagokionez, memoria-politikak erantzukizunarekiko konpromiso etiko bat izatea dakar. Ahaztea pedagogia- eta prebentzio-tratamendu okerreana da indarkeriaren aurrean. Orainari dagokionez, oroimen-politikak ondasun preziatuenaren, alegia, bizitzaren urraketa bidegabea pairatu zuten pertsonetik eta beren senideekiko enpatia- eta elkartasun-ariketa bat irudikatzen du. Etorkizunari dagokionez, oroimen-politika ez errepikatzeko konpromiso bat da. Herritarrek jakin behar dute ezein kausa edo arrazoi ezin dela giza duintasunaren balioaren gainetik kokatu, balio absolutu bat izango balitz bezala.

---

(\*) Bidezkoa da, halaber, udal-esparruan frankismoaren biktimak ere oroitzea. Nolanahi ere, hau oroimen-arlo espezifiko bat da, oroimen-eta aitortze-mugarri propioak dituen eta izan behar dituen. Dena den, hemen jasotako irizpideak frankismoaren biktimak oroitzeko ekitaldietan ere aplika daitezke.



---

## II. Gomendio praktikoak

---

---

### NOLA EGIN

#### 1. Tokiko indar politikoen artean elkarrizketa eta adostasuna sustatzea

Beharrezkoa da garatuko diren jardueren inguruan ahalik eta adostasun handiena lantzea, bilatzea eta sustatzea Udaleko indar politikoen artean. Kontuan hartu behar da bereizketa, hutsegitea eta sumina birbik-timizazioko faktoreak direla.

Adostasuna lortzeko abiapuntu gisa, adostasun maila handia duen testu bat *zoru etiko* gisa ezagutzen de-naren oinarritzko printzipioa da. 2013ko martxoaren 14an onartu zuen Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak, lau legebiltzar-talde handien aldeko botoekin:

*“Bakeak eta elkarbizitzak indarkeriaren injustizia, egindako kaltearen aitortza eta biktima guztien duintasuna behar dituzte. Denek merezi dute egia, justizia eta konponketarako eskubidea”.*

#### 2. Biktimen familiekin komunikatzea eta adostea bilatzea

Behin betiko edozer erabaki hartu baino lehen, jakina, udalerrian bizi diren biktimen senideekin harremanetan jarri beharra dago, bai eta udalerrri bakoitzean hil zituzten pertsonen senideekin ere, baldin eta handik kanpo bizi badira, beraiekin adosteko zer motatako ekimen egingo den.

#### 3. Gizartearen inplikazioa bultzatzea

Gainera, sustatuko diren jardueretan herritarrek eta udalerriko gizarte zibil antolatuko erakundeek parte har-tzea bultzatu beharra dago, dela aurretiko diseinurako, dela garapenerako. Funtsezkoa da oroimen-politiken esanahiaren alderdi parte-hartzailea nahiz pedagogikoa garatzea.

---

## ZER EGIN

### **1. Udallerri guztietarako jarduera gomendagarriak**

·Erakundeek terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketaren biktimak oroitzeko eguna ospatzea, urte bakoitzeko azaroaren 10ean.

### **2. Hildako pertsonen udalerrietarako jarduera gomendagarriak, baldin eta lehen aldiz egingo badituzte oroimen-ekintzak**

·Hildako pertsonen udalerrietan, baldin eta lehen aldiz antolatuko badituzte biktimak oroitzeko ekintzak, zera gomendatzen da: oroimeneko eta aitortzeko erakunde-ekintza pertsonalizatu bat egitea biktima bakoitzarekin, hilketaren egunarekin bat. Lore-eskaintza bat, testu-irakurketa bat edo familiaren adostasuna duen beste edozer ekimen izan daiteke. Familiak nahiago badu ezer ere ez egitea, beren nahia errespetatu beharra dago. Lehen urtetik aurrera, gomendatzen da terrorismoagatik, indarkeriagatik eta giza eskubideen urraketagatik hildako biktimak oroitzeko eta aitortzeko jarduerak Memoriaren Egunaren ospakizunean sartzeari.

### **3. Hildako pertsonen udalerrietarako jarduera gomendagarriak, baldin eta aurretik egin badute oroimen-ekintzarik**

·Hildakoen udalerrietan, baldin eta aurretik egin badute oroimen-ekintzarik, zera gomendatzen da: adostasuneko oroimen-erreferente bat sortzea toki-esparruan, eta horren inguruan ospatzea urtero Memoriaren Eguna. Erreferente hori udalerriko plaza bat, parke bat, eskultura bat edo toki enblematiko bat izan daiteke. Gomendatzen da memoria-espazio horretan oroitzen diren biktimen izenak idaztea. Beste aukerarik ere azter daiteke, hala nola, atentatuaren tokian plakak jartzea, edo, bestela, izaera artistiko edo sortzaileko beste batzuk, baldin eta biktimen familien eta udalerriko alderdien arteko adostasuna badago.

Oharra: Eusko Jaurlaritzak eskertuko du Udalek Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari biktimak oroitzeko eta aitortzeko garatzen dituzten ekimenen berri ematea. Aldi beren, Idazkaritza hau prest dago Udalei aholkularitza eskaintzeko eta memoria-politikak garatzen laguntzeko.





---

## **3.** dokumentua

---

Memoriaren, Bizikidetzaren  
eta Giza Eskubideen Institutua  
sortzeko Legea

---



---

# 4/2014 Legea, azaroaren 27koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzekoa

---

**Eusko Legebiltzarrak azaroaren 27ko 4/2104 Legea, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzekoa onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.**

## ZIOEN AZALPENA

---

Autonomia Estatuaren 9. artikuluan ezarrita dago zein den euskal botere publikoen jarduera gidatu behar duen funtsezko xedea, eta hor sartzen dira herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia bermatzea, bizi-baldintzen hobekuntzaren aldeko politika bultzatzea, eta gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitea eta oztopoak desagerraraztea.

Memoria demokratiko bat gestionatzeak lotura zuzena du askatasuna, berdintasuna eta giza duintasuna bezalako balioak lehengoratzearekin eta bultzatzearekin. Herritarren eskubidea da memoria, ez betebeharrak. Gogoeta kritiko bat elkarbanatzeko borondateari erantzuten dio, giza eskubideen urraketa iraunkor eta sozialki traumatikoa ekarri zuten gure historia berriko gertaerei buruzko gogoeta kritiko bat.

Azkeneko ehun urtean, euskal gizarteak gutxienez indarkeriak markatutako lau esperientzia traumatiko sufritu ditu: Gerra Zibila, diktadura frankista, ETaren terrorismoa eta legez kontrako antiterrorismoak.

Ezberdinak izanik ere, badute laurak lotura komun bat: bidegabeki jasandako sufrimendua, eta egoera okerreren artean ere bizikidetzaren demokratikoa eta giza eskubideen defentsan, bakean eta askatasunean oinarritutako gizarte bat eraiki eta defendatzeko ahalegina.

Balio horiek garrantzi handiko ondare demokratikoa dira, gorde eta transmititu beharrekoak memoriaren eta bizikidetzaren politika publiko egoki baten bidez. Euskadin jasandako sufrimendu bidegabearen memoria gordetzea da egin daitekeen zerbitzurik onena etorkizunean bizikidetzaren duinago, justuago eta libreago bat

---

---

izan dadin, baldin memoria hori era barneratzailean eta kausen berezitasuna haiek beren artean parekatu gabe mantenduz gordetzen bada; zerbitzurik onena irizpide kritikoz eraturiko gizarte batentzat, gizarte sendo batentzat gerraren, totalitarismoaren, terrorismoaren eta edozein indarkeriaren edo giza eskubideen urraketaen mehatxuaren aurrean.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua ekarpen bat da erronka historiko honentzat. Memoriak ahalbidetzen digu gertatutakoaren oroipena presente izatea. Memoria gertaera objektiboen erreferentzian oinarritzen da, oroitzen denaren parte diren gertaera objektiboetan, baina modu subjektiboan erazten da pertsona bakoitzarengan. Ez dago bi memoria berdin-berdinak. Memoria publikoa, beraz, eraikitze gatazkatsu, dinamiko eta poliedrikoa da.

Memoriaren politika publiko batek bi printzipio handi konbinatu behar ditu, batera ekarri. Alde batetik, erantzukizun etiko eta politikoa bereganatu behar du: oroitzea, oroitzapena egitea, elkarbanatzea eta transmititzea memoria demokratiko bat. Beste alde batetik, parte-hartzea eta pluralismoaren adierazpena bideratu behar ditu memoria eratzean.

Memoriaren arteko elkarrizketa aske eta plural honen kudeaketak muga bakarra du: babestu behar ditu gutxieneko demokratiko batzuk. Urraketa-kategoria berdinen biktimek duten eskubide-berdintasunaren printzipioa aintzat hartuz, memoria ezin da erabili gertakariak baztertzeko eta erkatzeko. Ezta terrorismo, indarkeria edo giza eskubideen urraketa ezein adierazpide legitimatuko lukeen historia bat berridazteko ere. Alderantziz, urraketa haien salaketarik sendoena da, giza duintasunaren goreneko baliori begira egiten baita, egia eta justizia helburu, baita balio horren ondorio diren eskubideei eta askatasunei begira ere.

Eusko Legebiltzarrean lortu berri diren zenbait adostasun garrantzitsurekin bat etorrita, memoriaren eta bizikidetzaren politika publikoak oinarrian izan behar du «biolentziaren bidegabekeriaren aitortzea, sortutako minaren eta biktimen duintasunaren aitortzea, biktima guztiak egiarako, justiziarako eta erreparazioarako eskubidea dutelarik». Biktima guztiak merezi dute, herritar guztiak bezala, memoriaren eskubidea.

Memoriaren eta bizikidetzaren politikaren eginkizun nagusia ez da sufrimendua eguneratzera mugatzen, mina ez baita balio bat, eta ez da ulertu behar arrazoia ordezkatzeko duen oroimenezko aginpide gisa. Sufrimendua esperientzia bat da eta haren lekukotasuna memoria demokratikoaren parte da. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren eginkizun nagusiak erreskatatu, nabarmendu, oroitu eta transmititu behar ditu indarkeriazko gertakari larrien erdian duintasuna, berdintasuna, askatasuna... defendatzeko borrokatu ziren balio eta ahalegin demokratikoak.

Haren lehen helburua da herritarren arteko elkarrizketa sortzaile bat bideratzea, sustatzea eta adieraztea, iraganeko esperientzia sozial eta politikoki traumatikoetan elkarrekin bizi diren memorien arteko elkarrizketa bat. Haren azken helburua da laguntzea agora bat eraikitzen, dinamikoa eta emankorra, plaza publiko bat, balioen topagune sozial bat, berdintasun maila handiagoak lortzeko. Askatasuna eta demokrazia.

Horiek horrela, memoriaren eta bizikidetzaren politika publikoa ez da biktimei begira bakarrik egiten, herritar guztiak begira baizik, haien erantzukizuna eskatzen baitu. Horrela egiten ez bada, biktimak bakarrik gelditzen dira haien oroitzean eta biktima izan ez direnak memoria kolektibotik kanpo geratzen dira. Memoriaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen institutu batek deuseztatu behar du biktimen eta herritarren arteko banaketa hori. Banaketa horrek egoera horretan ixten du biktima, betiko itxi ere, eta ikusle hutsa bihurtzen du herritarra. Memoriaren zentro batek ibilbide etiko bat iradoki behar du, herritarrek parte hartzeko ibilbide bat.

Memoriaren eskubidea gizarte osoari dagokio, herritarrak dira-eta historiaren, oroipenaren eta memoriaren gordetzailerik eta oinordeko naturalak. Ahazteak ezinezko egiten du errekonozimendua, iraganaren bertsio bat inposatzen du eta hutsune etiko bat sortzen du. Haren aurrean, herritarrek memoria demokratikoaren ezagutza historiko ez-neutral bat izateak bidea ematen du irizpide propioak lortzeko eta, gainera, libreago egiten ditu herritarrak.

Memoriak gordetzen duen ondare demokratikoak oinarri izan behar du, gizartearen bizikidetzaren demokratikoa; salaketa izan behar du, sufrimendu bidegabearen erantzuleena, eta bultzatzaile izan behar du, balio etiko eta printzipio demokratikoena.



Memoriaren gestioa ezin da mugatu, bestalde, oroigarri, plaka, eskultura edo mural bat ipintzera edo data bat ezartzera. Oroitzeak ikusgaiak beharko ditu, bai, baina gogoeta bat gehitu beharko da memoriaren sorreraren, iraunkortasunaren eta indarraldiaren dinamismoaz. Hori da Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren desafio handienetako bat.

Eremu kontzeptual horretan, institutuaren eginkizun nagusia da gestionatzea egia eta justiziari buruzko memoriaren balio demokratiko eta etikoak gordetzeko, ikertzeko, ezagutzera emateko eta haietan hezteko lana, baita bultzatzea eta bermatzea herritarrek ondare horren mantentze-lanetan parte har dezaten ere.

Aldarrikapen unibertsala inspiratu zuten giza eskubideen eta balioen sustapena eta defentsa tresna balioetsuenetako bat izango da Euskadin bizi izandako indarkeria traumatikoko esperientziak berriz gertatuko ez direlako bermea lortzeko.

Oso erro sakoneko uste sendoa da hori, garrantzi handiko legegintza-aurrekariak eta adierazpen instituzionalak dituen, nahiz eta egia den gertatu berriak direla, duela hamar urtetik honakoak.

Biktimen eskubide berezien lehen arauketa, zehazki terrorismoaren biktimei dagokienez, Estatu mailan, Herritarren segurtasuna babesteari buruzko urtarilaren 26ko 3/1979 Errege Lege Dekretuan aurkitzen da, eta, Euskadiko ordenamendu juridikoan, abuztuaren 4ko 221/1988 Dekretuan jasotzen den terrorismoaren biktimentzako laguntza-programan. Gerra Zibilaren garaitik datozen ondorioei erantzuteko, Eusko Jaurlaritzak onetsitako programak aipa daitezke, azaroaren 19ko 280/2002 Dekretuan eta otsailaren 14ko 22/2006 Dekretuan daudenak.

Aurreneko arau horiek garapen berezia izan dute, nahiz eta garapen hori, orokorrean, biktimen eskubide ekonomikoak arautzera zuzendu den, jasan dituzten gertaeren ondorioz sortutako premia materialak arintzeko.

2000. urtean hasten da agertzen instituzioetan biktimen eskubide immaterialei buruzko kontzientzia, bereziki memoriarako eskubideari buruzkoa, horri bizikidetzaren eta demokraziaren printzipioen garapena batzen zaiola.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak egin zituen 2006ko Bake eta Bizikidetzeta Plana, Bakearen eta Giza Eskubideen Hezkuntzako Euskal Plana 2007an, zeinetik eratoritzen baita 2008ko ekainaren 24an Giza Eskubideen Zuzendaritzak osatutako txostena, motibazio politikoko indarkeria egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimena, eta Bizikidetzeta Demokratikorako eta Indarkeriaren Deslegitimaziorako 2010eko Plana.

2001 eta 2002. urteetan, Eudel Euskadiko Udalen Elkarteak hainbat agiri onetsi zituen, hala nola bizitzaren eta askatasunaren aldeko adierazpen instituzionala; gizon-emakume guztion bizitzarako, askatasunerako eta segurtasunerako eskubideen aldeko adierazpen etikoa, eta Euskadiko alkateentzako gutun irekia, udal-eremuan aniztasunaren defentsa bultzatzeko.

Gai honetan izandako aurrerapena legegilearen eskutik etorri da, hiru arau funtsezko egin baitira memoriarako eskubidea definitzeko eta eskubide hori bizikidetzeta demokratikoaren sustapenerako oinarritzeko elementu gisa ulertzeko.

Lehenengoa, denboran, Oroimen Historikoaren Legea esaten zaiona da, Gorte Nagusiek onetsitako abenduaren 26ko 52/2007 Legea, zeinaren bidez eskubideak aitortzen eta zabaltzen baitira eta neurriak ezartzen Gerra Zibilaren eta diktaduraren garaian jazarpena edo indarkeria sufritu zutenen alde. Lege horretan ezartzen dira biktimek erreparazio moralerako eta memoria berreskuratzeko dituzten eskubideak, eta benetako politika publiko gisa definitzen da balio eta printzipio demokratikoak sustatzeko.

Bigarrena denboran, Eusko Legebiltzarrak onetsitako ekainaren 19ko 4/2008 Legea da, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa Egitekoa. Horretan, zioen azalpenaren zati bat eta II. titulua printzipio horiek azaltzeko baliatzen dira, eta titulu horretan finkatzen da biktimen eskubideen sailkapen bat, honako hiru maila hauek bereiziz: titulartzat biktimak bakarrik dituzten eskubideak, horien artean sartzen direlarik justiziarako, duintasunerako, erreparaziorako eta parte-hartzerakoak; biktimek eta gizarteak partekatzen

---

dituzten eskubideak, hala nola egiarako eta memoriarako eskubidea; eta hirugarren eskubide-maila bat, euskal herritarrei dagozkien eskubideak, horien artean arautzen direlarik bakerako, askatasunerako eta bizikidetzarakoak.

Azkenik, aipatu behar da Gorte Nagusiek onetsitako irailaren 22ko 29/2011 Legea, Terrorismoaren Biktimen Aitorpenerako eta Babes Integralerako. Horren arau-multzoan adierazten eta arautzen dira terrorismoaren biktimen memoriarako, duintasunerako, justiziarako eta egiarako eskubideak.

## I. KAPITULUA

### **Xedapen orokorrak**

---

#### **1. artikulua.– Sorrera eta izaera.**

1.– Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzen da, izaera administratiboko organismo autonomo gisa. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio instituzionalean sartuta dago, nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa ditu, beraren politika publikoaren garapenari dagokion jardun administratiboa deszentralizazio-erregimenean gauzatzeko, politika hori datzalarik giza eskubideen bermean, bultzadan eta garapenean, memoriaren sustapenean eta bizikidetzaren demokratikoaren aurrerapen eta garapenean, lege honetan izendatzen zaion helburuari dagozkion baldintzetan.

2.– Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua arautuko da lege honetan xedatutakoaren, Euskal Autonomia Erkidegoan izaera administratiboko erakunde autonomoei aplikagarri zaien arautegiaren eta bere estatutuen bidez. Estatutuak Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez onartuko dira, Zuzendaritza Kontseiluak alde aurreko txostena eginda, eta institutua atxikitzen zaion sailak proposatuta.

3.– Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua memoriari eta bizikidetzari buruzko politika publikoa bultzatzeko ardura eta eginkizunak esleituak dituen Administrazio orokorreko sailari atxikitzen zaio, institutuaren egitura organikoa ezartzen duen dekretuak zehaztutako moduan.

#### **2. artikulua.– Egoitza.**

1.– Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango du egoitza.

2.– Institutuak bere jarduerak sustatuko ditu Autonomia Erkidegoko herrietan edo Autonomia Erkidegotik kanpo, bereziki beren zirkunstantzia historikoengatik erakundeari izendatu zaion helburuari dagokionez sinbologia berezia duten toki jakin batzuetan. Horretarako, behar diren lankidetzaren hitzarmenak sinatuko ditu instituzio publikoekin edo entitate pribatuekin. Bere presentzia fisikorako lekua aukeratzekoan, aintzat hartuko du komunikabide onena non den eta herritarrek haren jarduerak irisgarriak non dituzten.

#### **3. artikulua.– Helburua.**

1.– Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren helburua da parte hartzea diseinatzen, sustatzen, garatzen eta gauzatzen euskal gizartearen askatasunaren aldeko borrokaren, giza eskubideen bermeari eta bizikidetzaren demokratikoaren orimenean funtsezkoak diren balio etikoei eta printzipio demokratikoei buruzko politika publikoa.

2.– Institutua lan egingo du, gure herriak askatasuna eta demokraziaren garapena defendatzen hainbat markadatan mantendu duen prozesua gogoan, etengabeko orotzapena egin dadin herritarrek prozesu hura ezagutzea, ulertzea eta kontzientzia hartzea bermatzen duten balio politiko eta sozialez.

3.– Institutuak lan egingo du gordetzeko, garatzeko eta zabaltzeko memoriak eragin duen ondare kolektiboa, bizikidetzaren demokratikoaren oinarri diren balioen eta printzipioen defentsarena, biktimen lekukotasunean alderdi ordezkaezin bat duena.

4.– Institutuak bultzatu egingo du giza eskubideak eta bakearen balioak zabaldu, sustatu eta defendatzeko lana.

#### **4. artikulua.– Eginkizunak.**

1.– Institutuaren eginkizun nagusia izango da aurreko artikuluan izendatzen zaion helburuari buruzko politika publikoa koordinatzea. Horretarako, Autonomia Erkidegoko sektore publikoan dauden organo, zerbitzu edo entitateen jarduna koordinatuko du, definitu den politika publikoarekin zerikusia duen bezainbatean, eta kooperazioa eta lankidetzaz bultzatuko du beste edozein administrazio edo instituzio publikorekin.

2.– Institutuak arreta berezia jarriko du bere eginkizunak betetzerakoan instituzio publikoekin eta izaera pribatuko entitateekin eta haren eginkizunetan interesa duten elkarteekin lankidetzan jarduteko, gizartearekin ahalik harreman handiena izateko bidea bermatuz.

3.– Institutuak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Oroitzapena: programak, argitalpenak eta jardura akademiko eta kulturalak antolatuz, baita bestelako ekitaldi batzuk ere, gizarte demokratiko eta aske baten eraketan garrantzia izandako pertsona eta gertaeren lekukotasuna eta memoria bizirik mantenduko dituztenak.

b) Kontserbazioa: Euskadiko memoria demokratikoaren ondarea gordetzeko lana eginez haren euskarri material guztietan.

Horretarako, bere jardueran aintzat hartuko du memoriari lotutako elementu eta lekuei buruzko informazio-funtsak eta inbentarioak sortu eta mantentzea, direla ondasunei, gune fisikoei, gizarte-inguruneei edo identifikazio eta aitopen sozialerako balio duten beste batzuei buruzkoak.

c) Ikerketa: ikerketa sustatuz eta instituzioekin, entitate espezializatuekin eta gogoeta-foreoekin lankidetzan arituz, ikerketa- eta azterketa-lanen bidez benetako informazioa eta datuak biltzeko behar diren dokumentazio-azpiegiturak sortuko dira. Ikerketaren bidez, ahalbidetuko da memoria eta bizikidetzaz eraikitzea, memoria zabaltzea eta komunikatzea.

d) Heziketa: bizikidetzaren eta memoriaren oinarrizko printzipioak pertsonaren oinarrizko eskubideen aitopenaren eta errespetuaren gainean finkatuz, bai hezkuntza-komunitatean eta bai eskubide horien urraketak jasateko edo eragiteko arriskua izan dezaketen edo birgizarteratze-prozesuen beharra duten kolektiboetan.

e) Parte-hartzea eta zabalkundea: memoriaren ondarea Administrazioak herritar guztiei modu irisgarrian bermatu beharreko eskubidetzat hartuz.

f) Integrazioa: elkarlana eta komunikazioa sustatuz institutuaren helburuen antzekoak edo osagarriak dituzten instituzioen eta entitate publiko eta pribatuen artean, kooperaziorako eta lankidetzarako behar diren protokolo eta hitzarmenak sinatuz memoriaren eta bizikidetzaren azpiegituren sare bat sortzeko, bertan integra daitezten institutuaren helburuekin bat datozen era guztietako zentroak.

g) Kontsulta: institutuaren helburuarekin zerikusia duten gaiei buruzko txostenak eginez, administrazio publikoek eskatuta.

#### **5. artikulua.– Iraungitzea.**

Institutuaren iraungitzea legez onetsi beharko da. Legean ezarri beharko dira Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa institutuaren langilerian, ondarean, eskubideetan eta betebeharretan subrogatzeari buruzko neurriak.

---

## II. KAPITULUA

### Antolaketa

---

#### 6. artikulua.– Gobernu-organoak.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren gobernu-organoak honako hauek dira:

- a) Lehendakaritza.
- b) Zuzendaritza Kontseilua.
- c) Zuzendaritza.

#### 7. artikulua.– Lehendakaritza.

1.– Gobernuko kide bat izango da institutuko lehendakaria, Gobernu Kontseiluak izendatuta.

2.– Institutuko lehendakaria izango da haren ordezkari gorena, eta, orobat, berari dagokio institutua Gobernuaren plangintzarako eta politika orokorrerako ildo nagusietara egokitu dadin sustatzea, Zuzendaritza Kontseiluko lehendakari izatea, haren bilkuretara deituz, bilkuretako gai-zerrenda ezarriz, bilkurak zuzenduz, erabakiak hartzean gerta litezkeen berdinketak bere kalitateko botoarekin ebatziz eta hartutako erabakiak betetzen direla zainduz.

#### 8. artikulua.– Zuzendaritza Kontseilua.

1.– Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluko kideak, institutuko lehendakariak eta zuzendariak gain, honako hauek izango dira:

- a) Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren hamalau ordezkari, institutua atxikita dagoen sailak Administrazioako goi-kargudunen artean hautatu ondoren izendatuta.
- b) Legebiltzarra ordezkatu duten lau legebiltzarkide, haren Osoko Bilkurak ordezkari horretan ahal den adostasunik handiena eta aniztasuna bilatuz hautatuta.
- c) Foru-instituzioen hiru ordezkari, foru-aldundi bakoitzak bere diputatu-kontseiluko kideen artean hautatu ondoren izendatuta.
- d) Euskadiko udalen hiru ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoan kide gehien dituen udal-elkarteak alkatuen artean hautatu ondoren izendatuta.
- e) Hiru kide independente, Eusko Legebiltzarrak memoria sustatzen eta askatasun zibikoak eta elkarbizitza demokratikoaren printzipioak defendatzen itzal handia duten pertsonen artean hautatu ondoren izendatuta.

2.– Artikulu honen 1. zenbakiko a) idatz-zatitik d) idatz-zatira arte –biak barne– aipatu diren Zuzendaritza Kontseiluko kideek beren izaerari eutsiko diote bakoitzak bere instituziokoa izaten jarraitu behar duelako baldintza betetzen duten bitartean, salbu eta hautatzeko eskumena duen organoak ordezteko erabakitzen badu.

3.– Artikulu honen 1. zenbakiko e) idatz-zatian aipatutako Zuzendaritza Kontseiluko kide independenteak lau urterako hautatuko dira, eta berriro hautatzeko aukera egongo da.

4.– Zuzendaritza Kontseiluko kideak hautatzeko gaitasuna duten instituzioetako batek adierazten badu kontseiluan parte hartzeko asmorik ez duela edo kideak dagokion epean hautatzen ez baditu, hautatu egin diren kideekin eratu da organoa, hurrengo zenbakian aurreikusitako izendapena egin ondoren. Kiderik hautatzen ez duen instituzioak edozein unetan egin ahalko du hautaketa geroago.

5.– Aurretik egin beharreko hautaketak jaso ondoren, dekretu bidez izendatuko dira institutuaren Zuzendaritza Kontseiluko kideak.

6.– Zuzendaritza Kontseiluaren bilkurako gai-zerrendako punturen batean hala komeni bada, lehendakariak, Zuzendaritza Kontseiluarekin adostuta, bilkuran parte hartzera gonbidatu ahalko ditu, hitza dutelarik baina botorik gabe, beste instituzio, administrazio eta entitate publiko edo pribatu batzuen ordezkariak, baldin haien eginkizunak interesgarriak badira puntu hori tratatzeko.

7.– Zuzendaritza Kontseiluko kideen artetik aukeratuko da institutuko lehendakariordea, eta berak bakarrik ordeztuko ahalko du lehendakaria haren eginkizunetan, aldi bateko absentsiarik izanez gero.

8.– Zuzendaritza Kontseiluko idazkari izateko eginkizuna kontseiluari atxikita dagoen eta funtzionario-harremana duen pertsona bati izendatuko zaio. Idazkariari dagokio deialdiak egitea, lehendakariaren aginduz; bilkuren aktak egitea; hartutako erabakien ziurtagiriak ematea, lehendakariaren oniritziarekin; organoaren dokumentuak jagotea, eta institutuaren organoei lege-gaietan aholku ematea. Idazkari-eginkizunerako nahi-koa bitarteko jarriko da, adierazi diren zereginak bete ahal izan daitezten.

## **9. artikulua.**– Zuzendaritza Kontseiluaren eginkizunak.

1.– Zuzendaritza Kontseilua da institutuaren jardueraren antolaketa orokorra finkatzen duen organoa, haren lehentasunak onetsiz eta izendatuta dauzkan eginkizunak betetzeko hobekuntza-proiektuak onetsiz; berari dagokio haren jarduera planifikatu aurretik informazioa jasotzea, eta izendatu zaizkion helburuak lortzeko behar diren baliabideak zenbatestea.

2.– Bere eginkizunak betetz, Zuzendaritza Kontseiluak urtero onesten ditu institutuaren aurrekontuen aurre-proiektua, ekitaldi bakoitzeko jardueraren plangintza eta bere jardunaren ildo eta jarraibide orokorrak.

3.– Bereziki, Zuzendaritza Kontseiluari dagokio:

- a) Aldez aurretik informazioa jasotzea institutuak aurrera eramane beharreko programa eta jardueren diseinuari buruz, horiek ekitaldiko jardueraren plangintzan sartuta ez daudenean.
- b) Baimena ematea protokoloak, kooperazio-hitzarmenak eta lankidetzarako akordioak sinatzeko instituzioekin, administrazioekin eta izaera publiko edo pribatuko entitateekin.
- c) Onestea administrazio publikoen eskariz egiten diren txostenak.
- d) Txostena egitea, nahitaez, institutuaren estatutuen proiektuari buruz.

## **10. artikulua.**– Zuzendaritza Kontseiluko kideak.

Lehendakariari izendatutako eginkizunak gorabehera, Zuzendaritza Kontseiluko gainerako kideen eginkizunak organo kolegiatu baten parte direnek berez dituztenak dira, eta, bereziki, lehendakariari proposatzea gai-zerrendan sartzeko puntuak, bilkuretara joatea eta eztabaidetan parte hartzea, kontseiluari aurkeztea egoki irizitako proposamenak, kontseiluaren ezohiko bilkurara deitzeko ekimena baliatzea hala irizten diotenean zortzi kontseilukideek gutxienez, botoa ematea eta hura azaltzea, eta idatziz boto partikularrak aurkeztea edo emandako botoa azaltzea hartzen diren erabakiei buruz.

## **11. artikulua.**– Zuzendaritza Kontseiluaren bilkuren deialdia eta bilakaera.

1.– Zuzendaritza Kontseiluak gutxienez hiru hilean behin egingo du ohiko bilkura, baita lehendakariak hartara deitzen duen guztietan ere. Ustekabeko eta urgentziatzko egoeretan, ezohiko bilkuretara deitu ahalko da.

2.– Zuzendaritza Kontseiluaren bilkuretarako deialdia gutxienez hamar egun baliodun lehenago jakinarazi beharko zaie kontseilukideei ohiko bilkuren kasuan, eta hiru egun baliodun lehenago ezohiko kasuan, jakinarazpenari erantsita bilkurako gaiak tratatu eta erabakitze beharrezkoa den dokumentazioa.

3.– Zuzendaritza Kontseiluaren bilkura baten eraketa baliozkoa izan dadin, lehen deialdian beharrezkoa izango da kontseilukideen gehiengo osoa bilkuran egotea; eraketa bigarren deialdian baliozkoa izateko, gutxienez zortzi kidek egon beharko dute bilkuran.

---

4.– Erabakiak bilkuran dauden kideen gehiengo soilez hartuko dira eta aurretik gai-zerrendan sartutako puntuei buruzkoak izango dira, bilkuran dauden guztiek urgentetzat jotzen dituzten kasuetan izan ezik.

## **12. artikulua.– Institutuko Zuzendaritza.**

1.– Institutuko zuzendaria Administrazioari goi-karguduntzat hartuko da, eta haren izendapena, kargugabetzea, zerbitzu-harremana eta araubide juridiko aplikagarria Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 29. artikuluan ezarritakoaren arabera izango dira, eta Administrazioarekin zerbitzu-harreman hori duenari aplikagarri zaion gainerako araudiaren arabera.

2.– Institutuko zuzendariari ondoko eginkizunak betetzea eta gauzatzea dagokio:

- a) Institutuaren jardura zuzentzea.
- b) Urtero institutuaren hurrengo ekitaldiko jardueraren argitalpena prestatzea eta Zuzendaritza Kontseiluari proposatzea urteko azken bilkuran.
- c) Institutuaren aurrekontuen aurreproiektua egitea eta Zuzendaritza Kontseiluari proposatzea.
- d) Institutuaren proiektu eta jarduketak lantzea, haiei buruzko informazioa edo erabaki-proposamena aurkeztea Zuzendaritza Kontseiluari, baldin hark alde aurretik ezagutu edo ontzat eman beharrezkoak badira lege honen 10. artikuluen arabera.
- e) Zuzendaritza Kontseiluak hartutako erabakiak gauzatzea eta betetzea, hartarako beharrezkoak diren ebazpen edo egintza administratibo bidez.
- f) Institutuaren zerbitzuen zuzendaritza eta ikuskerak, eta haren langilearen antolaketa, kontrol eta zuzendaritza, langileak motibatuta egon daitezkeen eta institutuaren helburuetan parte har dezaten saiatuz.
- g) Institutuaren gastu eta ordainketak agintzea. Antolakuntza eta Jardura Araudiak lehendakariarentzat edo Zuzendaritza Kontseiluentzat gorde ahalko du gastu eta ordainketak agintzeko eginkizuna, zehazten dituen zenbateko batzuetatik gora.
- h) Institutuaren helburuak lortzeko beharrezkoa den beste edozein eginkizun, baldin beste organo bati espresuki esleituta ez badago, eta orobat lehendakariak edo Zuzendaritza Kontseiluak espresuki agintzen dizkion egintza zehatzen gauzatze materiala.

## **13. artikulua.– Egitura organikoa.**

1.– Institutuaren Antolakuntza eta Jardura Araudiak, zeina Jaurlaritzaren dekretu bidez onetsiko baita, lege honetan institutuaren antolaketa, egitura eta funtzionamenduari dagokion guztiaz aurreikusten dena gartuko du, honako muga hauekin:

- a) Zuzendari-albokoaren kargua sortzea arautuko du, institutuari izendatutako eginkizunetakoren baten garapen tekniko eta espezializaturako eskudantziak dituela kargudun horrek.
- b) Institutuko zuzendariari eta zuzendari-albokoari dagozkien izendapenak bakarrik hartu ahalko dira goi-kargudunen izendapentzat.
- c) Ebazpenak eta egintza administratiboak institutuko lehendakariak eta zuzendariak eman ditzakete bakarrik.

2.– Institutuaren antolakuntzak kontuan hartuko du tratamendu espezializatu eta bereizia izan beharko duela ondoko gaiekin zerikusia duten eginkizunek:

- a) Institutuaren kudeaketa administratiboa, ekonomikoa eta giza baliabideena.
- b) Kontserbazio, dokumentazio, ikerketa eta heziketaren arloko eduki tekniko bereziko eginkizunak.

- c) Helburutzat oroitzapena duten eginkizunak, eta, memoriari eta bizikidetzari dagokienez, haien sendotzea, herritarren parte-hartzea eta zabalkundea bilatzen dituztenak.

### III. KAPITULUA

## Langileak eta baliabide ekonomikoak

---

#### 14. artikulua.– Institutuko langileak.

- 1.– Erakunde autonomoko langileen araubidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko langileen araudia izango da.
- 2.– Sartzeko prozedura Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako langile publikoei ezartzen zaien bera izango da, eta publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak bermatuko ditu.
- 3.– Institutuko lanpostuak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileek beteko dituzte, lanpostu bakoitzari izendatzen zaizkien eginkizunen izaeraren arabera.

#### 15. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Institutuak ondoko baliabide ekonomikoak izango ditu bere helburuak betetzeko:

- a) Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan urtero egindako diru-izendapenak.
- b) Tasak, prezio publikoak eta ondasun eta eskubideetatik datozen era guztietako produktu eta errenetak eta beraren jardueraren ondoriozko diru-sarrera arruntak eta ezohikoak, barruan sartzen direlarik institutuaren aurrekontuen gain emandako diru-laguntzen onuradunek betebeharrak ez betetzeagatik izapidetutako itzulketa-prozedurei dagozkien izaera publikoko diru-sarrerak.
- c) Harentzat emaniko diru-laguntza, ekarpen eta dohaintzak.
- d) Esleitu lekiokkeen beste edozein baliabide.

### IV. KAPITULUA

## Araubide juridikoa eta kontrola

---

#### 16. artikulua.– Araubide juridikoa.

- 1.– Erakundearen erregimen juridikoa izango da Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren III tituluko II kapituluan ezarritakoa.
- 2.– Institutuaren organoen egintza eta ebazpenen aurka Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako errekurtso administratiboak jarri ahalko dira.
- 3.– Institutuko lehendakariaren egintza eta ebazpenekin amaituko da administrazio-bidea.
- 4.– Institutuko lehendakariari dagokio haren organoen egintzak bere kabuz berrikustea. Lehendakariari dagokio, halaber, gai zibiletan eta lanekoetan aurretiko erreklamazioak ebaztea, eta Antolakuntza eta Jarduera Araudian aurreikusi ahalko da eginkizun hori institutuko zuzendariari esleitzea espresuki.

---

## **17. artikulua.**– Aurrekontua eta kontabilitate-araubidea.

1.– Aurrekontu-araubidea, ekonomiko-finantzarioa, kontrol ekonomikoa, kontabilitatekoa, eta orokorrean, Euskal Herriko Ogasun Orokorrarenak diren arloei dagokiena, izango da erakunde autonomoentzako ezarriko dena.

2.– Bereziki, institutuaren ondareari eta kontratazioari dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko ondareari buruz indarrean dagoen legedia eta administrazio publikoen kontratueterako arau orokorrak bete beharko dira.

3.– Institutuak bere aurrekontuen aurreproiektua egin eta onartuko du urtero, Administrazio orokorreko organo arduradunek aurrekontu arloan emandako arau eta jarraibideekin bat etorrira, eta dagokion sailari bidaliko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren proiektuan sar dezan.

## **18. artikulua.**– Legebiltzarraren kontrola.

Institutuko zuzendariak agerraldia egingo du Eusko Legebiltzarreko dagokion batzordean, gutxienez urte bakoitzaren hasieran, erakundearen aurreko ekitaldiko jardueraren betetze-mailari buruz informatzeko eta hurrengo urteari dagokion plangintza azaltzeko.

## LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

### **Jardueren hasiera.**

---

1.– Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak bere jardueri ekingo die, atxikita dagoen Administrazio orokorreko sailaren organo goren titularraren agindu bidez, lege hau indarrean sartzen denetik sei hilabeteko epean gehienez ere.

2.– Institutuak bere jardueri ekiten dien ekitaldi ekonomikorako aurrekontua Jaurlaritzak onetsiko du, beharrezkoak diren egokitzapen eta aldaketak egin ondoren, eta horren berri emango dio Eusko Legebiltzarreko dagokion batzordeari.

3.– Institutuaren giza baliabideen hasierako kopuruak beraren jardueri ekiteko bidea bermatuko du, izendatu zaizkion eginkizunek berezkoak dituzten eskakizun teknikoaren arabera.

## BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

### **Gastuak.**

---

Zuzendaritza Kontseiluko kideek eskubidea izango dute beren eginkizunak betetzen jardutearen ondorioz benetan egindako gastuen ordaina bakarrik jasotzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan aplikatzekoa den arauaren arabera.

## HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

### **Beste entitate batzuetako ordezkariak.**

---

1.– Harreman eta koordinazio instituzionala bermatzeko, Eusko Jaurlaritzaren edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ordezkariak egon behar duenean Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren xede sozial bera edo haren osagarria duten instituzio, erakunde edo entitateetan, ordezkariak lege honen 8.1.a artikuluan aurreikusi diren Zuzendaritza Kontseiluko kideen artean hautatuko dira, eta ordezkarien artean egongo da zuzendaria ere.

---



2.– Bereziki, aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da Terrorismoaren Biktimen Aitorpenerako eta Babes Integralerako irailaren 22ko 29/2011 Legearen 57. artikuluan arautzen den zentroa garatzearen ondorioz Eusko Jaurlaritzaren edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ordezkariak osatu ko duten pertsonak hautatu behar direnean.

## AZKEN XEDAPENA

### **Indarrean sartzea.**

---

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeit hamar egunera sartuko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei..

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 28a.

Lehendakaria,

**Iñigo Urkullu Renteria**



---

# 4. dokumentua

---

2015-2016 aldirako Gogora  
Institutuaren **Jarduera programa**

---



# 2015-2016

## aldirako Jarduera programa

Memoriaren,  
Bizikidetzaren eta  
Giza Eskubideen  
Institutua

*Gogora*


Instituto de la Memoria,  
la Convivencia  
y los Derechos Humanos

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Gogorako Zuzendaritza  
2015eko urriaren 19a



Eusko Legebiltzarrak 2014ko azaroaren 27an onartutako 4/2014 Legearen bidez, Memoria-  
ren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Insti-  
tutua sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko  
Administrazio instituzionaleko izaera adminis-  
tratiboko organismo autonomo gisa.

Legean bertan xedatutakoaren arabera, haxe du helburu nagusitzat: «parte hartzea diseinatzen, sustatzen, garatzen eta gauza-  
tzen euskal gizartearen askatasunaren alde-  
ko borrokaren, giza eskubideen bermearen  
eta bizikidetzaren demokratikoaren oroimenean  
funtsezkoak diren balio etikoei eta printzi-  
pio demokratikoei buruzko politika publi-  
koa». Memoriaren arloko orientazio hori oi-  
narri hartuta, honelako eginkizunak gauzatu  
beharko ditu: *oroitzapena, kontserbazioa, iker-  
keta, prestakuntza, parte-hartzea eta zabalpe-  
na, integrazioa eta kontsulta*.

Aipatutako Legeak ezarritako epeak bete-  
ta, ekainaren 25eko EHAAk Lehendakariaren  
16/2015 Dekretua, ekainaren 17koa, argita-  
ratu zuen. Dekretu horrek 2015eko uztaila-  
ren 1a finkatu zuen Institutuaren jarduerari  
ekiteko data. 112/2015 Dekretuak, ekainaren  
23koak, erakunde autonomoaren 2015era-  
ko gastu-aurrekontua (550.000 euro) onartu  
zuen, eta bertan lanean sei funtzionario ari-  
tzea baimendu zuen. Gobernu Kontseiluak,  
ekainaren 23ko saioan, Institutuaren zuzen-  
daria izendatzeko dekretua ere onartu zuen.

Ekainean bertan, halaber, Institutuaren egoitzaren kokalekua ezagutarazi zuten. Euskadiko Artxibo Historikoa hartzen duen eraikineko hirugarren solairuan egongo da, hain zuzen, Bilboko Maria Diaz Haroko kaleko 3 zenbakian. Garai berean Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren logotipoa ere aurkeztu zuten; Gogora hitza oinarri hartuta osatuta dago.

Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluaren eraketa atzeratu beharra egon da maiatzaren 24ko udal- eta foru-hauteskundeak zirela eta, organo horretako foru-aldundien eta Eudelen ordezkariak ezin izan baitituzte iraila arte behin betiko izendatu.

Horiek horrela, Gogora Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluaren lehen bilera egin da. Kontseiluak, lehen urrats modura, Institutuaren Estatutuak onartu behar ditu. Horrekin batera, Zuzendaritzak datozen urteetarako lehen jarduera-programa aurkeztu behar dio organo horri. Hain zuzen, konpromiso horri erantzutea da dokumentu honen helburua, eta, logikoa denez, proposamena da.

Legegintzaldi baten amaierak eta beste baten hasierak baldintzatuta dago haren edukia. Horregatik, Gogora Institutuaren lana, etorkizunari begira, bi fasetan planteatu behar dugu: lehenengoa, proiektua sendotzeko, 2015eko amaiera eta 2016a hartzen ditu barnean, eta bigarrena, zabaltzeko, 2016-2020ko legegintzaldirako aurreikusita.

Lehen ekintza-programa horretan, orobat, krisialdiak ere badu eraginik; izan ere, baliabideak mugatuta daude, eta lan bera edo gehiago baliabide urriagorekin egin behar da, sormen eta konpromisoan are gehiago inbertituz, besteak beste. Egoera hori ikusita, aurrera egin ahal izateko, lehenik aurreko urratsa sendotu beharra dago, aurrerapausoak horrela baino ez baitira bideragarri eta egingarriak izango.

Azkenik, sortzeko oinarri hartutako printzipioak zaintzea da garrantzitsuenaren Institutu honentzat, bai eta jada lortutako adostasunak eta lortu ahal eta behar dituenak lantzea ere. Muga eta aukera horiekin sortu da Gogora Institutua. Gako horietan oinarritu gara lehen jarduera-programa prestatzeko.





# 1. Esparru orokorra

4/2014 Legeak, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzekoak, eta Gogora Institutuaren estatutuek argi eta garbi zehaztu dute jarduteko esparru orokorra. Jarduera-planak garatu beharreko esparrua mugatzen du bi horien edukiak, beraz. Hori abiapuntu hartuta, puntu honetan Gogoraren proiektuaren «oinarriak» eta «gakoak» nabarmentzen dira.

## 1.1. Oinarriak

### 1.1.1. Abiapuntua eta printzipioak

Gogora sortzeko Legearen zioen azalpenak abiapuntua definitzen du, eta egiaztapen enpirikoa esplizitatzen du horrek:

*·Ez dago bi memoria berdin-berdinak. Memoria publikoa, beraz, eraikitze gatatzatsa, dinamiko eta poliedrikoa da.*

Oinarri horren gainean, dio legeak, *Memoriaren politika publiko batek bi printzipio handi konbinatu behar ditu, batera ekarri:*

*·Erantzukizun etiko eta politikoa bereganatu behar du: oroitzea, oroitzapena egitea, elkarbanatzea eta transmititzea memoria demokratiko bat.*

*·Parte-hartzea eta pluralismoaren adierazpena bideratu behar ditu memoria eratzean.*

### 1.1.2. Gogora Institutuaren xedea eta helburu orokorrak eta berariazkoak

Legeak hitzez hitz dioenari jarraiki, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren eginkizun nagusiak:

*·Erreskatatu, nabarmendu, oroitu eta transmititu behar ditu indarkeriazko gertakari larrien erdian duintasuna, berdintasuna, askatasuna eta abar defendatzeko borrokatu ziren balio eta ahalegin demokratikoak.*

Helburu orokorrei dagokienez, legearen zioen azalpenak lehen helburuaz eta azken helburuaz hitz egiten du:

*·Lehen helburua da herritarren arteko elkarrizketa sortzaile bat bideratzea, sustatzea eta adieraztea, iraganeko esperientzia sozial eta politikoki traumatikoetan elkarrekin bizi diren memorien arteko elkarrizketa bat.*

*·Azken helburua da laguntzea agora bat eraikitzen, dinamikoa eta emankorra, plaza publiko bat, balioen topagune sozial bat, berdintasun maila handiagoak lortzeko. Askatasuna eta demokrazia.*

Artikuluetan, legeak berariazko lau helburu ezartzen ditu, eta honela adierazten ditu:

*·Ekarpen kualitatiboa egitea diseinatzen, sustatzen, garatzen eta gauzatzen euskal gizartearen askatasunaren aldeko borrokaren, giza eskubideen bermearen eta bizikidetzaren demokratikoaren oroimenean funtsezkoak diren balio etikoei eta printzipio demokratikoei buruzko politika publikoa.*

*·Gure herriak askatasuna eta demokraziaren garapena defendatzen hainbat hamarkadatan mantendu duen prozesua gogoan, sustatzea etengabeko oroitzapena egin dadin herritarrek prozesu hura ezagutzea, ulertzea eta kontzientzia hartzea bermatzen duten balio politiko eta sozialez.*

*·Gordetzea, garatzea eta zabaltzea memoriak eragin duen ondare kolektiboa, bizikidetzaren demokratikoaren oinarri diren balioen eta printzipioen defentsarena, biktimen lekukotasunean alderdi ordezkazekin bat duena.*

*·Institutuak bultzatu egingo du giza eskubideak eta bakearen balioak zabaldu, sustatu eta defendatzeko lana.*

### **1.1.3. Eginkizunak eta zerbitzuak**

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren lehen jarduera-proiektu hau egituratzeko orduan, hiru erreferentzia eduki behar ditugu gogoan. Lehen biak legearen testuan jasota daude, eta hirugarrena Gogora Institutuaren Estatutuetan.

#### **A) Eginkizun nagusiak**

*·Institutuaren eginkizun nagusia da gestionatzea egiari eta justiziarri buruzko memoriaren balio demokratiko eta etikoak gordetzeko, ikertzeko, ezagutzera emateko eta haietan hezteko lana, baita bultzatzea eta bermatzea herritarrek ondare horren mantentze-lanetan parte har dezaten ere.*

*·Autonomia Erkidegoko sektore publikoan dauden organo, zerbitzu edo entitateen jarduna koordinatzea, definitu den politika publikoarekin zerikusia duen bezainbatean, eta kooperazioa eta lankidetzaren bultzatzea beste edozein administrazio edo instituzio publikoekin.*

*·Institutuak arreta berezia jarriko du bere eginkizunak betetzerakoan instituzio publikoekin eta izaera pribatuko entitateekin eta haren eginkizunetan interesa duten elkarteekin lankidetzan jarduteko, gizartearekin ahalik harreman handiena izateko bidea bermatuz.*

#### **B) Berariazko eginkizunak**

*·Gogora Institutuak, gainera, berariazko eginkizun hauek ere garatu beharko ditu: oroitzapena, kontserbazioa, ikerketa, prestakuntza, parte-hartze eta zabalpena, eta integrazioa eta kontsulta.*

#### **C) Zerbitzuak**

Gogora Institutuaren barneko antolamendua, aipatutako helburu eta eginkizunak betetzeko, hiru zerbitzu hauen inguruan egituraturik dago: *kudeaketa, ikerketa eta zabalpena.*

### **1.1.4. Legeak ezarritako bestelako argibideak**

Legearen zioen azalpenak kontuan hartu beharreko hainbat alderdi nabarmentzen ditu, balio kualitatibo handiko orientazio-argibideak baitira.

*·Memoriaren eskubidea gizarte osoari dagokio, herritarrek dira-eta historiaren, oroipenaren eta memoriaren gordetzailerik eta oinordeko naturalak. Ahazteak ezinezko egiten du errekonozimendua, iraganaren bertsio bat inposatzen du eta hutsune etiko bat sortzen du. Haren aurrean, herritarrek memoria demokratikoaren ezagutza historiko ez-neutral bat izateak bidea ematen du irizpide propioak lortzeko eta, gainera, libreago egiten ditu herritarrek.*

*·Horiek horrela, memoriaren eta bizikidetzaren politika publikoa ez da biktimei begira bakarrik egiten, herritar guztiei begira baizik, haien erantzukizuna eskatzen baitu. Horrela egiten ez*

*bada, biktimak bakarrik gelditzen dira haien oroitzean eta biktima izan ez direnak memoria kolektibotik kanpo geratzen dira. Memoriaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen institutu batek deuseztatu behar du biktimen eta herritarren arteko banaketa hori. Banaketa horrek egoera horretan ixten du biktima, betiko itxi ere, eta ikusle hutsa bihurtzen du herritarra. Memoriaren zentro batek ibilbide etiko bat iradoki behar du, herritarrek parte hartzeko ibilbide bat.*

*·Memoriak gordetzen duen ondare demokratikoak oinarri izan behar du, gizartearen bizikidetzaren demokratikoarena; salaketa izan behar du, sufrimendu bidegabearen erantzuleena, eta bultzatzaile izan behar du, balio etiko eta printzipio demokratikoena.*

*·Memoriaren gestioa ezin da mugatu, bestalde, oroigarri, plaka, eskultura edo mural bat ipintzera edo data bat ezartzera. Oroitzeak ikusgaiak beharko ditu, bai, baina gogoeta bat gehitu beharko da memoriaren sorreraren, iraunkortasunaren eta indarraldiaren dinamismoaz. Hori da Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren desafio handienetako bat.*

*·Aldarrikapen unibertuala inspiratu zuten giza eskubideen eta balioen sustapena eta defentsa tresna baliotsuenetako bat izango da Euskadin bizi izandako indarkeria traumatikoko esperientziak berriz gertatuko ez direlako bermea lortzeko..*

## **1.2. Balio erantsiko gakoak**

Zailtasunei egoki aurre egin nahi badiegu, ezagutu behar ditugu aurretik. Horregatik, gure herrialdearen testuinguru zehatzean memoriaren politika publiko batek aurre egin beharko dien zailtasunak lehen momentu honetatik bertatik identifikatzea komeni da. Zentzu horretan, bi arazo-gune handi ikus ditzakegu: batetik, iraganaren irakurketari dagokionez dauden desadostasunak; eta bestetik, memoriaren politika publikoak proiektatzean sentsibilitate politiko ezberdinak egotea.

Baina arazoa dagoen tokian aukera ere aurki dezakegu. Konplexutasun horri heltzeko irizpideak azaltzea lagungarria izan daiteke, orobat, adostasuna oinarri duten memoriaren politika publikoak bultzatzeko akordioa errazteko, betiere ikuspegi integratzaile eta inklusibo batez. Hurrengo bi atalotan zailtasun horiek Gogora Institutuaren etorkizunerako balio erantsi gisa kokatzen saiatu gara.

### **1.2.1. Lehendabiziko gakoa**

Iraganaren kudeaketa bizikidetzaren berreraikitze prozesu baten zatirik konplexuena da. Memoria iraganaren kudeaketaren funtsezko zatia da. Iraganean aurkituko dugu erruaren eta erantzukizunaren diagnostikoa, jasandako mina eta sufrimendua eta, horrekin batera, gertatutakoaren kausen eta jatorriaren gaineko irakurketa ezberdinak. Konplexutasun hori onartu beharra dago, eta berdin ere onartu behar dugu ezinezkoa dela iraganaren interpretazioari buruzko erabateko akordioa lortzea. Hala eta guztiz ere, adostasun-aukera posible izateko minimo batzuk finka daitezke.

Legearen testuak honela dio memoriaz: «Gogoeta kritiko bat elkarbanatzeko borondateari erantzuten dio, giza eskubideen urraketa iraunkor eta sozialki traumatikoa ekarri zuten gure historia berriko gertaerei buruzko gogoeta kritiko bat». Horrenbestez, pluralean aipatzen du gure historia traumatikoa. «Gertaerez» hitz egiten du. Jarraian, esplizitu egiten ditu: «Azkeneko ehun urtean, euskal gizarteak gutxienez indarkeriak markatutako lau esperientzia traumatiko sufritu ditu: Gerra Zibila, diktadura frankista, ETaren terrorismoa eta legez kontrako antiterrorismoak».

Lerrokada horietan dago ziur aski Gogora Institutuak aurre egin behar dion gairik konplexuena. Agian horregatik ere bertan dago haren aukera nagusia. Institutuak gertaera traumatiko ezberdinen memoria kudeatu behar du; irakurketa dibergenteak dituzte horiek, eta giza baliabideak eta, zehazki, bizitzeko eskubidea urratzeko balantze dramatikoak dute lotura komun modura.

Legearen testuak haxe ere gehitzen du: «Ezberdinak izanik ere, badute laurek lotura komun bat: bidegabeki jasandako sufrimendua, eta egoera okerrenetan ere bizikidetzaren demokratikoa eta giza eskubideen defentsan, bakean eta askatasunean oinarritutako gizarte bat eraiki eta defendatzeko ahalegina».

Gure testuinguru soziopolitikoan, konfiantzarik ezeko bi gune sortzen eta kontrajartzen ditu gertaera traumatiko horien kudeaketak: batetik, indarkeriazko gertakari batzuk beste batzuk orekatzeko, justifikatzeko, diluitzeko edo minimizatzeko beldurra; eta bestetik, indarkeriazko gertakarien arteko ezberdintasunak biktimen edo memorien artean bereizteko erabiltzeko beldurra. Gogora Institutuaren etorkizuneko gakoa gorpil zoro hori bertutezko gorpil bihurtzea da.

Legearen testuak berak konplexutasun horri heltzeko kontzeptu etikoen esparru bat eskaintzen du: «Euskadin jasandako sufrimendu bidegabearen memoria gordetzea da egin daitekeen zerbitzurik onena etorkizunean bizikidetzaren duinago, justuago eta libreago bat izan dadin, baldin memoria hori (1) era barneratzailean eta (2) kausen berezitasuna haiek beren artean parekatu gabe mantenduz gordetzen bada; zerbitzurik onena (3) irizpide kritikoz eratutako gizarte batentzat, gizarte sendoa batentzat gerraren, totalitarismoaren, terrorismoaren eta edozein indarkeriaren edo giza eskubideen urraketaren mehatxuaren aurrean».

Legearen testuak ematen duen berariazko orientazio horri esker irizpide zuzentzailea adieraz dezakegu, hiru jarraibide nagusi barne hartzen dituena:

·Memoriaren politika publikoa (1) bizikidetzaren demokratikoa eta inklusibora orientatzea, (2) indarkeriazko forma ezberdinen arteko era guztietako parekatze konpentsagarriak baztertuta, eta, (3) bereizkeria edo hutsunerik gabe, horietako bakoitzari buruzko gogoeta kritikoa eta autonomo bat sustatuta.

Azken batean, horixe izango da balio erantsiko lehen gakoa, bai eta Gogora Institutuaren lehen jardueraren planarekin batera joango den lehen irizpide zuzentzailea ere.

### 1.2.2. Bigarren gakoa

Gogora Institutuak aurre egin beharreko bigarren arazoa aniztasunaren kudeaketa da. Aniztasuna konplexutasuna eta aukera da. Pluralismoa da aniztasunaren konplexutasunari heltzeko aukera. Pluralismo demokratikoarekiko konpromisoa da balio erantsiko gakoa. Legearen testuak ikuspegi hori biltzen du memorien aniztasuna, haien gatazkakortasuna eta pluralismoaren aldeko apustua espresuki onartzen baititu:

«Memoriak ahalbidetzen digu gertatutakoaren oroipena presente izatea. Memoria gertaera objektiboen erreferentzian oinarritzen da, oroitzen denaren parte diren gertaera objektiboetan, baina modu subjektiboan eratzen da pertsona bakoitzarengan. Ez dago bi memoria berdinez. Memoria publikoa, beraz, eraikitze gatazkatsua, dinamiko eta polidrikoa da». Horregatik, legearen testuak honela dio: «parte-hartzea eta pluralismoaren adierazpena bideratu behar ditu memoria eratzean».

Jarraian, legearen zioen azalpenak pluralismo demokratiko baten jokalekua etikoki mugatzen du: «Memoriaren arteko elkarrizketa aske eta plural honen kudeaketak muga bakarra du:

babestu behar ditu gutxieneko demokratiko batzuk. Urraketa-kategoria berdinen biktimek duten eskubide-berdintasunaren printzipioa aintzat hartuz, memoria ezin da erabili gertakariak baztertzeko eta erkatzeko. Ezta terrorismo, indarkeria edo giza eskubideen urraketa ezein adierazpide legitimatuko lukeen historia bat berridazteko ere. Alderantziz, urraketa haien salaketarik sendoena da, giza duintasunaren goreneko baliori begira egiten baita, egia eta justizia helburu, baita balio horren ondorio diren eskubideei eta askatasunei begira ere».

Azkenik, zera ere gehitzen du: «Eusko Legebiltzarrean lortu berri diren zenbait adostasun garrantzitsurekin bat etorrira, memoriaren eta bizikidetzaren politika publikoak oinarrian izan behar du 'biolentziaren bidegabekeriaren aitortzea, sortutako minaren eta biktimen duintasunaren aitortzea, biktima guztiek egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea dutelarik'».

Nabarmendutako alderdi horiek oinarri hartuta, balio erantsiko bigarren gako bat adieraz dezakegu Gogora Institututik egin beharreko aniztasunaren kudeaketaren inguruan:

- Memoriaren politika publikoarentzat iraganaren oroitzapenari eragiten dion memoria-ondare baliotsua da aniztasuna; halaber, orainean zein etorkizunean pluralismoa errespetatzeko konpromiso pedagogikoaren oinarria ere bada, eta gerra, totalitarismoa, terrorismoa eta indarkeria eta giza eskubideen urraketa oro baztertzen du.

## 2. Jarduera-esparruaren egitura

Jarduera-esparrua osatzen duten proiektuen egitura bi faktorek mugatuta dago: atzera begirakoa eta perspektiba. Lehenak bi aldi historiko handi ezartzen ditu proiektuen kokapen kronologikoari dagokionez. Bigarrenak Gogora Institutuaren jardueraren etorkizuneko proiektzioa bi fasetan finkatzen du: sendotzea eta zabalpena.

### 2.1. Atzera begirakoa

Hiru motakoak izango dira Gogora Institutuak bultzatzen eta garatzen dituen proiektuak: «Memoria Historikoa»ri lotutako aldian kronologikoki kokatutako proiektuak, «Oraintsuko Memoria»ri lotutako proiektuak, eta bi horien zeharkako proiektuak.

#### 2.1.1. Memoria Historikoa (1936-1975)

Memoria Historikoa lotutako denbora 1936 eta 1975 artekoa da; horren barnean sartzen da Gerra Zibilari eta Diktadura Frankistari lotutako memoria. Horrela bada, abenduaren 26ko 52/2007 Legeak, Memoria Historikoaren Legea izenez ezagutzen denak, barne hartutako aldiarekin bat dator.

#### 2.1.2. Oraintsuko Memoria (1960-2015)

Terrorismoaren biktimen legeek ezartzen duten denbora-esparru berean kokaturik dago Oraintsuko Memoria. ETaren adar ezberdinen terrorismoak eta legez kanpoko terrorismoaren aurkako bestelako kapituluak zein motibazio politikoko testuinguruan eragindako giza eskubideen urraketa indarrean egondako denbora historikoak mugatzen du aipatutako esparrua.

### 2.2. Perspektiba, etorkizuneko proiektzioa bi fasetan

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak lehen jarduera-programa onartu behar du 2015eko urrian. Batetik, erakunde berri baten eraikuntzari heldu behar dio,

eta horrek mailakako proiektu batekin lan egitera behartzen du. Bestetik, legegintzaldiaren azken urtean dago aipatutako programa. Horiek horrela, Gogora Institutuaren jardunaren proiektzioa bi denbora-fasetan diseinatu beharra dago: sendotzeko fase bat (2015-2016), eta zabaltzeko bigarren bat (2017-2020).

### 2.2.1. Sendotzeko fasea (2015-2016)

Lehen fase honek 2015aren amaiera eta 2016 hartzen ditu barnean. Gogora Institutuaren proiektua, lantaldea zein kudeaketa-, ikerketa- eta zabalpen-zerbitzuak sendotzea du helburutzat. Fase honetan garatu beharreko proiektuen eskema hurrengo taulan jasota dago. (Proiektu bakoitzaren ildo orokorrak 3. puntuan daude)

## 2015-2016 aldiko jarduera-proiektuen laburpen-koadroa

	A. Zeharkako proiektuak	B. Memoria Historikoari buruzko proiektuak (1936-1975)	C. Oraintsuko Memoriari buruzko proiektuak (1960-2011)
<b>1. Kudeaketa</b>	A.1.1. 2017-2020 aldirako Plan Estrategikoaren proposamena prestatzea. A.1.2. Memoriaren arloko bestelako erakundeekin lankidetzaz hitzarmenak prestatzea.	B.1.1. Ikur frankistak kentzea. B.1.2. Identifikatu gabeko desagerrarazitakoen gorpuzkien Kolunbarioa abian jartzea.	C.1.1. Udal Memoriak. Udal-mailako eremuan memoriari buruzko politika bultzatzea. C.1.2. «Gurean» web-espazioa prestatzea biktimen memorian.
<b>2. Ikerketa</b>	A.2.1. Iragana argitzeko txostenen eta azterlanen programa definitzea. A.2.2. Dokumentazio-zentroaren eta liburutegiaren diseinua eta lehen urratsak.	B.2.1. Frankismo garaiko (1936/75) giza eskubideen urratzei buruzko oinarri-txostena egiteko batzordea sortzea. B.2.2. Lekukotasunak, artxiboak eta datu-baseak antolatzea.	C.2.1. Biktimen lekukotasunak grabatzeko Gertu Programa zabaltzea. C.2.2. Biktimen, gizartearen, memoriaren eta bizikidetzaren arteko bat-egiteari buruzko elkarrizketa-espazioak garatzea.
<b>3. Zabalkundea</b>	A.3.1 Memoriaren Plaza deritzon herritarren parte-hartze-ko ekimena diseinatzea eta modu ibiltarian garatzea. A.3.2. Beken, hitzarmenen eta bestelako lankidetzaren programa definitzea.	B.3.1. Frankismoaren biktimen omenezko eta aitormenezko ekitaldiak sustatu eta koordinatzea. B.3.2. Oroitzapen-guneen identifikazioa eta interpretazioa kudeatzea.	C.3.1. Biktimen lekukotasunak biltzen dituen Gertu ikus-entzunezkoa herritarren esku jartzea. C.3.2. Oraintsuko Memoriaren gogoeta kritikoari buruzko hezkuntza-proposamena egitea.

### 2.2.2. Zabaltzeko fasea (2017-2020)

Bigarren fase hau 2017-2020 aldirako aurreikusita dago. Institutua zabaltzeko programari ekitea du helburutzat. Plan estrategikoaren barruan onartutako kudeaketa-, zabalpen- eta ikerketa-estrategiak garatzea izango da fase honetako jardueraren ardatz nagusia. Proiektu horien zirriborria baino ez dugu jasoko dokumentu honetan.

## 2017-2020 aldirako proiektuen eta helburuen zirriborria

Proiektuen esparrua	Helburu orokorrak
<b>Proiektu orokorrak</b>	Gogora Institutuaren 2017-2020ko Plan Estrategikoa onartzea. Urteko jarduera-planak onartzea.
<b>Kudeaketaren arloari lotutako proiektuak</b>	Onartutako kudeaketa-estrategiaren proiektuak garatzea. Memoriaren arloko erakundeen arteko lankidetzaren eta koordinazio-proiektua garatzea.
<b>Ikerketaren arloari lotutako proiektuak</b>	Onartutako ikerketa-estrategiaren proiektuak garatzea. Gogora Institutuaren dokumentazio-zentroa eta liburutegia abian jartzea.
<b>Zabalpenaren arloari lotutako proiektuak</b>	Onartutako zabalpen-estrategiaren proiektuak garatzea. Onartutako esposizio-estrategiari lotutako proiektuak abian jartzea.

### 3. Jarduera-proiektuen deskribapena

#### A. Zeharkako proiektuak

##### A.1 Kudeaketa

Izena	Deskribapena	Egutegia
<b>A.1.1.</b> Gogora Institutuaren 2017-2020 aldirako Plan Estrategikoaren proposamena prestatzea.	Gogora Institutua zabaltzeko gaserako plan estrategikoa prestatu beharko da 2016an. Proposamen-izaera izango du, eta zabalpen-esposizio, ikerketa eta kudeaketako estrategiak edukiz hornitu beharko ditu. Datorren legegintzaldiaren hasieran onartzea aurreikusita dago.	2016ko azken hiru hileroan
<b>A.1.2.</b> Memoriaren arloko bestelako erakundeekin lankidetzaz hitzarmenak prestatzea.	Memoriaren eta giza eskubideen arloko beste erakunde batzuekin hitz egiten hasiko gara 2016an elkarlan eta lankidetzako esparruak ezartzeko. Horrela bada, gutxienez Gernikako Bakearen Museoarekin, Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroarekin eta Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearekin hasiko gara harremanetan.	2016. urtean zehar

##### A.2. Ikerketa

Izena	Deskribapena	Egutegia
<b>A.2.1.</b> Iragana argitzeko txostenen eta azterlanen programa definitzea.	Iragana argitzeari buruz ikertzeko txostenak, azterlanak edo prozesuak egin edo agintzeko programa bat zehaztuko du urtero Gogora Institutuak. Memoriaren politika publikoentzat baliagarriak izan beharko dira horiek. Aipatutako programa hori, 2017tik aurrera, plan estrategikoak zehaztutako ikerketa-ardatzen barruan sartuko da.	2016ko lehenengo hiruhilekoan
<b>A.2.2.</b> Gogora Institutuaren dokumentazio-zentroaren eta liburutegiaren proiektuaren diseinua eta lehen urratsak.	Gogora Institutuaren Dokumentazio Zentroaren eta Liburutegiaren proiektua gauzatzeko lehen urratsak emango dira 2016an. Zerbitzu publikotzat hartzen dira biak ala biak. Euskadiko Artxibo Historikoarekin sinergia bilatu beharko dute, Gogora Institutua erakunde horrekin baitago eraikin berean. Halaber, lankidetzaz eta bikoiztasunik eza ere bilatu beharko dituzte memoriaren arloko beste erakunde batzuekin.	2016ko azken hiru hileroan

##### A.3. Zabalkundea

Izena	Deskribapena	Egutegia
<b>A.3.1.</b> Memoriaren Plaza derit zon herritarren parte-hartzeko ekimena diseinatzea eta modu ibiltarian garatzea.	Gogora Institutua 2015eko azaroaren 10ean inauguratu ostean, Memoriaren Plaza herritarren parte-hartzeko ekimena modu ibiltarian nola jarraitu diseinatuko da. Era horretan, 2016an, Gogora Institutuak presentzia fisikoa izango du hainbat astez Euskadiko eskualde bakoitzean. Helburua: Gogora herritarrengana hurbiltzea.	2016. urtean zehar
<b>A.3.2.</b> Beken, hitzarmenen eta bestelako lankidetzaz hitzarmenak prestatzea.	Beken, hitzarmenen eta memoriaren politika publikoak garatzen laguntzen duten bestelako lankidetzaz hitzarmenak prestatuko dira urtero zehaztuko du Gogora Institutuak. Aipatutako programa hori, 2017tik aurrera, plan estrategikoak zehaztutako ikerketa-ardatzen barruan sartuko da.	2016ko lehenengo hiruhilekoan



## B. Memoria Historikoari buruzko proiektuak (1936-1975)

### B.1 Kudeaketa

Izena	Deskribapena	Egutegia
<b>B.1.1.</b> Ikur frankistak kentzea. (Memoria historikoaren arloko lehentasunen oinarri-programaren 9. proiektua) (MH 9. proiekt.)	Ikur frankistak kentzeko erakundeek daramaten ekimenarekin jarraitzea Eudelekin elkarlanean, eta, era horretan, parlamentuaren agindua eta nazioarteko erakundeek frankismoaren biktimenzako ordain moralari dagokionez emandako aholkuak betetzea.	2016. urtean zehar
<b>B.1.2.</b> Desagerrarazitako gorpuzkien Kolunbarioa abian jartzea. (MH 2. proiekt.)	Duintasunaren Kolunbarioaren proiektua sortzen laguntzea. Identifikatu gabeko desagerrarazitako pertsonen gorpuzkiak biltzeko espazio bat eraikitzea du helburutzat. Behar materiala ez ezik, biktimen duintasunen begiruneak eskatzen duen eginbeharra ere bada. Gaur egun proiektu hau diseinuaren fasean dago.	2016ko lehen seihilekoan

### B.2. Ikerketa

Izena	Deskribapena	Egutegia
<b>B.2.1.</b> Giza eskubideen urratzei buruzko txostena (1936-1975) egiteko batzordea sortzea. (MH prog.ren 3. proiektua)	1936-1975 arteko aldian izandako giza eskubideen urraketek buruzko txostena egiteko batzordea sortzea, betiere frankismoaren biktimen egiaren ikuspegitik. Frankismoan giza eskubideen urraketaren arloan gertatutakoa argitzeko tresnak sortzeko barneko eta nazioarteko erakundeek egindako eskaerari erantzuteko modua ere bada proiektu hau.	2016ko lehen seihilekoan
<b>B.2.2.</b> Lekukotasunak, artxiboak eta datu-baseak antolatzea. (MH 11. proiekt.)	Frankismoari buruzko lekukotasunak, artxiboak eta datu-baseak antolatzeko proposamena aurkeztea. Gaur egun lekukotasunak biltzeko zein datu-baseak sortzeko hamaika ekimen daude; horrekin batera artxibo ugari ere badaude zatikatuta, barreiatuta eta metodologia komunikgabe. Memoriaren arloko politika publikoaren lehentasunetako bat da egoera hori antolatzea.	2016ko lehen seihilekoan

### B.3. Zabalkundea

Izena	Deskribapena	Egutegia
<b>B.3.1.</b> Biktimen omenezko eta aitormenezko ekitaldiak sustatu eta antolatzea. (MH 8. proiekt.)	Oroimen-ekitaldiak sustatzeko eta koordinatzeko proposamena aurkeztea, bi helburu hartuta: Lehenik, frankismoaren aitormenezko urteko ekitaldi bat ezartzea. Bigarrenik, frankismoaren biktimen oroimenezko eta gorazarrezko ekitaldien egutegia koordinatzen, hobetzen, osatzen eta sustatzen saiatzea.	2016ko lehen seihilekoan
<b>B.3.2.</b> EAEko oroitzapen guneen identifikazioa eta interpretazioa bultzatu eta kudeatzea. (MH 12. proiekt.)	Memoria-espazioak interpretatzeko hiru proiektu pilotu abian jartzea. Proiektu horiek 2015ean memoria-espazioen identifikazioari buruz egindako txostena oinarri hartuta egingo dira. Memoriaren tresna pedagogikoa eratzea du helburutzat, giza eskubideek eta printzipio demokratikoez garapen sozial, kultural eta politiko egokirako duten balioa oinarri hartuta.	2016ko lehen seihilekoan

## C. Oraintsuko Memoriari buruzko proiektuak (1960-2011)

### C.1 Kudeaketa

Izena	Deskribapena	Egutegia
<b>C.1.1.</b> Udal Memoriak. Udal-mailako eremuan memoriari buruzko politika bultzatzea.	Udalekin eta Eudelekin lankidetzan koordinazio-kudeaketa egingo dugu memoriari buruzko udal-politika sustatu eta Memoriaren Eguna urtero ospatzeko.	Aldi osoan zehar
<b>C.1.2.</b> «Gurean» web-espazioa prestatzea biktimen memorian.	Proiektu honen helburua da biktimen memoria pertsonalizatua herritar guztientzat eskuragarri egotea <i>Gurean</i> izena eramango duen web-espazio batean. <i>Gurean</i> hitzak proiektu horren espiritua islatzen duten bi adiera ditu: « <i>geure artean</i> » eta « <i>geure etxean</i> ».	2016an zehar

### C.2. Ikerketa

Izena	Deskribapena	Egutegia
<b>C.2.1.</b> Biktimen lekukotasunak grabatzeko Gertu Programa zabaltzea.	Gertu programaren bidez Oraintsuko Memoriaren aldian hildako biktimen ehundik gora senideren lekukotasunak bildu dira. Programak indarrean jarraituko du 2016an, eta zauritutako biktimen lekukotasunen grabaketak erantsiko ditu.	Aldi osoan zehar
<b>C.2.2.</b> Biktimen eta gizar-tearen, eta memoriaren eta bizikidetzaren arteko bat-egiteari buruzko elkar-riketa-espazioak garatzea.	Lau kontzeptu hauen bat-egiteari buruzko elkarrizketa- eta gogoeta-foro batzuk era experimental batez deitzea. Ekimen horrek jarraipena emango dio 2014an eta 2015ean garatutako Eraikiz Programaren esperientziari. Memoriari buruzko politiketatik ondorio baliagarriak ateratzea da haren helburua.	Aldi osoan zehar

### C.3. Zabalkundea

Izena	Deskribapena	Egutegia
<b>C.3.1.</b> Biktimen lekukotasunak biltzen dituen Gertu ikus-entzunezkoa herritarren esku jartzea.	Aurretik adierazi dugun moduan, Gertu programari esker hildako biktimen ehundik gora senideren lekukotasunak bildu dira. Programaren hurrengo urratsa da lekukotasun horiek Gogora Institutuaren web-orriaren bitartez herritarren esku jartzea, baita berau aurkezteko ikus-entzunezko bat ere.	2015eko azken hiru hilabeteetan
<b>C.3.2.</b> Oraintsuko Memoriaren gogoeta kritikoari buruzko hezkuntza-proposamenaren egitea.	Hezkuntzaren esparruan Oraintsuko Memoriari buruzko gogoeta kritikoa sartzeko baliabide pedagogikoen proposamenaren egingo du, hartarako Adi-adian hezkuntza-esperientzia edo unibertsitateek 2015ean egindako bakerako hezkuntzari buruzko azterlana hartuko dira oinarri.	2015eko lehen sei hilabeteetan





---

# 5. dokumentua

---

**Memoria Historikoaren  
arloko Lehentasunen  
Oinarri Programa 2015-16**

---





# Memoria Historikoaren arloko Lehentasunen Oinarri Programa 2015-16

---

## Proposamena

---

**2014ko azaroa**

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza  
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

---

## Aurkibidea

---

### Sarrera

---

### Oinarriak

---

#### 1. Memoria Historikoaren jarduketa eremua.

#### 2. Lehetasunak antolatzeko erreferentzia nagusiak.

- 2.1. Giza Eskubideen arloko Nazioarteko Zuzenbidea.
- 2.2. Erreferentzia osagarriak.

#### 3. Koordenatu kontzeptualak.

- 3.1. Konpromiso diren printzipioak.
- 3.2. Zeregina.
- 3.3. Helburuak.
- 3.4. Irizpideak.

#### 4. Lehetasunen eta proiektuen antolaketarako oinarrizko egitura.

- 4.1. Egia jakiteko eskubidea.
  - 4.2. Justizia izateko eskubidea.
  - 4.3. Erreparazioa jasotzeko eskubidea.
  - 4.4. Berriz ez gertatzeko bermeak.
- 

## Proiektuak

---

### A. Memoria Historikoaren arloan *Biktimenganako* politika publikoen lehetasunak garatzen dituzten proiektu estrategikoak.

#### I. Egia jakiteko eskubidea.

- 1. proiektua. Desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko EAEko plana sortu eta garatzea.
  - 2. proiektua. Duintasunaren Kolunbarioa abian jartzea, identifikatu gabeko desagertuen gorpuzkietarako.
  - 3. proiektua. Frankismo garaiko (1936-1975) giza eskubideen urratzei buruzko oinarri- txostena egiteko batzordea sortzea.
-



## **II. Justizia izateko eskubidea.**

- 4. proiektua. Frankismo garaiko desagertuen eta krimenen gaineko aurkikuntzak eta ikerketak Ertzaintzari, Fiskaltzari eta auzitegiei jakinarazteko protokoloa abiaraztea.
- 5. proiektua. Justiziarako eskubidearekiko konpromisoaren arloko nazioarteko txosten eta gomendioak bultzatzea eta jarraipena egitea.
- 6. proiektua. Frankismoaren krimenen aurkako 4591/10 Kereilari babesa ematea.

## **III. Erreparazioa jasotzeko eskubidea.**

- 7. proiektua. Frankismoaren biktimen aitormenerako ziurtagiria sortzea.
- 8. proiektua. Biktimen omenezko eta aitormenezko ekitaldiak sustatu eta antolatzea.
- 9. proiektua. Ikur frankistak kentzea

## **B. Memoria Historikoaren arloan *Oroimenerako* politika publikoen lehetasunak garatzen dituzten proiektu estrategikoak.**

### **IV. Memoriarako eskubidea, berriz ez gertatzeko berme gisa.**

- 10. proiektua. Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua garatzea.
- 11. proiektua. Lekukotasunak, artxiboak eta datu-baseak antolatzea.
- 12. proiektua. EAEko oroitzapen guneen identifikazioa eta interpretazioa bultzatu eta kudeatzea.

---

## 1. eranskina.

---

### **Kudeaketa, koordinazioa, finantzaketa eta ebaluazioa.**

---

## 2. eranskina.

---

### **Aurrekariak legegintzan eta erakundeen jardunean.**

---

---

## Sarrera

---

2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planak bere I. ekimenean ezartzen duenez, 2014an zehar “Memoria Historikoen arloko Lehenetsuen Oinarri Programa” osatu eta aurkeztu behar da. Dokumentu honek konpromiso horri erantzuten dio. Eusko Jaurlaritzak 2013ko azaroaren 26an onetsi zuen Bake eta Bizikidetzaren Plana. Aldez aurretik Legebiltzarreko taldeek, elkarte-sareak eta herritar guztiek hiru hilabeteko epea izan zuten planerako ekarpenak egiteko. Memoria Historikoen aldeko eta frankismoaren biktimekin elkarrekin etorri ziren ekarpen horietako asko.

Ekarpen multzo horretako ikuspegiak eta iradokizunak sorta oso zabala izan zen. Horrek, alde batetik, agerian utzi zuen gizartearen eta elkartearen kultura eta gai horrek gure gizartearen pizten duen sentikortasuna; baina, bestetik, nekez landu zitezkeen proposamen barreiatuak bildu ziren emaitza gisa. Erreferentziak sakabanatze hori, besteak beste, kontuan harturik, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Memoria Historikoen arloko jarduketak eta lehenetsuen antolatzea helburu duen aurreikuspena sartu du bere plan estrategikoan.

Memoria Historikoen gaiak legegintzan eta erakundearen jardunean izan dituen aurrekarien azterketak ere (2. eranskina) agerian jartzen du egituratzeko behar hori. Eskumen eta diru-baliabide mugatuak eduki arren, EAEko erakundeak bideak garbitzen joan dira Diktaduraren injustizia historiko handia konpentsatze aldera, bai frankismoaren biktimei bai euskal gizarte osoari dagokienez. Sarritan aitzindari gertatu den prozesu horrek, ezinbestean, bere jarduketaren multzoaren egituratzeko antolatuaren falta izan du.

Argudio berari eutsiz, azpimarratzekoa da analisi horrekin bat etorri dela Pablo de Greiff, egia, justiziaren, erreparazioaren eta berriz ez gertatzeko bermeen sustapenerako Nazio Batuen errelatore berezia. Estatu espainiarreko egindako bisitan, zehazki 2014ko urtarrilaren 31n hainbat autonomia erkidegoko ordezkariekin egin zuen bileran, eta erakunde, elkarte eta biktimekin topaketa asko izan ondoren, adierazi zuen ados zegoela Eusko Jaurlaritzak ordena jartzeko eta lehenetsuen definitzeko premiari buruz ekarritako diagnostikoarekin; bere aldetik, premia hori Estatu osora hedatu zuen.

2014ko otsailaren 3an, bisita amaitutakoan, atariko txostena aurkeztu zuen. Txosten horretako laugarren gomendioan xehetasunez garatzen du argudio hori. Proposatzen du “neurriak hartzea Espainian memoria-

ren aldeko ekimenen zatikatzea zuzentzeko”. “Informazioa sistematizatu” egin behar dela dio, “plan antolatu bat moldatu, lehetasunak ezarrita”, eta “ahaleginen koordinazioa sustatu”. Horixe du helburu dokumentu honek.

Garrantzitsua da azpimarratzea, hala ere, ez gabela hutsetik abiatu. Orain baditugu tresna batzuk, gure eskumen-eremuaren, mugen eta ahalmenen barruan geure gain har ditzakegun lehetasunak egituratzen eta ordenatzen lagundu ahal digutenak. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen izaera lotesleak eta Nazio Batuen arlo honetako berariazko aginduek oinarrizko esparrua eskaintzen digute abiapuntua kokatzeko.

Hain zuzen ere esparru horrexetan kokatuta dago dokumentu hau. Nazioarteko zuzenbidearen esparrutik abiatuta, Memoria Historikoaren arloan hurrengo bi urteetarako lehetasunezko jarduketan mapa zehazten laguntzea da dokumentu honen helburua. Lanerako proposamen gisa aurkezten da, irekita dago bera hobetu eta osatuko duten ekarpenak jasotzeko.

Noski, proposamen hau osatugabea eta akastuna da. Lehenik, berandu iristen ari garelako erreparazio honetara, inguruabar historiko eta politikoen erruz. Bigarrenik, EAeko erakundeen eskumen, ahalmen eta baliabideek badituztelako mugak, haien jarduna baldintzatzen dutenak. Hala ere, zailtasun eta mugak gorabehera, horiek bezain indartsua da, gutxienez, ekimen honen oinarri diren printzipioekiko konpromisoa. Konpromiso horretatik borondate sendoa sortu da kendu beharreko oztopoak kentzeko eta lortu nahi diren helburuetarako baldintza aldekoak sortzeko.



---

# Oinarriak

---

1. Memoria Historikoaren jarduketa eremua
  2. Lehentasunak antolatzeko erreferentzia nagusiak
  3. Koordenatu kontzeptualak
  4. Lehentasunen eta proiektuen antolaketarako oinarrizko egitura
-

---

# 1. Memoria Historikoaren jarduketa eremua

---

1936ko uztaileko matxinada militar faxistak eta haren ondorioek, hots, Gerra Zibilak eta 40 urteko Diktadura frankistak, bidegabekeria bikoitza ekarri zuten: batetik, zapalkuntzazko eta askatasun oinarriko gabeko erregimenaren pean gizarte osoak jasan zuen bidegabekeria historiko eta politikoa, eta bestetik frankismoaren biktimek jasan zituzten giza eskubideen urratze masiboen bidegabekeria.

Hainbat ikerketa historikoren arabera, Estatu osoan 200.000 inguru izan ziren “legezko” exekuzioen, judiziorik gabeko exekuzioen eta bortxazko desagertzeen bitartez eraildako pertsonak. Euskadin guztira 9.800 bat izan ziren biktimak, kontuan hartzen baditugu desagertuak, gerra-tokian edo espetxean hildakoak, judizioz kanpo exekutatutakoak eta beste hildako batzuk. Ez gara ari han-hemenka gertatutako hilketez, baizik eta gizateriaren aurkako krimenez, erailketa sistematiko, masibo eta jarraituez.

Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauak agintzen dutenaz gainera esperientzia historikoak ere frogatu duenez, frankismoan bezala giza eskubideen urratze jarraitua eurekin ekarri duten gertaera traumatikoei berrikuspen kritikoa egin behar zaie eta argitu egin behar da zer gertatu zen. Horrela, beste gauza batzuen artean, egindako bidegabekeriak aitortu eta biktimei ordaina eman ahal izango zaie.

Horrek guztiak, halaber, oinarriko pedagogia demokratikoko helburu bikoitza du: batetik, erakustea bidegabekeriak badituela ondorioak, horrela bidea itxiz zigorgabetasunari eta etorkizunean antzekorik berriro gertatzeko aukerari; eta bestetik, gertaera objektiboaren egiaren oinarri sendoaren gainean, alegia, giza eskubideen urratzeen aitortzearen gainean, kontziliazioa eta normalizazioa finkatu eta ahalbidetzea.

Horrelako ezaugarriak dituen prozesurik ezin izan da egin Estatu espainiarrean. Esperientzia historikoak eta nazioarteko zuzenbideak agintzen dutenaren kontra, Trantsizioan oinarri gisa hartu zen dogmak, frankismoari zegokionez, zigorgabetasuna ezarri eta sendotu zuen konponbiderik onentzat. Espainiako sistema demokratikoaren geroko garapenak berretsi egin du inkongruentzia hori. Gaur egun, oraindik ere, Estatuko botere nagusietan ahalmen arauemailerik handiena duen arrazoibideak hauxe dio: “ez da iraganeko kontuak mugitzen ibili behar, adiskidetze nazionala errazteko eta bi Espainian arteko borroka eta gorrotoak berriro ez pizteko”.

Inpunitateari lege babesa emateko oinarritzat hartzen den arau juridikoa Amnistiari buruzko urriaren 15eko 46/1977 Legea da, baina arau hori inpunitaterako tresna gisa erabiltzea gaitzetsi egin dute giza eskubideen arloko nazioarteko instantzia agintedunek. Hogeita hamar urte geroago, abenduaren 26ko 52/2007 Legea, Gerra Zibilean eta Diktaduran jazarpena edo bortxa jasan zutenen eskubideak aitortzen eta hedatzen eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen, Memoria Historikoari buruzko Legea deritzona, aurrerapausoa izan zen, baina aurrerapen horrek mugatuta jarraitzen du oraindik, Trantsizioko tabua dela-eta: iragana “ez da ukitu behar” eta “orria pasatu behar da”.

Bidegabekeria historiko hori zuzentzeko eskaera ugari egin dira. Adierazgarrienetakoak dira frankismo garaian gertatutakoa argitzeari ekiteko bi dei, hots, Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarrak 2006ko martxoaren 17an egindakoa eta Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak 2008ko urrian egindakoa<sup>1</sup>. Aurrekoei erantsi behar zaizkie geroago egindako hiru txosten: Espainiak aurkeztutako txostenari buruz Bortxazko Desagertzeen aurkako Batzordeak 2013ko abenduaren 12an emandako Amaierako Oharrak<sup>2</sup>; 2013ko irailaren 23an eta 30ean Espainiara bisita egin eta gero Bortxazko Desagertzei buruzko Lantaldeak 2014ko uztailearen 2an emandako txostena<sup>3</sup>; eta orain dela gutxi, 2014ko uztailearen 22an, egiaren, justiziaren, erreparazioaren eta berriz ez gertatzeko bermeen sustapenerako Nazio Batuen errelatore berezi Pablo de Greiffek eman duen txostena, Espainian 2014ko urtarrilaren 21etik otsailaren 3ra bitartean egindako misioari buruzkoa<sup>4</sup>.

Zigorgabetasunaren bidegabekeria historikoak piztu duen kezka sozial eta demokratikoaren eraginez azken hamarkadetan ugaritu egin dira herritarren eta elkartearen ekimenak, baita erakundeek ere, batez ere

---

1 CCPR/C/ESP/CCO/5.

2 CED/C/ESP/CO/1.

3 A/HRC/27/49/Add.1.

4 A/HRC/27/56/Add.

udalenak eta autonomia erkidegoetako gobernuenak. Denek esan dute iragan hori argitu egin behar dela eta frankismoaren biktimei gutxienez ere aitormen eta erreparazioa zor zaiela. Askotarikotasun eta pluraltasun handiko bultzaden multzo horri “Memoria Historikoa” deitu zaio.

Horixe da dokumentu honen jarduketa-esparrua: Memoria Historikoa Izen horrek barruan hartzen eta bi hitzetan laburbiltzen ditu desberdinak izanik ere izendatzaile komun bat duten lan eta eragile asko. Laburbiltze horrek, eraginkorra izan arren, nahasteko bidea ere eman dezake ez bada haren edukia zehazten, batez ere oroimen kontu baten aurrean gaudela ematen baitu.

Memoria Historikoa deitzen zaion eremuaren barruan bi arlo batzen dira: biktimen aldeko politika publikoak eta memoriari buruzko politika publikoak. Ez da oroimen kontua soilik, ez eta funtsean ere. Giza eskubideen urratze larrien biktimei dagozkien eskubideei erantzutearen kontu guztiz garrantzitsua ere bada. Bi politika publikoek, memoriari buruzkoak eta biktimen aldekoak, bat egiten dute eta elkar osatzen dute; baina jarduketa eremu desberdinak dira.

Horiek horrela, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eta haren baitako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak tresna bat eskaini nahi dute: Memoria Historikoaren arloko Lehenetasunen 2015-2016 aldirako Oinarri Programa. Programa hau, Eusko Jaurlaritzaren arlo honetako lanaren gidodia izateaz gainera, ekimenak hobeto egituratzeko tresna gisa ere eskaintzen da, beste erakunde batzuekiko eta elkarre-sarearekiko koordinazioa eta sinergia hobetzea ahalbidetuko baitu.

---

## 2. Lehenetasunak antolatzeako erreferentzia nagusiak

---

### 2.1. Giza Eskubideen arloko Nazioarteko Zuzenbidea

Estatuak bere gain hartzen dituen betebeharren parte den heinean, barne-zuzenbidearen atal bat da nazioarteko zuzenbidea, Espainiako Konstituzioko 96.1 artikulua araberak. Era berean, horixe da giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea: Espainiako Konstituzioko 10.2 artikulua dioenez, “Konstituzioak onartzen dituen funtsezko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta gai horiei buruz Espainiak berretsi dituen nazioarteko itunen eta akordioaren arabera interpretatuko dira”.

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea ez da erreferentzia erretoriko edo apaingarri bat, baizik eta arauzko agindu lotesle bat, etika politikoaren gutxienekoak unibertsalki mugatzeko eta bateratzeko aukera ematen diguna. Eusko Jaurlaritzaren ustez, baina, ez du lotetsi bakarrik egiten. Aitzitik, arauzko esparru horrekin erabat konprometituta ere badago Eusko Jaurlaritza: pentsatzekoa denez, besteak beste, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, eskubide zibil eta politikoaren nazioarteko itunek eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak lotesten eta konprometitzen dute.

Memoria Historikoari eta zehatzago frankismoaren biktimei dagokienez, Nazioarteko Zuzenbidearen erreferentzia nagusia Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 60/147 Ebazpena da, 2005eko abendukoa. Beraren bidez onetsi da dokumentu hau: “Nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urratze nabarmenen biktimek errekurtsoak jartzeko eta erreparazioa jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta irizpideak”.

Ebazpen horren ekarpen nagusia, hain zuzen ere, lehenetasunak sistematizatu, egituratu eta ordenatzea da, giza eskubideen urratze larrien biktimei dagozkien eskubideak betetzea xedetzat harturik. Ebazpen horrek sendotu egiten du biktimei dagozkien eskubideen oinarritzko definizioa -egia, justizia eta erreparazioa-, eta eskubide horietariko bakoitzaren eduki praktikoak zehazten ditu.

---

2011ko urrian, ebazpen horren betetzeari, besteak beste, jarraipena egiteko, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluak 18/7 Ebazpena<sup>5</sup> onetsi zuen. Horren bidez errelatore berezi baten mandatua ezarri zen, bera arduratu zedin “giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urratze nabarmenak egin diren egoerez”. Mandatu horrek hiru eremutatik lautara hedatzen du esku-hartzearen egitura, halako moduan non, egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideak sustatzeaz gain, berriz ez gertatzeko bermeak ere hartu behar baitira aintzat.

Ebazpen horrek berariazko aipamena egiten dio, gainera, pertsona guztiak bortxazko desagertzeetatik babesteko Nazioarteko Konbentzioari. Espainiako Gobernuak konbentzio hori berretsi zuen 2011ko otsailan<sup>6</sup>, eta haren 24. artikuluko 2. paragrafoan aitortzen da biktima orok eskubidea duela bortxazko desagertzearen egiazko inguruabarrak, ikerketen nondik norakoa eta emaitzak eta desagertutako pertsonari jazo-takoa jakiteko, eta auziko alderdi den Estatuaren eginbeharrak ezartzen dira, neurri egokiak ezarri beharko dituela esanez; eta atariko hitzetan berretsi egiten da helburu horretarako informazioak bilatzeko, jasotzeko eta zabaltzeko askatasunerako eskubidea. Horrek zuzeneko eragina du hemen, Memoria Historikoari buruzko politiketan, frankismoaren garaiko bortxazko desagertzeei buruz ditugun datu ikaragarriak direla-eta.

Ondorioz, Memoria Historikoaren arloko Eusko Jaurlaritzaren politikak Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen esparruan izango du oinarria, eta Nazio Batuen ebazpenek zehaztu duten lau eremuko (egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzearen bermeak) eskema beraren barruan egituratuko du bere jarduna. Eusko Jaurlaritzak arlo honetan esku hartzeko dauzkan eskumenen eta baliabideen mugen arabera egokituko da konpromiso horren garapena.

## 2.2. Erreferentzia osagarriak

Nazioarteko Zuzenbideaz gainera, Memoria Historikoaren arloko Eusko Jaurlaritzaren jarduna kokatzeko erreferentzia osagarriak, jakina, barne-zuzenbidea, lege-aurrekariak eta aldez aurreko ekimen instituzionalak eta sozialak dira (2. eranskina). Horrek guztiak balio izan du bidea eta ildo irekitzeko Diktaduraren garaiko biktimen eta memoriaren gaineko politika publikoen garapen beharrezkoari.

Dokumentu hau zorretan dago aurretik ahalegina egin duten beste horiekin. Nabarmendu behar da, horren haritik, Eusko Jaurlaritzak aurreko legegintzaldietan egin duen lanaren balioa, bai eta foru aldundien jarduna eta egoera zailetan ekimen aitzindariak garatu dituzten hainbat eta hainbat udalena ere.

Esker on hori Euskadiko elkarte sareari ere zor zaio, lagundu egin duelako politika publikoen espazio hau sortzen eta Memoria Historikoa ahanzturan erorita ez uzten. Bereziki goraipatu behar dira, era berean, jasandako bidegabekeriaren aitorten historiko eta demokratikoaren bila etsi gabe ekiteko behar adinako pazientzia eta indarra izan duten milaka biktimak eta biktimen senideak.

Eusko Jaurlaritzarentzat erreferentzia baliotsuak dira, halaber, Human Rights Watch, Legelarien Nazioarteko Batzordea edo Amnistia Internazionala bezalako nazioarteko erakunde ospetsuek egin dituzten deiak eta txostenak. Aipatzekoa da, zehazki, Amnistia Internazionalaren 2013ko ekaineko txostena, izenburu hau duena: “Denbora badoa, inpunitateak hor dirau”. Aurreko beste txosten bat eguneratzen du, 2012ko maiatzekoa.

Azkenik, Euskadin azpimarratzekoa da Ararteko erakundeak 2012ko urtarrilean aurkeztutako azterlan hau: “Egia, justizia eta ordaina Diktadura frankistaren biktimentzat: esanahia eta politika publikoak Euskal Autonomia Erkidegoan”. Txosten horrek eskaintzen duen kontzeptuen argitzea aise jo liteke erakundeen arteko eta gizarteko topagunetzat arlo honetan.

---

5 A/HRC/RES/18/7

6 2011ko 42. BOE, otsailaren 18koa, I. atala, 18254. or.



## 3. Koordenatu kontzeptualak

Memoria Historikoaren arloko Eusko Jaurlaritzaren politikaren oinarriak laburbiltzeko, koordenatu kontzeptual batzuk aipa daitezke: haren printzipioak, zeregina, helburuak eta irizpideak.

### 3.1. Konpromiso diren printzipioak

Memoria Historikoaren arloko Eusko Jaurlaritzaren politika eta, zehatzago, jarduketa-programa hau hiru zutabetan bermatzen dira, haien zimenduak hiru oinarri ditu.

- **Printzipio etikoa**, bidegabekeriaren aurkako eta giza eskubideen urratze larrien biktinekiko elkartzaren aldeko konpromisotik sortua.
- **Printzipio politikoa**, giza duintasunari, giza eskubideei eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbideari lotzeko konpromisotik sortua.
- **Printzipio demokratikoa**, printzipio demokratikoen, zuzenbidezko estatuaren eta bizikidetzaren defentsarako konpromisotik sortua.

### 3.2. Zeregina

Printzipio, balio eta prozedura demokratikoen sistema batean jarduketa politiko eta instituzional oren azken xedeak bizikidetzat du helmuga. Dena egiten da, azken batean, bizikidetzat adiskidetsu, zuzen eta integraturako baldintza egokiak sortze aldera. Horixe da balio gorena. Eta horixe da memoria historikoaren alorrean Eusko Jaurlaritzaren politika publikoak duen misioa:

- **“Gizarte elkartzea” sustatzea**. Bakea finkatzeko egungo testuinguruan, horrek dakarrena da bizikidetzat eta adiskidetzat bultzatzea eta sendotzea gure gizartean. Baldintzak sortzea plaza publiko bat, agora bat posible egiteko, hau da, denok lekua izango dugun plaza publikoa, elkartze demokratikoko gune bat, non errespetua eta desadostasuna normaltasun osoz uztartuko diren.

### 3.3. Helburuak

Bi helburutan laburbiltzen da Memoria Historikoaren arloko lehenetasunen programa honen zertarokoa. Lehenengoak biktimak ditu ardatz eta haien eskubideei erreparatzen die; bigarrena gizarte osoari irekita dago, eta memoriari jartzen dio arreta.

- **Biktimak**. Biktimganako politika publikoa sustatzea, zeinak, egia jakiteko, justizia izateko eta erreparazioa jasotzeko eskubideak betetz, argitara aterako baititu giza eskubideen urratzeak, frankismoaren biktimei egindako kaltearen bidegabekeria aitortu, eta ordaina eskainiko baitie, gutxienez ere ordain morala.
- **Oroimena**. Oroimenerako politika publikoa sustatzea, zeinak aitortuko baitu gizarte osoarentzat bidegabekeria historikoa izan zela Diktadura frankista jasatea, erreskatatu eta omenduko baititu Diktaduraren erdian duintasuna, berdintasuna, askatasuna eta demokrazia defendatzen saiatu ziren balioak eta ahaleginak, eta, era horretara, lagunduko baitu pedagogia sozialeko baldintzak sortzen, halakorik berriz ez gertatzeko berme izango direnak.

### 3.4. Irizpideak

Memoria Historikoaren arloko lehenetasunen programa hau gidatzen duten irizpideek jarduketan egituraketa eta antolamendua erraztea dute helburu nagusia.

- **Lehenetasunak ezartzea** Memoria Historikoaren arloko jardunak dituen lau esparruetariko bakoitzean aritzeko.

- 
- **Proiektu estrategikoak definitzea** hurrengo urteetarako, oinarritzat harturik lehentasunen definizioa eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenak, ahalbideak eta mugak.
  - **Jarduketa plan orokorra antolatzea**, esparru bakoitzeko lehentasunak eta proiektu estrategikoen garapena bildu eta antolatuko dituenak.

---

## 4. Lehentasunen eta proiektuen antolaketarako oinarrizko egitura

---

Aurrean esan denez, Memoria Historikoaren arloko Eusko Jaurlaritzaren politika publikoetan, lehentasunak eta jarduketa proiektuak antolatzeko oinarritzat hartuko dira Nazio Batuen aginduak zehaztutako lau kategoriak: egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermeak.

Oinarri horren gainean, lehentasunen eta proiektu estrategikoen definizioa egiterakoan zenbait erreferentzia hartzen dira kontuan:

- Batetik, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren aginduei eta gidalerroei jarraitu beharra.
- Bestetik, geure ingurunearen ezaugarriak kontuan hartu beharra, hots, aurrekariak, errebindikazioak, eta Eusko Jaurlaritzaren ahalbideak, eskumenak eta mugak.
- Azkenik, garrantzi nabarmena dute honezkero abian diren ekimenei, horiek ere jaso behar baitira, jakina, dokumentu honetako lehentasunen antolaketan eta proiektuetan.

Oinarri eta erreferentzien atal honen barruan, jarraian antolatuko dira aipatutako lau arloetako (egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermeak) helburuak, esanahiak, lehentasunak eta proiektuak.

## 4.1. Egia jakiteko eskubidea

Egia jakiteko eskubidearen helburua eta esanahia	Lehetasunak gure ingurunean	Proiektu estrategikoak Euskadin
<p><b>·Helburua</b></p> <p>Frankismoaren biktimek egia jakiteko duten eskubidea bete dadin sustatzea.</p> <p><b>·Esanahia</b></p> <p>Biktimek egia jakiteko duten eskubideari lotuta, erakunde publikoen betebeharra da iker-tzea, gertatutakoa argitu dadin sustatzeko, giza eskubideen urratzei eta horien ondoriozko erantzukizunei dagokienez.</p>	<p><b>·1. lehetasuna.</b></p> <p>Biktimen ikuspegitik, lehenbai-lehen argitu behar da, ahal den neurrian, desagertuei dagokien guztia (bortxazko desagertzeak, judiziorik gabeko exekuzioak eta “legezko” exekuzioak).</p> <p><b>·2. lehetasuna.</b></p> <p>Garrantziari erreparatuta, lehetasunezkoa da egia historikoa aitortzea eta Gerra Zibilean nahiz Francoren Diktaduran zehar egin ziren giza eskubideen urratzeak argitzea..</p>	<p><b>-1. proiektua.</b></p> <p>Desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko EAEko plana sortu eta garatzea.</p> <p><b>-2. proiektua.</b></p> <p>Duintasunaren Kolunbarioa abian jartzea, identifikatu gabeko desagertuen gorpuzkietarako.</p> <p><b>-3. proiektua.</b></p> <p>Frankismo garaiko (1936-1975) giza eskubideen urratzei buruzko oinarri-txostena egiteko batzordea sortzea.</p>

### Iruzkina

Estatu espainiarrari berriaz, esplizituki eta presaz egindako gomendio batzuen parte da aurreneko lehetasuna. Gomendio horien egileak dira, batetik, bortxazko edo nahitaezko desagertzei buruzko Nazio Batuen Lantaldea eta horren Errelatore Berezia, eta bestetik, egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermeak sustatzeko Errelatore Berezia. Lehetasun horren barruan dago 1. proiektua. Eta 1. proiektutik sortutako beharizan praktikoko baten parte da 2. proiektua. Proiektu horren bitartez, halaber, aitormen-espazio bat eskaini nahi zaie egari eta biktima guztien duintasunari, batez ere izenik gabeko, desagertutako eta identifikatu gabeko biktimei.

Bigarren lehetasunak erantzun egiten dio giza eskubideak babesteko Nazio Batuen mekanismoek, Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarrak, Arartekoak eta elkarte-mugimenduak egindako deia. Guztiek aho batez eskatzen dute giza eskubideen urratzeen alorrean gertatutakoaren egia argitzeko mekanismoak sor daitezela. Lehetasun horren barruan dago 3. proiektua.

## 4.2. Justizia izateko eskubidea

Justizia izateko eskubidearen helburua eta esanahia	Lehentasunak gure ingurunean	Proiektu estrategikoak Euskadin
<p><b>·Helburua</b></p> <p>Frankismoaren biktimek justiziarako duten eskubidea bete dadin sustatzea.</p> <p><b>·Esanahia</b></p> <p>Biktimek justiziarako duten eskubideari lotuta, erakunde publikoen betebeharra da zigorgabetasunik ez onartzea. Ondorioz, behar diren neurriak hartu behar dituzte giza eskubideen urratzei eta horien erantzuleei barne-zuzenbidea eta nazioarteko zuzenbidea aplikatzeko.</p>	<p><b>·1. lehentasuna.</b></p> <p>Justizia Administrazioarekin lankidetzan aritzea barne-eremuan, biktimek justiziarako duten eskubidea sustatzeko.</p> <p><b>·2. lehentasuna.</b></p> <p>Nazioarteko erakundeen ekimenei laguntza eta babesa ematea, erakundeok neurriak sustatzen dituztenean zigorgabetasuna erakundetu ez dadin eta justiziarako eskubidea eraginkorra izan dadin.</p>	<p><b>-4. proiektua.</b></p> <p>Frankismo garaiko desagertuen eta krimenen gaineko aurkikuntzak eta ikerketak Ertzaintzari, Fiskaltzari eta auzitegiei jakinarazteko protokoloa abiaraztea.</p> <p><b>-5. proiektua.</b></p> <p>Justiziarako eskubidearekiko konpromisoaren arloko nazioarteko txosten eta gomen-dioak bultzatzea eta jarraipena egitea.</p> <p><b>-6. proiektua.</b></p> <p>Frankismoaren krimenen aurkako 4591/10 Kereilari (“Argentinako Kereila”) babesa ematea..</p>

### Iruzkinak

Biktimek justiziarako duten eskubidea sustatzeko beharrezkoak diren jarduketak egitea batez ere botere judizialari dagokio, eta, beraz, Eusko Jaurlaritzaren eskumenetik kanpo dago. Botere publikoen eginbeharra da, ordea, gizateriaren aurkakoak izateagatik preskribaezinak diren krimenak ikertzea, eta halakoak dira desagertze masiboak. Ildo horretan, aurreneko lehentasuna eta 4. proiektua zuzenean lotuta daude premisa horri. Eusko Jaurlaritzari dagokio frankismoaren krimenekin zerikusia duen edozein ikerketa auzitegien esku jartzea. Gainera, horixe egiteko eskatu dute berariaz giza eskubideen babeserako nazioarteko erakunde nagusiek.

Azken urteotan Nazio Batuetako hainbat batzordek eta errelatore berezik behin eta berriz azpimarratu dute erreklamazio sorta bat, Estatu espainiarrak bere eginbeharretan agertzen dituen defizit larriei buruzkoa. Eusko Jaurlaritzaren iritziz, bere gain hartu behar dituen lehentasunen parte da erreklamazio horiei babesa ematea. Bere ahalbideen neurrian Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen duen etika politikoko konpromisoan islatzen da jurisdikzio unibertsalaren printzipioa. Testuinguru horretan kokatuta daude 5. eta 6. proiektuak.

### 4.3. Erreparazioa jasotzeko eskubidea

Ordainerako eskubidearen helburua eta esanahia	Lehetasunak gure ingurunean	Proiektu estrategikoak Euskadin
<p><b>·Helburua</b></p> <p>Frankismoaren biktimek erreparazioa jasotzeko duten eskubidea bete dadin sustatzea.</p> <p><b>·Esanahia</b></p> <p>Biktimek ordaina jasotzeko duten eskubideari lotuta, erakunde publikoen betebeharra da ahal den neurrian konpentsatzea Estatuari egintzaz edo omisioz egotzi ahal zaizkion giza eskubideen urratzeen ondorioz bidegabeki jasandako oinazea.</p>	<p><b>·1. lehetasuna.</b></p> <p>Frankismoaren biktimek eta haien senideek, ahal den heinean, bidegabeki jasan zuten oinazearen banakako aitortpena suma dezaten lortzea.</p> <p><b>·2. lehetasuna.</b></p> <p>Biktimen omenezko eta aitormen publikorako ekitaldien antolaketa eta sinergia sustatzea, eta biktimak iraintzen dituzten edota frankismoa goresten duten ikurrak kentzea.</p>	<p><b>-7. proiektua.</b></p> <p>Frankismoaren biktimen aitormenerako ziurtagiria sortzea.</p> <p><b>-8. proiektua.</b></p> <p>Biktimen omenezko eta aitormenezko ekitaldiak sustatu eta antolatzea.</p> <p><b>-9. proiektua.</b></p> <p>Ikur frankistak kentzea.</p>

#### Iruzkinek

Gorago aipatutako Nazio Batuen 60/147 Ebazpenak, "Nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urratze nabarmenen biktimek errekursoak jartzeko eta erreparazioa jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarriko printzipio eta irizpideak" izeneko dokumentua onesten duenak, zehatz-mehatz definitzen du ordainerako eskubidearen edukia. Ebazpen hori gure errealitatearen eta ahalbideen ingurune zehatzean interpretatzeak bide ematen digu Eusko Jaurlaritzak 2015-16 aldirako bere gain hartu dituen bi lehetasunak zehazteko.

Biktimen banakako aitormena du helburu 1. lehetasunak, eta horretatik sortua da 7. proiektua. Aitormen publikorako ekimenak indartu eta antolatu eta biktimen kontrako irainak eragotzi nahi dira 2. lehetasunaren bidez. Ingurune horretan daude kokatuta 8. eta 9. proiektuak.

## 4.4. Berriz ez gertatzeko bermeak

Berriz ez gertatzeko bermeen helburua eta esanahia	Lehentasunak gure ingurunean	Proiektu estrategikoak Euskadin
<p><b>·Helburua</b></p> <p>Berriz ez gertatzeko bermeak sustatzea, bai frankismoaren biktimentzat bai gizarte osoarentzat.</p> <p><b>·Esanahia</b></p> <p>Ingurune demokratikoan, zuzenbidezko estatua izan behar da berriz ez gertatzeko berme nagusia. Horrez gain, berriz ez gertatzeko bermeen sustapenak, gure artean, gertatutakoaren oroitzapen kritiko eta demokratikoaren eginkizun pedagogikoa, hezitzailea eta prebentziozkoa du ardatz.</p>	<p><b>·1. lehentasuna.</b></p> <p>Oroimenerako politika publikoa bultzatzea, bizikidetzaren demokratikoaren balioak indartzea helburutzat hartuta, berriz ez gertatzeko bermeak sustatzeko tresnarik onena baita.</p> <p><b>·2. lehentasuna.</b></p> <p>Artxiboen, datu-baseen, lekukotasunen eta erakunde- nahiz gizarte-ekintzen arloetan Memoria Historikoaren aldeko ekimenen sustapena egokitzea.</p>	<p><b>-10. proiektua.</b></p> <p>Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua garatzea.</p> <p><b>-11. proiektua.</b></p> <p>Lekukotasunak, artxiboak eta datu-baseak antolatzea.</p> <p><b>-12. proiektua.</b></p> <p>EAEko oroitzapen guneen identifikazioa eta interpretazioa bultzatu eta kudeatzea.</p>

### Iruzkinak

Bere atariko oharrak biltzen dituen txostenean, 2014ko urtarrilean Espainiara bisita egin ondoren, Pablo de Greiffek, egiaren, justiziaren, erreparazioaren eta berriz ez gertatzeko bermeen sustapenerako Nazio Batuen errelatore bereziak, hau azpimarratu du: “demokraziaren indarra berez da tresna bat berriz ez gertatzea bermatzeko”. Eta hau erantsi du: “hezkuntza berriz ez gertatzeko tresna nagusietarikoa da”. Eusko Jaurlaritza bat dator horrekin: sistema demokratiko batean egiarako, justiziarako eta ordainerako benetako neurriak dira tresnarik ahaltsuenak berriz ez gertatzea bermatzeko.

Ildo horretan, memoriari buruzko politika publikoa estrategia osagarria da, Eusko Jaurlaritza bezalako erakunde batek erabil dezakeena berriz ez gertatzeko bermeak sustatze aldera. Hori horrela izango da baldin eta iraganean duintasuna, askatasuna eta demokrazia defendatzen ahalegindu ziren balioen pedagogia gisa hartzen bada memoria. Gogoeta horren inguruan kokatuta daude jarduketaren esparru honetako bi lehentasunak eta hiru proiektuak.

## Memoria Historikoari buruz Eusko Jaurlaritzak darabilen politika publikoaren egituraren laburpen-taula

### Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen esparrua

### Barne Zuzenbidearen esparrua eta aurrekariak legegintzan eta erakunde- nahiz gizarte-jarduketetan

Eusko Jaurlaritzaren politika publikoa Memoria Historikoaren arloan

Biktimen arloko politika publikoa			Memoriaren arloko politika publikoa		
Ardatza	Lehetasuna	Proiektua	Ardatza	Lehetasuna	Proiektua
<b>Egia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzea.</li> <li>·Diktaduraren egia historikoa argitzea.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Desagertutako pertsonen buruzko ekintza plana.</li> <li>2. Duintasunaren kolunbarioa.</li> <li>3. Giza eskubideei buruzko 1936-75 aldiko txostena.</li> </ol>	<b>Berriz ez gertatzeko bermeak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Memoriaren arloko politika integratua bultzatzea.</li> <li>·Baliabideak eta ekimenak bateratzea.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>10. Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua.</li> <li>11. Artxiboak, datuak eta lekukotasunak.</li> <li>12. Oroitzapen guneen interpretazioa.</li> </ol>
<b>Justizia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Botere judizialaren ikerketan laguntzea.</li> <li>·Nazioarteko ahaleginetan laguntzea.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>4. Justiziari laguntzeko protokoloa.</li> <li>5. Nazioarteko erakundeekiko lankidetzak.</li> <li>6. Argentinako Kereilari (4591/10) babesa ematea.</li> </ol>			
<b>Erreparazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Biktimei banakako aitormena eskaintzea.</li> <li>·Aitormen publikoaren sustatzea eta ikur iraingarriak kentzea.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>7. Banakako aitormenaren ziurtagiria.</li> <li>8. Omenaldi publikoak koordinatzea.</li> <li>9. Ikur frankistak kentzea.</li> </ol>			





---

# Proiektuak

---

Jarduketa plan orokorra

---

---

## A. Memoria Historikoaren arloan *Biktimenganako* politika publikoen lehentasunak garatzen dituzten proiektu estrategikoak

---

### I. Egia jakiteko eskubidea

•1. **proiektua.** Desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko EAEko plana sortu eta garatzea

•**Deskribapena**

Eusko Jaurlaritzak gaur egun lankidetzaz hitzarmena dauka Aranzadi Zientzia Elkartearekin, eragindakoen informazio-eskaerei erantzuteko, desagertutako pertsonen gorpuzkiak bilatu, berreskuratu eta identifikatzeko, hobien mapa eguneratzeko eta biltzen den informazio guztia jaso eta sistematizatzeko. Proiektuaren bidez plan edo protokolo bakarrean sartuko dira bortxazko desagertzeen eta judizioz kanpoko exekuzioen biktimen beharrezko erantzuteko bultzatu behar diren ekintza guztiak, Nazio Batuen berariazko gomendioei jarraituz.

•**Egutegia**

• Desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko EAEko Plana aurkeztea	• 2015eko lehen seihilekoan
--	-----------------------------

---

•**2. proiektua.** Duintasunaren Kolunbarioa abian jartzea, identifikatu gabeko desagertuen gorpuzkietarako

•**Deskribapena**

Azken urteotan hobiak eta desagertutako pertsonak bilatzeko egindako lanaren ondorioz, identifikatu ezin izan diren pertsona askoren gorpuzkiak aurkitu dira. Beharrian materiala ez ezik, biktimen duintasunaren begiruneak eskatzen duen eginbeharra ere bada gorpuzki horiek jasotzeko eta ohoratzeko espazioa eraikitzea. Gaur egun proiektu hau diseinuaren fasean dago eta kokapena Elgoibarren aurreikusita dago.

•**Egutegia**

• Duintasunaren Kolunbarioaren proiektua aurkeztea	• 2015eko lehen hiruhilekoan
--	------------------------------

•**3. proiektua.** Frankismo garaiko (1936-1975) giza eskubideen urratzeei buruzko oinarri-txostena egiteko batzordea sortzea

•**Deskribapena.**

Dagoeneko Eusko Jaurlaritzak eginda dauka euskal auziaren inguruan 1960tik 2013ra bitartean izandako giza eskubideen urratzei buruzko txostena. Proiektu honen bidez idazketa batzordea sortuko da, antzeko txostena egin dezan 1936-1975 aldiari buruz, frankismoaren biktimen egiaren ikuspuntutik. Iragana argitzea ezinbesteko baldintza da bizikidetzatza adiskidetsua eraiki ahal izateko orain eta gero. Barruko eta nazioarteko hainbat erakunde ari dira eskatzen frankismoaren garaian giza eskubideen urratzei dagokienez gertatutakoaren egia argitzeko mekanismoak sor daitezen. Proiektu hau eskaera horri erantzuteko ekarpena da.

•**Egutegia**

• Txostena egingo duen batzordea abian jartzea	• 2015eko bigarren seihilekoan
• Txostena ematea	• 2016an zehar

## II. Justizia izateko eskubidea

•**4. proiektua.** Frankismo garaiko desagertuen eta krimenen gaineko aurkikuntzak eta ikerketak Ertzaintzari, Fiskaltzari eta auzitegiei jakinarazteko protokoloa abiaraztea

•**Deskribapena**

Desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko EAEko Planeko proiektuaren osagarria da protokolo hau. Hobiren bat irekitzen denean edo gizateriaren aurkako krimenen biktimen gorpuzkiak lurpetik ateratzen direnean, jakitun jarri behar dira Ertzaintza, Fiskaltza eta kasuan kasuko epaile edo auzitegia, eta haien aurrean egin behar da lana. Proiektu honen bitartez, Eusko Jaurlaritzak horrelako egoeretan erabili beharko duen protokoloa taxutuko da.

•**Egutegia**

• Protokoloa aurkeztea	• 2015eko lehen hiruhilekoan
------------------------	------------------------------

---

**•5. proiektua.** Justiziarako eskubidearekiko konpromisoaren arloko nazioarteko txosten eta gomen-  
dioak bultzatzea eta jarraipena egitea

**•Deskribapena**

Frankismoaren biktimezako justiziaren sustapena dela-eta Nazio Batuetako zenbait organok Espai-  
niari buruz oraintsu egindako txostenetan, Torturaren aurkako Batzordea, bortxazko eta nahitaezko  
desagertzeen aurkako Nazio Batuetako Lantaldea eta egiaren, justiziaren, erreparazioaren eta berriz  
ez gertatzeko bermeen sustapenerako errelatore berezia bat datoz Estatuko botereek bete behar di-  
tuzten gutxieneko eskakizunak zehazterakoan. Honako hauek dira:

- Amnistiari buruzko Legea ondoriorik gabe uztea krimen preskribaezinen inpunitatea ahalbide-  
tzen duen heinean.
- Bortxazko desagertzea delitu autonomo gisa tipifikatzea zigor kodean, gizateriaren aurkako kri-  
men jarraitua eta preskribaezina delako.
- Frankismoaren biktimei justizia eskuratzeko bidea ematea, legeak nazioarteko estandarrei ego-  
kituz.
- Espainiako justiziak kanpoko prozedura judizialean lagun dezala eskatzea.
- Estatu espainiarreko auzitegiek jurisdikzio unibertsala egikaritzea arautzen duten legeei berriro  
indarra ematea.

Eusko Jaurlaritzak babestu egingo ditu eskari horiek, nazioarteko erakundeekin koordinatzeko poli-  
tikari eutsiko dio eta laguntza emango die haien batzordeei, lantaldeei, errelatore bereziei eta giza  
eskubideak sustatu eta babesteko gainerako mekanismoei.

**•Egutegia**

• Nazioarteko jarraipen proiektua garatzea	• Aldi osoan zehar
--	--------------------

**•6. proiektua.** Frankismoaren krimenen aurkako 4591/10 Kereilari (Argentinakoari) babesa ematea

**•Deskribapena**

Aurreko proiektuaren ildo beretik, eta jurisdikzio unibertsalaren printzipioa defendatzea eginbehar  
etiko eta demokratikoa delakoan, Eusko Jaurlaritzak Argentinako justiziarari laguntza emateko politika  
erabiliko du Argentinako Kereila deitu zaion auzian.

**•Egutegia**

• 4591/10 Kereilarako lankidetzatza garatzea	• Aldi osoan zehar
--	--------------------

### III. Erreparazioa jasotzeko eskubidea

#### -7. proiektua. Frankismoaren biktimen aitormenerako ziurtagiria sortzea

##### •Deskribapena

Proiektu hau egin da nazioarteko gomendioak betetzeko, giza eskubideen urratze larrien biktimenzako erreparazio moralaren arloan. Proiektuaren bitartez, frankismoaren biktima bakoitzari edo haren senideei ziurtagiri bat emango zaio, berak bidegabeki jasan zuen kaltearen aitorten ofiziala dakarrena.

##### •Egutegia

• Frankismoaren biktimen banakako aitormenerako ziurtagiriaren proiektua aurkeztea	• 2015eko lehen seihilekoan.
--	------------------------------

#### -8. proiektua. Biktimen omenezko eta aitormenezko ekitaldiak sustatu eta antolatzea

##### •Deskribapena

Proiektu honen bidez zenbait helburu lortu nahi dira. Lehengo eta behin, euskal erakundeek eta herritarrek frankismoaren biktimak oroitzeko eta haiei omenaldia egiteko urteroko ekitaldi bat ezartzea. Bigarrenik, frankismoaren biktimen oroimenezko eta gorazarrezko ekitaldien urteko egutegia koordinatzen, hobetzen, osatzen eta sustatzen saiatzea.

##### •Egutegia

• Frankismoaren biktimen omenezko ekitaldiak sustatu eta koordinatzeko proposamena aurkeztea.	• 2015eko lehen seihilekoan.
---	------------------------------

#### -9. proiektua. Ikur frankistak kentzea

##### •Deskribapena

Eusko Legebiltzarrak eskaturik, Eusko Jaurlaritzak aurreko legegintzaldian eratu zuen "Euskadin ikur frankistak kentzeko Batzorde Teknikoa", bost kidek osatua. Batzorde horrek irizpen bat egin zuen 2012ko urrian. Legegintzaldi horretan Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak, Eudelekin elkarlanean, irizpen horretan azaltzen diren eskakizunak betetzeko deia helarazi die udal guztiei. Proiektuaren bitartez, 2014-16 aldiari begira, jarraipena eman nahi zaio bultzada horri, zeina, gainera, bat baitator nazioarteko erakundeek biktimenzako erreparazio moralari buruz eman dituzten gomendioekin.

##### •Egutegia

• Erakundeek ikur frankistak ken daitezen bultzatzen jarraitzea	• Aldi osoan zehar
• Kudeaketa horren ebaluazioa aurkeztea	• 2015eko bigarren seihilekoan

---

## B. Memoria Historikoaren arloan *Oroime-nerako* politika publikoen lehentasunak garatzen dituzten proiektu estrategikoak

---

### IV. Memoriarako eskubidea, berriz ez gertatzeko berme gisa

#### -10. proiektua. Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua garatzea

##### •Deskribapena

Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarraren aginduz sortuko duen erakundea da Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua. Memoriari buruz ikusmolde integrala eta integratzailea du. Giza eskubideen urratzeak direla-eta euskal gizarteak azken mendean zehar jasan dituen prozesu traumatiko guztiak hartzen ditu barruan. Besteak beste, Gerra Zibila eta Diktadura frankista. Memoriaren Institutuaren ardura izango da Eusko Jaurlaritzaren memoriari buruzko politika publikoa diseinatu eta sustatzea. Alde horretatik Institutua proiektu estrategikoa da memoria historikoaren arloan.

##### •Egutegia

• Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua abian jartzea	• 2015eko lehen seihilekoan.
• Institutuak Memoria Historikoaren arloan izango dituen ardatzen aurkezpena bultzatu eta babestea	• 2015eko bigarren seihilekoan

#### -11. proiektua. Lekukotasunak, artxiboak eta datu-baseak antolatzea

##### •Deskribapena

Frankismoaren krimenen zigorgabetasunak gizartean, politikan eta erakundeetan piztu duen kezka-aren eraginez hainbat ekimen sortu dira lekukotasunak jasotzeko eta datu-base zein artxiboak sortzeko. Horiek, ordea, guztiz zatikatuta eta sakabanatuta daude, eta ez dago haien formatuari, egiturari edo metodologiari buruzko irizpide bateraturik. Memoriaren arloko politika publikoaren lehentasunetako bat da egoera nahasi hori ordenatzen saiatzea. Horixe du helburu proiektu honek.

##### •Egutegia

• Lekukotasunak, artxiboak eta datu-baseak ordenatzeko proposamena aurkeztea	• 2015eko bigarren seihilekoan
--	--------------------------------

**-12. proiektua.** EAEko oroitzapen guneen identifikazioa eta interpretazioa bultzatu eta kudeatzea**•Deskribapena**

Bai gerran bai Diktadura frankistan zehar gertatutakoak gogoratzeko garrantzia duten guneak identifikatuko dira proiektu honen bitartez. Halaber, behar diren neurriak hartuko dira leku horiek modu egokian babesteko eta gure herriaren ondare historiko material zein ez-material gisa duten balioa agerian jartzeko.

Gertatutakoa bere ingurunean modu egokian kokatzea eta interpretatzea, gainera, tresna pedagogiko indartsua izango da. Azpimarratu egingo da giza eskubideak eta balio demokratikoak errespetatu beharra dagoela garapen sozial, kultural eta politiko egokia lortzeko.

**•Egutegia**

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehenengo identifikazio-txostena aurkeztea</li> <li>• Memoriaren ibilbideak garatu eta interpretatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2015eko lehen hiruhilekoan</li> <li>• 2016ko lehen hiruhilekoan</li> </ul>
---	---

---

# 1. eranskina

---

## Lehentasunen programa honen kudeaketa, koordinazioa, finantzaketa eta ebaluazioa

### **Kudeaketa**

- Eusko Jauriaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiko Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari dagokio Memoria Historikoaren arloa zuzendu eta koordinatzea. Memoriaren arloko politika publikoekin zerikusia duen alderdian, kudeaketa hori Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutuarekin partekatu eta koordinatuko da.

### **Koordinazioa**

- Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutuaren egitekoa izango da erakundeak elkarrekin eta Memoria Historikoaren aldeko elkarteen sarearekin koordinatzeko eta batera parte hartzeko organoa sortzea.

### **Finantzaketa**

- Lehentasunen programa honen finantzaketak bere isla izango du Eusko Jauriaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutuaren urteroko aurrekontu arruntetan.

Halaber, urtero diru-laguntzen deialdia argitaratuko da, memoria historikoaren arloan diharduten gizarte zibileko elkarteek garatzen dituzten ekimenei laguntze aldera.

### **Ebaluazioa**

- 2016ko bigarren seihilekoan kanpoko ebaluazioa eskatuko da, Memoria Historikoaren arloko Lehentasunen Oinarri Programa hau zenbateraino bete den azter dadin. Ebaluazioaren emaitzek oinarri izan behar lukete hurrengo aldirako plangintza-tresna berria taxutzeko..



---

## 2. eranskina

---

### Aurrekariak legegintzan eta erakundeen jardunean

---

#### A) Legegintzako ekintzak

---

##### Memoria Historikoari buruzko araudia Euskal Autonomia Erkidegoan

**11/1983 LEGEA**, ekainaren 22koa, Euskal Herriko Autonomia-Arduralaritzari zerbitzu egindako lanarien lanbide- eta gozamen-eskubideei buruzkoa. (1983ko 98. EHAA, uztailaren 4koa)

**8/1985 LEGEA**, urriaren 23koa, Euskal Herriko Autonomia-Arduralaritzan zerbitzu egin zuen langilegoaren lanbide- eta gozamen-eskubideei buruzko ekainaren 22ko 11/1983 Legea osatzekoa. (1985eko 241. EHAA, azaroaren 25ekoa)

**1/1986 LEGEGINTZAKO DEKRETUA**, maiatzaren 13koa, Euskal Herriko Autonomia-Administrazioan bere zerbitzuak egin zituen langilegoaren lanbide- eta gozamen-eskubideei buruzko eraberritutako idazkera onartzekoa. (1986ko 101. EHAA, maiatzaren 24koa)

**8/1994 LEGEA**, maiatzaren 27koa, euskal gizatalde eta etxeekiko harremanei buruzkoa (3.2 eta 11. artikulak). (1994ko 111. EHAA, ekainaren 13koa)

**3/2002 LEGEA**, ikastolak legez normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzkoa. (2002ko 67. EHAA, apirilaren 10ekoa)

**280/2002 DEKRETUA**, azaroaren 19koa, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzkoa. (2002ko 229. EHAA, azaroaren 29koa)

**99/2003 DEKRETUA**, maiatzaren 6koa, ikastolak legez normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzko 3/2002 Legea garatzen duena. (2003ko 89. EHAA, maiatzaren 9koa)

**22/2006 DEKRETUA**, otsailaren 14koa, askatasun-gabetzea jasandako pertsonen, Langile Soldaduen Diziiplina Batailoietan egondakoei barne, konpentsazio ekonomikoak emateko ebazpenak ezartzen dituen, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzko azaroaren 19ko 280/2002 Dekretuan araututako baldintza eta betebeharrak izan ditzaten, arau honetan aurreikusitako prozedura-aldaketak salbu. (2006ko 191. EHAA, urriaren 5ekoa)

##### Memoria Historikoaren arloko proiektuak egiteko laguntzak

- **AGINDUA, 2006ko maiatzaren 4koa**, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, memoria historikoa berreskuratzeko jarduerak eta proiektuak gauzatzeko diru-laguntzen deialdia egiten eta diru-laguntza horien oinarri arautzaileak ezartzen dituena.
- **AGINDUA, 2007ko irailaren 20koa**, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, memoria historikoa berreskuratzeko jarduerak eta proiektuak gauzatzeko diru-laguntzen deialdia egiten eta diru-laguntza horien oinarri arautzaileak ezartzen dituena.

- 
- **AGINDUA, 2008ko urtarrilaren 20koa**, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, memoria historikoa berreskuratzeko jarduerak eta proiektuak gauzatzeko diru-laguntzen deialdia egiten eta diru-laguntza horien oinarri arautzaileak ezartzen dituena.
  - **AGINDUA, 2009ko martxoaren 11koa**, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, memoria historikoa berreskuratzeko jarduerak eta proiektuak gauzatzeko diru-laguntzen deialdia egiten eta diru-laguntza horien oinarri arautzaileak ezartzen dituena.
  - **AGINDUA, 2010eko uztailaren 28koa**, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, oroimen historikoa berreskuratzeko jarduerak eta proiektuak gauzatzeko diru-laguntzen deialdia egiten eta diru-laguntza horien oinarri arautzaileak ezartzen dituena.
  - **AGINDUA, 2011ko martxoaren 22koa**, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, oroimen historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko diru-laguntzetarako deialdia egin eta diru-laguntza horien oinarri arautzaileak ezartzen dituena.
  - **AGINDUA, 2012ko martxoaren 7koa**, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, oroimen historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko diru-laguntzetarako deialdia egin, eta diru-laguntza horien oinarri arautzaileak ezartzen dituena.
  - **415/2013 DEKRETUA, irailaren 24koa**, memoria historikoaren berreskurapena, bakea, bizikidetzeta eta giza eskubideak jorratzen dituzten proiektuetarako diru-laguntzak arautzeko dena.
  - **EBAZPENA, 2013ko urriaren 1ekoa**, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko diru-laguntzetarako deialdia egiten duena.
  - **EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 21ekoa**, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko diru-laguntzetarako deialdia iragartzen duena.

## B) Ikertu eta aztertzekeo ekintzak

---

### **Artxibo Historiko-dokumentala, eta ondare historikoa berreskuratzea**

Gerra Zibilean desagertutako pertsonen hilobiak ikertu eta bilatzeko Sailen arteko Batzordea sortu zen 2002ko abenduaren 10eko Gobernu Kontseiluan. Batzorde horrek egindako lanetan eta ikerketa hori egiteko Aranzadi Zientzia Elkartearekin sinatutako hitzarmenean argi geratu da Gerra Zibilaren ondare historiko dokumentala ere berreskuratzekeo premia dagoela.

Horretarako, Euskadin Gerra Zibilari buruzko Artxibo Historiko-dokumentala sortu da, honako eremu hauetan sortutako dokumentazio guztia biltzeko:

- Gerra Zibilari buruzko Ikus-entzunezko Artxiboa.
- Gerra Zibilari buruzko Artxibo Dokumentala.
- Fusilatutako, judizioz kanpo exekutututako eta desagertutako pertsonen datu-basea.

Zehazki, gerran fusilatu, judizioz kanpo exekutatu edo desagertutakoei buruzko gaiari ekin zitzaion, giza eskubideen urraketaekin loturiko edozein esku-hartzeren zutabeetako bati erantzuna emateko asmoz; zutabe hori egia jakitea da.

Hori horrela, 1.500dik gora eskaerari erantzun zaie eta lan hauek egin behar izan dira:

- Desagertuei buruzko informazio pertsonalizatua osatzeko beharrezko alderdien ikerketa historiko eta dokumentala.
- Lekukotzak biltzea, senitartekoei bideo-grabaketak eginda.
- Hilobiak aurkitzea eta gorpuzkiak berreskuratzekeo jardun arkeologikoa.
- Gorpuzkien azterketa antropologikoa.

### **Web orri bat sortzea**

[http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-contmh2/es/contenidos/informacion/oroimen\\_historikoa/es\\_mh/presentacion.html](http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-contmh2/es/contenidos/informacion/oroimen_historikoa/es_mh/presentacion.html)

Gaur egun web orria aldatzen eta eguneratzen ari da.

### **Hobien mapa**

Euskal Autonomia Erkidegoan aurkitutako hobien mapa bat egin da. Mapa hori Eusko Jaurlaritzaren Memoria Historikoaren web orrian argitaratu da eta aldian behin eguneratzen da.

### **Biktimen lekukotasunak**

395tik gora biktimen lekukotasunak bildu eta digitalizatu dira. Horietako 12ren laburpena argitaratu da Eusko Jaurlaritzaren Memoria Historikoaren web orrian.

### **Ikurren katalogoa eta Euskadin ikur frankistak kentzeko Batzorde Teknikoaren gomendio-irizpena**

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzak *Gerra Zibila eta Diktadura goraiatzan duten Euskadiko ikur eta monumentu publikoen katalogoa* egitekeo eskatu zuen, Euskadin kontu horiek zertan ziren jakitekeo. Azterlan horrek egiaztatu zuen, bada, Euskadiko udalerrietan oraindik ageri direla era horretako ikurrak.

---

Giza Eskubideen Zuzendaritzak, ondorioz, Eusko Legebiltzarrak eskaturik (*Memoria Historikoaren Legean aipatzen den errolda egiteari buruzko 28/2011 Legez besteko Proposamenaren* bitartez), “Euskadiko Ikur Frankistak Kentzeko Batzorde Teknikoa” eratu zuen, eta batzorde horrek, katalogoa aztertu eta gero (non aztarna esanguratsuenetariko batzuk azaldu ziren), irizpena egin zuen, eta bertan gomendio sistematizatuak eman zizkien erakunde publikoei, Euskadin Diktadura frankistaren ikurrak kentzeko.

Dokumentu horiek EAEko udal guztiei bidali zaizkie, gomendioak bete ditzaten.

### **Argitalpenak eta ikerketak**

Euskadin Gerra Zibilaren nondik norakoak ikertzeko lanak eta gai berari buruzko argitalpenak sustatu dira. Hala, historialariek egindako zenbait lan argitaratu ditugu (Gerra Zibila ikertzeko iturri dokumentalak), eta elkarlanean aritu gara udako ikastaroetan Euskal Herriko Unibertsitatearekin, eta hainbat herritan egindako hitzaldi zikloetan, *“Gerra Zibila: esperientzia, oroimena eta ahanztura”* izenburupean. Era berean, telebistarako hainbat erreportaje bultzatu ditugu; besteak beste, *“Tras un largo silencio”* edo *“Memoria de la Guerra Civil en Hernani”*, eta Gernikako bonbardaketari buruzkoak, edo gerrako hurrei buruzkoak.

## C) Aitormen publikorako ekintzak

---

Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak frankismoaren biktimak aitortzeko adierazpen instituzionala egin zuen 2002ko abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean. Hortik aurrera, frankismoaren biktimen omenezko eta aitormen publikorako ekitaldi ugarietan hartu du parte Eusko Jaurlaritzak. Adierazgarriena-ko batzuk aipatuko ditugu:

### **Frankismoaren biktimen omenezko eskultura**

Bilboko Udalak frankismoaren biktimak oroitzeko lan bat eskatu zion Nestor Basterretxea eskultoreari. Ar-telana Bilboko Doña Casilda parkean kokatua dago eta frankismoaren aurka eta askatasunaren, demokra-ziaren eta Errepublikako legezkotasunaren alde borrokatzeagatik zapalkuntza jasan zuten pertsona guztiei gorazarre egin nahi zaie.

Bilboko Udalak zenbait omenaldi antolatu ditu oroitzapen gune horretan, eta Eusko Jaurlaritzak ekitaldi horietan parte hartu du.

### **Apirilaren 26a: Gernikako bonbardaketaren urteurrena**

2007ko apirilaren 26an Gernikako bonbardaketaren 70. urteurrena izan zen. Eusko Jaurlaritzak urtean zehar berriazko egintzak antolatu zituen, tartean bakearen aldeko ekitaldi nagusi bat Gernikako Batzar Etxean. Nazioarteko pertsona ospetsu asko bildu ziren bertan.

2012an zehar, bonbardaketaren 75. urteurrenean, gorazarre egiteko ekitaldi ugari egin ziren bake kultu-raren eta giza eskubideen aldeko egintza desberdinekin batera.

Halaber, urtero Eusko Jaurlaritzak parte hartzen du bonbardaketaren urteurrenean eta orduko biktimei egiten zaien omenaldian.

### **Gudarien monumentua Artxanda mendian**

Tropa frankistek Bilbo hartu zutenaren 70. urteurrenean, Gerra Zibileko soldaduen oroimenez Artxanda mendian eskultura bat jarri zen, ekitaldian Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria buru zela.

Urtero gudarien oroimen eta gorazarrezko ekitaldia egiten da ekainean.

### **Turtziozko Manifestua**

1937ko ekainaren amaiera aldera, Agirre Lehendakariak erbesteratu aurreko azken Gobernu Kontsei-lua egin zuen Turtziozen. Orduan egin zuen "Turtziozko Manifestu" ospetsua. Bada, Eusko Jaurlaritzaren exodoa eragin zuen Gerra Zibilaren hasieratik 70 urte bete zirenean Gobernu Kontseilu berezia egin zen Bizkaiko Turtzioz herrian.

### **Intxortako monolitoa (Elgetako gudua)**

Euskal gudarosteak lortu zuen sei hilabetez eustea Francoren armadaren Bizkaiaren kontrako erasoari, Intxortako gainetan, Elgetatik hurbil. Ekintza heroiko horri esker Bilboren defentsa prestatu ahal izan zen, eta Eusko Jaurlaritzaren jarduna garatu.

Aurrez aurreko lehenengo erasoaldia 1936ko urriaren 4an hasi zen, Euskadiko lehen Estatutua onartu eta handik 3 egunera. Estatutu horri Elgetakoa ere deitzen zaio, balentria hura gogoan. Gudua 1937ko apirila-ren 24an amaitu zen

---

Bidasoa Elkarateak 1980an jarritako monumentu txikia zaharberritu egin da, ingurune ludiko eta historikoa berreskuratuz, eta geroago monumentua jarri da.

### **Lehenengo Eusko Jaurlaritza eratu zeneko 70. urteurrena**

2006ko urriaren 7an ospatu zen lehenengo Eusko Jaurlaritzaren eraketaren 70. urteurrena. Jose Antonio Agirre buru zutela, indar eta sentsibilitate politiko guztiak batu ziren gobernu hartan.

Urteurren hori zela eta, Gobernu Kontseilu berezia egin zen Gernikan.

Egun horretan suertatzen diren gobernu kontseiluak normalean Gernikako Batzar Etxean egiten dira.

### **Donostiako biktimen oroimenezko eskultura**

2014ko maiatzaren 31n Donostiako Udalak omenaldia egin zien frankismoak hirian utzi zituen 377 biktimei, eta haien oroimenezko monumentua inauguratu zuen.

Eusko Jaurlaritza udalkideen eta biktimen ondoan egon zen eta berak ere omenaldia egin zien.

### **Elgoibar**

2014ko irailaren 21ean, Eusko Jaurlaritzak, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela, omenaldia egin zien bihotz-bihotzez gudariei eta haien senideei. Ekitaldian bereziki gogoratu ziren gudari boluntarioen bi talde, Mola jeneralaren soldaduei bidea itxi zietenak Zirardamendin, 1936ko irailaren 25ean. Ekintza horri esker eratu ahal izan zen lehenengo Eusko Jaurlaritza, Agirre Lehendakaria buru, urte bereko urriaren 7an.







---

## 6. dokumentua

---

2015-2020 aldirako EAEko Plana,  
**hobien kokapena ikertzekoa**, Gerra  
Zibilean desagertutako pertsonak  
bilatu eta identifikatzeko

---





---

2015-2020 aldirako EAEko  
Plana, **hobien kokapena  
ikertzekoa**, Gerra Zibilean  
desagertutako pertsonak bilatu  
eta identifikatzeko

---

**2015eko iraila**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



**ARANZADI** zientzia elkarte  
sociedad de ciencias · society of sciences · société de sciences



## **Aurkibidea**

---

Sarrera.

---

Lehen zatia.

---

- 1. Aurrekariak.**
  - 2. Hobien egungo kokapena.**
  - 3. 2015-20 aldirako lan-plangintza.**
- 

Bigarren zatia.

---

**Sarrera.**

- 1. Gorpuak hobitik ateratzeko prozesuaren faseak.**
    - 1.1. Hobiak irekitzeko proposamena.
    - 1.2. Aurretiazko txostena.
    - 1.3. Gorpua(k) hobitik ateratzea.
  - 2. Prozesua kudeatzea.**
  - 3. Eragile juridikoei komunikatzea.**
  - 4. Memoria Historikoaren Legetik eratorritako protokoloa.**
  - 5. Orain arte egindako lanaren emaitzen adibide batzuk.**
- 

I. Eranskina.

---

---

## Sarrera

---

Eusko Jaurlaritzak 2013ko azaroaren 26an onetsi zuen 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzeta Plana. Dagokion jarduera-esparruan, I. ekimenak ezartzen du Memoria Historikoaren alorreko ekintzen plangintza eta antolaketa bat egin eta aurkeztu behar dela 2014an barrena. Konpromiso horri helduta, lehendakariak Memoria Historikoaren alorreko lehentasunen oinarri-programa aurkeztu zuen 2014ko azaroaren 4an.

Hala, Jarduera Orokorreko Planari buruzko atalean, 2015-2016 aldian gauzatutako proiektuak deskribatzen ditu. 1. proiektua da desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko EAEko plana sortu eta garatzea. 4. proiektua, lehenarekin zuzeneko lotura duena, Ertzaintza, fiskaltza eta epaitegiak aurkikuntzen eta ikerketen gainean jakitun jartzeko protokoloa da.

Aurkeztu berri den dokumentuak, «Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko hobien kokapena ikertzera bideratutako euskal plana» izenekoak, aurreko bi proiektuak bateratzen ditu.

### **Lehen konpromisoa**

Desagertutako pertsonak bilatzeko eta identifikatzeko konpromisoa ezartzen du Memoria Historikoaren alorreko lehentasunen oinarri-programako 1. proiektuak. Egia jakiteko eskubidea betetzeari lotuta dago, eta hauxe du lehentasuna: ahal beste argitzea desagertutako pertsonen aferak.

Estatu espainiarrari berariaz, esplizituki eta presaz egindako gomendio batzuen parte da lehentasun hori. Gomendio horien egileak dira, batetik, bortxazko edo nahitaezko desagertzei buruzko Nazio Batuen Lantalea eta horren errelatore berezia, eta bestetik, egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermeak sustatzeko errelatore berezia.

Giza eskubideak babesteko Nazio Batuen mekanismoak bat datoz alor honetan: gogorarazten dute herri-administrazioak behartuta daudela desagerrarazitako pertsonak bilatzera eta gertatutakoa argitzera, baita tartean salaketa formalik ez badago ere. Era berean, azpimarratzen dute senideek eskubidea dutela maite dituzten pertsonen gertatutakoari buruzko egia jakiteko.

Eusko Jaurlaritzaren iritziz horretan datza frankismoaren biktimek egia jakiteko duten eskubidea, eta hori da gorpuak hobietatik ateratzeko euskal planaren sakoneko asmoa. Nagusiki, gizalegea eta biktimekiko elkartasuna daude oinarrian, kasu honetan, desagertutako pertsonen senideekikoa, egia jakiteko duten eskubidea dela kausa. Inguruabar horretan, ezinbestekoa da bizkor jardutea, adinean sartuta baitaude desagertutako pertsonen senideak eta Gerra Zibilean zein diktaduran gertatutako desagertzeen lekukoak.

Agiri honen lehen zatia desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko konpromisoaren ondorio da. Hiru atal bereizi dira: aurrekariak, hobien egungo kokapena eta 2015-2020 aldirako lan-programa.

Aurrekariaren artean dago Eusko Jaurlaritzak Aranzadi Zientzia Elkartearekin 2003tik sinatutako elkarlan-hitzarmena. Hitzarmen horrek hainbat helburu ditu. Batetik, egoera horren eraginpean diren pertsonen informazio-eskaerei erantzutea; bestetik, desagertutako pertsonen gorpuzkiak aurkitu, berreskuratu eta identifikatzea; eta azkenik, hobien mapa eguneratzea, eta bildutako informazio guztia gorde eta sistematizatzea.

2015-2020 lan-planaren oinarrian hitzarmen honen edukia eta hitzarmena garatzen pilatutako esperientzia daude. Dokumentu bakarrean sartuko dira bortxazko desagertzeen eta judizioz kanpoko exekuzioen biktimen beharrezko erantzuteko bultzatu behar diren ekintza guztiak, Nazio Batuen berriazko gomendioei jarraituz.

### **Bigarren konpromisoa**

Memoria Historikoaren lehentasunen oinarri-programako 4. proiektua barnean hartzen du bigarren konpromisoak. Jarduera-protokolo bat zehaztu eta ezarri nahi da, aurkikuntzak eta ikerketak eragile polizial eta juridikoei jakinaraztea barne hartuko duena. Konpromiso horren emaitza dokumentu honen bigarren zatian dago, hala nola I. eranskinean.

Plan horren bigarren zatian dago jasota euskal autonomia-erkidegoan hobiak irekitzeko jarduera-prozedura. I. eranskinean dago jasota hobiak irekitzeko jarduera-protokoloa, abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoa betez egin dena.

Bi erreferentzia horiek gidatzen dute jarduera-metodologia Euskadin. Hobiak irekitzen dituzten taldeei gutxienezko estandarrak eskaintzen dizkiete, eta, era horretan, egia bilatzeaz gain, prozedura baliozkoa izatea bermatzen dute, balizko izapide judizialei begira.

Hobiak irekitzeko protokolo bat ezartzeko konpromisoa, frankismoaren biktimek justizia izateko eskubidearen garapenarekin bat dator kasu honetan. Horrenbestez, eskubide horri lotuta, erakunde publikoen betebeharra da ikertzea, gertatutakoa argitu dadin sustatzeko, giza eskubideen urratzei eta horien ondoriozko erantzukizunei dagokienez.

Biktimek justiziarako duten eskubidea sustatzeko beharrezkoak diren jarduketak egitea batez ere botere judizialari dagokio, eta, beraz, Eusko Jaurlaritzaren eskumenetik kanpo dago. Botere publikoen eginbehera da, ordea, gizateriaren aurkakoak izateagatik preskribaezinak diren krimenak ikertzea, eta halakoak dira desagertze masiboak. Eusko Jaurlaritzari dagokio frankismoaren krimenekin zerikusia duen edozein ikerketa auzitegien esku jartzea. Gainera, horixe egiteko eskatu dute berriaz giza eskubideen babeserako nazioarteko erakunde nagusiek.





## Lehen zatia

---

Hobien kokapena ikertzeko Euskal Autonomia  
Erkidegoan

---

---

# Lehen zatia

---

## 1. Aurrekariak

---

Euskal Autonomia Erkidegoan, Zaldibian erabili zen aurrenekoz hobi bat irekitzeko metodologia zientifikoa, 2002ko irailean, Udalak hala eskatuta, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Presidentearen babes instituzionalarekin.

Bestalde, urte horretan bertan, Arrasateko Udalak igorritako idazki batean, Aranzadi Zientzia Elkarteak esku hartzea eskatzen zen, Kurtzetxikiko leizera botatuko gorpuzkiak ikertzeko. Aldi horretan, plana jakinarazi zitzaion Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduari eta Arrasateko ertzain-etxeari.

Nolanahi ere, ezin da bazterrean utzi senide batzuek Francisco Franco diktadorea 1975ean hil ostean gorpuzkiak hobi komunetatik berreskuratzeko egindako ahalegina. Aipatutako dataren ostean, hobiak ireki ziren Azazeta, Antzuola, Elgoibar eta Oiartzunen, baita leku gehiagotan ere, baina horien gaineko informazio oso gutxi dago.

Jarduera horiek Memoria Historikoarekiko interesa gero eta handiagoko garai berri bat abiarazi zuten, frankismoaren biktimen memoria-eskubideak eta, egia ezagutzeko, gertatutakoa ikertzeko premiak bultzatuta.

Egoera horretan, Juan José Ibarretxe lehendakariak 2002ko abenduaren 10ean egindako adierazpenaren bitartez, Memoria Historikoa berreskuratzeko politika aktibo bat martxan jarri zuen Eusko Jurlaritzak. 2003an, Aranzadi Zientzia Elkartearen esku-hartze adituari esker, Eusko Jurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzak martxan jarri zuen Gerra Zibilean errepresaliatutako, fusilatutako eta desagertutako pertsonen gaineko ikerketa-plana.



Artxiboen ikerketa

Ordutik, 1.500 senideren eskabide baino gehiago hartu ditu. Horretarako, salatutako gertakaria egiaztatu dezakeen dokumentazioa bilatu da hainbat fitxategitan. Azken urteotan, 175etik gora erakunde kontsultatu dira, tartean, fitxategiak, erregistroak eta Espainiako hainbat ministeriotako dokumentazio-zentroak.

Horretaz gain, senideen eta protagonisten 500 lekukotza baino gehiago grabatu dira bideoan; gertakari horien gaineko ahozko memoriaren oinarria dira.

Halaber, lan horri guztiari esker, Euskadiko Hobien Mapa osatu zen. Informazio zehatza eskaintzen du berrogeita hamarretik gora hobiren kokaguneari buruz.

Aldi berean, hainbat txosten tekniko egin dira hobi komunen kokaguneei buruz. Horietako batzuk ireki dira. Zerrenda hau hobien mapan sartuko da, horien guztien berriazko txosten teknikoekin batera.

Aurretiazko txostenen, esku-hartzeen txostenen eta emaitzen txostenen bidez egiaztatuta dago hobien mapa, eta maiz eguneratzen da.

## 2. Hobien egungo kokapena

Dokumentu bidez frogatutako lurperatzeen zerrenda honakoa da:

### Gerra Zibileko hobien kokapena (EAE)

ARABA			
Kokapena	Aurretiatzko txostena	Esku-hartzea	Oharrak
Untza	2003-03-02		1 hobi (zenbat pertsona?)
Kuartango	2003-03-05 2004-01-12		2 hobi
La Tejera (Erriberagoitia)	2004-01-12	2010-06-19	1 hobi (3 pertsona)
Amurrio (hilerria)	2004-05-24		
Gesaltza-Añana	2004-09-21		
Maeztu	2004-04-28		1 hobi (1 pertsona)
Azazeta	2004-01-12		1 hobi (hustuta, 13 pertsona)
Etxaguen eta Murua	2005-06-02	2013-04-01	2 hobi
Guardia (hilerria)	2005-08-04		3 pertsona
Legutio (hilerria)	04-08-2005		
Zestafe	07-09-2005		1 hobi (1 pertsona)
Luko	02-12-2008		1
Lantarón	2012-03-14		1 hobi (zenbait pertsona)
Araia (hilerria)	2012-06-14		1 hobi (3 pertsona)
Aprikano (hilerria)	2012-06-22		1 hobi (1 pertsona)
Legutio	2013-04-24	2013-07-14	1 hobi
Bóveda (Horca mendia)	2013-09-20	2014-09-28	1 hobi (2 pertsona)
Armiñón	2014-07-10	1967	7 pertsona
Gopegi	2014-09-15		1 hobi (5 pertsona?)
Zambrana (hilerria)	2014-11-28		

**BIZKAIA**

	<b>Kokapena</b>	<b>Aurretiako txostena</b>	<b>Esku-hartzea</b>	<b>Oharrak</b>
	Muxika	2002-11-16	2014-07-12	
	Galdakao	2003-06-01		
	Zornotza (hilerria)	2003-11-21		Hobi komuna hilerrian
	Arrieta	2004-02-24	2004-04-28	5 hobi
	Burgüeño	2004-04-03		4 hobi (4 pertsona)
	El Haya (Kantabria)	2004-04-03		Batzuk?
	Otxandio (hilerria)	2004-06-04		
	Sabigain	2004-07-01		1 hobi (1 pertsona)
	Talledo (Kantabria)	2004-06-28	2005-09-01	1 hobi (2 pertsona)
	Morga (hilerria)	2004-08-29		
	Turtzioz (hilerria)	2004-11-22		
	Elorrio	2005-07-15		1 hobi
	Gernika (hilerria)	2008-05-13		
	Zornotza (Ganzabal mendia)	2008-05-08	2008-07-26	1 hobi (1 pertsona)
	Alcedo auzoa (Sopuerta)	2011-06-05	2012-07-06	1 hobi (3 pertsona)
	Lemoatx (Lemoa)	2011-06-08	2011-06-11	1 hobi (1 pertsona)
	Urduña (hilerria)	2012-01-17	2014-08-30	
	Lemoa (Luminabaso)	2012-02-12	2013-07-11	1 hobi (2 pertsona)
	Bilbo (Abril eta Ganguren mendiak)	2012-05-11		2 hobi
	Zamudio	2012-05-29		1 hobi (1 pertsona)
	Sallortun auzoa (Galdames)	2012-09-07	2013-10-25	2 hobi (zenbat pertsona?)
	Altamira auzoa (Galdakao)	2012-10-14		1 hobi (1 pertsona)
	Euba auzoa (Zornotza)	2012-10-16		1 hobi (1 pertsona)
	Kortezubi	2013-05-08	2014-10-24	1 hobi (1 pertsona)
	Barrutia auzoa (Kortezubi)	2013-07-26		1 hobi (1 pertsona)
	Montellano auzoa (Galdames)	2013-11-01		1 hobi (1 pertsona)
	Ergoien auzoa (Galdakao)	2013-11-07		1 hobi (1 pertsona)
	Pardomendi (Lemoa)	2014-08-24	2014-10-25	1 hobi (1 pertsona)

<b>GIPUZKOA</b>			
<b>Kokapena</b>	<b>Aurretiatzko txostena</b>	<b>Esku-hartzea</b>	<b>Oharrak</b>
Zaldibia		2002-09-09	2 pertsona
Bedoña (Arrasate)		2002-10-06	2 pertsona
Hernani	2002-09-20	2003-03-17	2 hobi
Elgoibar	2002-11-09	2012-06-16	7 hobi (14 pertsona)
Aretxabaleta	2002-10-09		1 hobi (4 pertsona)
Deskarga (Antzuola)	2003-02-01	2011-03-01	1 hobi (?)
Ametzagaina (Donostia)	2003-02-22	2003-10-31	1 hobi (hustuta)
Usurbil	2003-03-27		1 hobi (?)
Ulia (Donostia)	2003-04-07		1 hobi (?)
Andoain	2003-04-20	2003-12-15	4 hobi (1 pertsona)
Tolosa	2003-05-11		2 hobi (2-6 pertsona)
Etzegarate (Idiazabal)	2003-10-27		1 hobi (1 pertsona)
Zumarraga	2004-02-20		1 hobi (2 pertsona?)
Madariaga (Azkoitia)	2004-03-27	2007-12-22	1 hobi (3 pertsona)
Intxorta (Bergara)	2004-04-04	2004-06-28	1 hobi (3 pertsona)
Elgeta	2004-04-04	2004-06-28	2 hobi (6 pertsona)
Mutriku	2004-09-11	2004-10-12	1 hobi (1 pertsona)
Pikoketa	2004-11-07		1 hobi (hustuta?)
Aldaba Txiki auzoa (Tolosa)	2004-11-23		1 hobi (2 pertsona)
Montezkue (Tolosa)	2004-12-08		1 hobi (1 pertsona)
Urrestilla (Azpeitia)	2004-12-14	06-11-2014	1 hobi (3 pertsona)
Behobia	2005-02-20	27-06-2005	1 hobi (hustuta?)
Saturraran auzoa (Mutriku)	2005-05-19	17-10-2013	1 hobi (2 edo 3 pertsona)
Aia (Ataun)	2006-03-07		7 pertsona
Deba	2006ko uztaila		3 hobi (3 pertsona)
Oiartzun (Iragorri)	2004-09-20	2007-08-27/29	1 hobi (5 pertsona)
Burdin Zubia (Donostia)		2009-06-30 2009-06-03	2 hobi (7 pertsona)
Deskarga Alde II (Antzuola)	2011-03-09	2011-03-21	1 hobi (1 pertsona)
Asteasu (hilerria)	2011-03-14	2011-09-03	1 hobi (2 pertsona)
Aristi baserria (Antzuola)	2013-05-03		1 hobi (3 pertsona?)
Elgoibar (Belartondo baserria)	2013-09-19	2014-10-20	1 hobi (1 pertsona)
Arrate (Eibar)	2014-09-18		1 hobi (2 pertsona)

Gauzatutako esku-hartzeetan giza gorpuzkiak aurkitu eta aztertu dira, eta, kasu batzuetan, senideei itzuli, identifikatzeko eta heriotzaren arrazoia interpretatzeko prozesua amaitu ondoren.

## 2002az geroztik irekitako Gerra Zibileko hobiak

Udalerrria	Tokia	Sustatzailea	Zuzendaritza	Gorpuzki kopurua	Gorpuzkien egoera
<b>2002 urtea</b>					
Zaldibia Gipuzkoa	Matazal	Udala eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Jesus Tapia	2	EHUko Medikuntza Fakultateko Laborategia, Donostia
Arrasate Gipuzkoa	Kurtzetxikiko leizea	Udala eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Francisco Etxeberria	2	EHUko Medikuntza Fakultateko Laborategia, Donostia
<b>2003 urtea</b>					
Andoain Gipuzkoa	Asu baserria	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Francisco Etxeberria	1	EHUko Medikuntza Fakultateko Laborategia, Donostia
<b>2004 urtea</b>					
Elgeta Gipuzkoa	Sagasti mendia	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Jesus Tapia eta Jimi Jimenez	3	EHUko Medikuntza Fakultateko Laborategia, Donostia
Elgeta Gipuzkoa	Ansuategi baserria	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Jesus Tapia eta Jimi Jimenez	6	EHUko Medikuntza Fakultateko Laborategia, Donostia
Sabigain	Mendia	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Alfredo Irusta	1	EHUko Medikuntza Fakultateko Laborategia, Donostia
Mutriku (Gipuzkoa)	Zabale baserria	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Lourdes Herrasti	1	EHUko Medikuntza Fakultateko Laborategia, Donostia
<b>2007 urtea</b>					
Oiartzun Gipuzkoa	Iragorri	Udala, Katin Txiki eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Lourdes Herrasti	5	Hilerrian hobiratuak
Madariaga Gipuzkoa	Azkoitia	Elgoibar 1936 eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Lourdes Herrasti	1	EHUko Medikuntza Fakultateko Laborategia, Donostia
<b>2008 urtea</b>					
Zornotza Bizkaia	Ganzabal mendia	Senideak, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Jimi Jiménez	1	Senideei entregatu zaizkie
<b>2009 urtea</b>					
Donostia Gipuzkoa	Burdin Zubia	Donostiako instrukzio epaitegia	Luis Querejeta eta Fco. Etxeberria	7	2, senideei entregatu zaizkie

Udalerrria	Tokia	Sustatzailea	Zuzendaritza	Gorpuzki kopurua	Gorpuzkien egoera
<b>2010 urtea</b>					
Erriberagoitia Araba	La Tejera	Ahaztuak 1936, Eusko Jauriaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Jimi Jiménez eta Lourdes Herrasti	3	Senideei entregatu zaizkie
<b>2011 urtea</b>					
Lemoatx Bizkaia		Eusko Jauriaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Jimi Jiménez	1	EHUko Medikuntza Fakultateko Laborategia, Donostia
<b>2012 urtea</b>					
Elgoibar Gipuzkoa	Ziardamendi	Elgoibar 1936, Eusko Jauriaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	L. Herrasti	4	2, senideei entregatzeko daude
<b>2013 urtea</b>					
Etxaguen Araba	Elizari atxikitako eraikina	Etxagueneko udala, Eusko Jauriaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Jimi Jiménez	10	Udalari entregatu zaizkie, hilerrian hobiratzeko
Legutio Araba	Txabolapeko pinudia	Eusko Jauriaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Jimi Jiménez	1	EHUko Medikuntza Fakultateko Laborategia, Donostia
Amasa Gipuzkoa	Hilerria	Aritza Kultur Elkarte, Udala eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Lourdes Herrasti	6	Udalari entregatu zaizkie, eta hilerrian hobiratu
Lemoa Bizkaia	Luminabaso	Eusko Jauriaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Jimi Jiménez	1	EHUko Medikuntza Fakultateko Laborategia, Donostia
Urbasa	El Raso leizea	Nafarroako fusilatuen senideen elkarte	Lourdes Herrasti	10	Senideei entregatu zaizkie (hietetako bat, gipuzkoarra)
<b>2014 urtea</b>					
Urduña Bizkaia	Hilerria	Eusko Jauriaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Jimi Jiménez	14	Udalari entregatzea aurreikusita dago
Bóveda Araba	La Horca gaina	Eusko Jauriaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Jimi Jiménez	2	1, senideei entregatu zaio
Lemoatx Bizkaia	Lemoaitz mendia	Eusko Jauriaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte	Lourdes Herrasti	1	Senideei entregatu zaio

Aurreko zerrendakoez gain, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo (Nafarroa, Burgos, Kantabria, etab.) lurperatutako euskal herritarren gorpuzkiak berreskuratutako ditugu urte hauetan. Oro har, senideei entregatu zaizkie gorpuzkiok, hauek izan ezik:

Castro Urdiales Kantabria	Talledoko hilerria	Héroos por la República elkartea	Lourdes Herrasti	2	EHUko Medikuntza Fakultateko Laborategia, Donostia
Berriobeiti Nafarroa	Ezkaba	Txinparta	Jimi Jiménez	1	Senideei entregatu zaizkie

Bestalde, emaitza positiborik izan ez duten prospekzio asko egin ditugu, hala Euskal Autonomia Erkidegoan, nola Estatuko hainbat lekutan, euskal herritarren gorpuzkien bila.

### 3. 2015-2020 aldirako lan-plangintza

Egindako ibilbideari jarraipena emateko, oraingo lehentasuna plan ordenatu bat ezartzea da, lurperatzeak egin omen ziren hainbat inguru aztertze. Horretarako, ezinbestekoa da prospekzioa, dokumentuak aztertearekin eta lekukotzak biltzearekin osatzen dena.

Ondorengo koadroan zerrendatu dira, gorpuzkiak aurkitzeko aukera gehiago dagoen gunetik aukera gutxiagokora, esku hartu beharreko lekuak. Hobiak irekitzearen arloko datozen urteetarako lan-plana ageri da eskema honetan. Prospekzioen emaitzek zehazten dute egin beharreko jarduerak zein diren, dokumentu honen bigarren zatian eta I. eranskinean jasotako metodologiari jarraikiz egingo direnak.

#### Ikerketa-fasean dauden Gerra Zibileko hobiak 2015

ARABA		
Kokapena	Jarduteko lehentasuna	Biktima kopurua eta mota
Untza	Handia	Hainbat gudulari eta zibil ezagun eta ezezagun
Abornikano	Handia	Hainbat ezezagun eta ezagun
Gopegi (Los Roturos)	Handia	Bost gudulari ezezagun
Aprikano (hilerria)	Ertaina	Zibil ezezagun bat
Sendadiano	Txikia	Bi zibil ezezagun
Zanbrana		Aztertzen
Aramaio (Arangio mendia)		Aztertzen
Aramaio (Albinako urtegia)		Aztertzen
Aramaio (Kruzeta)		Aztertzen
Abornikano		Aztertzen



**BIZKAIA**

Kokapena	Jarduteko lehenetasuna	Biktima kopurua eta mota
Mendata	Handia	Gudulari ezagun 1
Fika (Uspetza)	Handia	? Zenbait gudulari ezezagun
Arrieta	Txikia	? Zenbait gudulari ezezagun kokagune desberdinetan
Zamudio (Argiñena)	BAI	Gudulari ezezagun bat
Gadakao (Altamira)	Txikia	Hainbat gudulari ezezagun
Zornotza (Euba)	Txikia	Gudulari ezezagun bat
Kortezubi (Enderika)	Txikia	Gudulari ezezagun bat
Mendata		Aztertzen
Etxebarria (Urkarregi)		Aztertzen
Fika		Aztertzen
Dima		Aztertzen

**GIPUZKOA**

Kokapena	Jarduteko lehenetasuna	Biktima kopurua eta mota
Eibar (Arrate)	Handia	Bi gudulari ezagun
Ibarra (Izaskun)	Handia	Ezezagun bat
Donostia (Ulia)	Ertaina	Hainbat zibil ezezagun
Tolosa (Montezkue)	Ertaina	Ezezagun bat
Zumarraga (Beloki)	Txikia	Bi gudulari ezezagun
Deba	Txikia	Ezezaguna
Saturraran		Aztertzen

Metatutako esperientziak erakusten du litekeena dela prospekzio-esparru berriak sortzea koadro honetan jasotakoez gain, lekukotza berrien ekarpenei esker. Jakina, kasu horiek ere plan honen barnean ikertuko dira.

Halaber, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak senideen eskakizunak izapidetzen jarraituko du, egon litezkeen agiri-frogetan oinarritutako txostenak eginez.

Eusko Jaurlaritzak biktimen eskubideekiko duen konpromisoaren eta arduraren erakusle da hori guztia. Konpromiso eta ardura horiek ekintza jakin batzuetan gauzatzen dira: hobiak irekitzeko prozesuan aurrera egitea, desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko.



Testigantzen bilketa



## Bigarren zatia

---

Euskal Autonomia Erkidegoan  
hobiak irekitzeko  
jarduera-prozedura

---

---

## Sarrera

---

Aranzadi Zientzia Elkartearekin egindako hitzarmenaren esparruan, eta hobiak irekitzeko metodo eta protokolo egokia ezartzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak Sailarteko Batzorde bat sortu zuen, hobiak irekitzea sustatzeaz arduratzeko. Horretarako, hainbat irizpide orokor ezarri zituen, urte horietan guztietan metatutako esperientzia gehituta, eta halaxe osatu da Euskadin hobiak irekitzeko jarduera-prozedura. Hain zuzen, prozedura hori hartu beharko da kontuan jarduera guztietan.



Lekukotzak

Labur azalduta, hona hemen egin beharreko jarduerak:

- a) Lekukotzak bideoan grabatzea.
- b) Dokumentazioa bilatzea fitxategietan (dokumentuak eskaneatzea).
- c) Prospekzio arkeologikoak.
- d) Hobiak irekitzea.
- e) Gorpuzkiak laborategian aztertzea (nortasuna zehaztea eta heriotza-kausa interpretatzea).

Jarduera horiek hobiak irekitzeko prozesuaren barnean daude. Prozesuak hiru fase ditu.

## 1. Gorpuk hobotik ateratzeko prozesuaren faseak

Labur esanda, hobiak irekitzeko prozesuan hiru mugarri hartu behar dira kontuan:

- a) Hobia irekitzeko proposamena, eskabidea egiten dutenen hobia irekitzeko legezko interesaren erakusle.
- b) Aurretiazko txosten teknikoa egitea.
- c) Hobiak irekitzeko prozesua eta gorpuzkiak aztertzea.

### 1.1. Hobiak irekitzeko proposamena

Hobiak irekitzeko ezinbestekoa da eskabidea egin dutenek legezko interesa izatea. Legezko interesa aitortzen zaie biktimen senideei, baita Memoria Historikoa berreskuratzeko xedea duten irabazi asmorik gabeko elkarteei ere.

Era berean, hobia dagoen eremuko toki-erakundeek ere legezko interesa izan dezakete. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari ere interesa aitortuko zaio, egiaren bilaketan eta biktimen eskubi-deen betearazpenean erantzukizunez jokatzeko betekizuna duenez.

Hobiak irekitzeko eskabideek, ahal den neurrian, modu argian adierazi behar dute hobiak egon daitezkeen biktimen senideen edo hurbilekoen nahia. Baldintza hori beteko ez balitz, kasu horri loturiko balizko dokumentazio historikoaren edota lor daitezkeen lekukotzen arabera aztertuko da eskabidea.

### 1.2. Aurretiazko txostena

Aurretiazko txostena teknikoa izan behar da; kasuaren aurrekariak, informazio historikoa, kasuaren berri izan dezaketenen lekukotzak, hobiaren kokagunea, hobia irekitzeko proiektuaren bideragarritasuna eta horretarako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak.

### 1.3. Gorpua(k) hobitik ateratzea

Hobiak irekitzean, nazioartean onartutako protokolo zientifikoak bete beharko dira, langile kualifikatu-entuen eskutik, eta honakoa bermatuko da:

- a) Lana ondo egitea.
- b) Lortutako ebidentzia guztien zaintza-kate egokia.
- c) Printzipio etikoak aplikatzea biktimei eta senideei dagokien guztian.
- d) Laborategira eroatea, analisiak egiteko.
- e) Hobia irekitzeari buruzko txosten teknikoa, argazkiak eta bideoak erantsita. Kasuari buruzko interes historikoko dokumentazio ezaguna erantsiko da txostenaren osagarri gisa, hala nola senideen zein bestelakoen lekukotzak.

Ondoren, agiri tekniko hori gorpuzkien analisiaren txostenarekin osatuko da, gorpua identifikatu eta heriotza-kausak zehazteko. Hori guztia arloan espezializatutako laborategietan egingo da.



Gorpuak hobitik ateratzen - Elgeta

## 2. Prozesua kudeatzea

Aurreko puntuan adierazitako prozesuan kudeaketari buruzko hainbat alderdi garrantzitsu hartu behar dira kontuan. Nagusiki, baimenak, izapideak eta familiekiko harremana.

Hobiak irekitzeko baimenak izapidetzean, kontuan hartu behar dira hobia irekitzeko proposamena eta aurretiazko txostena. Horiek hobiak irekitzeko eskabideari atxiki beharko zaizkio.

Eskabide horiek arloan eskumena duten agintariei ezagutaraziko zaizkie; Fiskaltza, Ertzaintza, Udala, Foru Aldundien Ondare Zerbitzua eta Osasun Saila (hilerrietan ireki beharreko hobien kasuan). Esku-hartzea programatuta dagoen data adieraziko zaie.

Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak gidari-lanak egingo ditu prozesua abiaraztea eskatu dutenentzat, bere baliabideekin ekimena bultzatuz.

Osatutako informazioa familiei emango zaie, behar bezalako ezagutza izan dezaten. Halaber, kopia bat entregatuko zaio euskarri informatikoan Gogora Memoria, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Institutuari, fitxategian gorde dezan.

Berreskuratutako gorpuzkiekin zer egin, identifikatuta dauden kasuetan, senideek erabakiko dute. Halaber, beraien esku egongo da *oroitzapen-ekintzak eta omenaldiak egiteko moduaren* gaineko erabakia. Horretarako, administrazio publiko eskudunen laguntza izango dute.

### 3. Eragile juridikoei komunikatzea

Hobiren bat irekitzen denean edo gizateriaren aurkako krimenen biktimen gorpuzkiak lurpetik ateratzen direnean, jakinaren gainean jarri behar dira Ertzaintza, Fiskaltza eta kasuan kasuko epaile edo auzitegia.


Zehazki, prospekzio batek emaitza positiboa eman bezain laster, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria idatzizko jakinarazpena igorriko dio Euskadiko Justizia Fiskal Nagusiari, dagokion ondorioetarako, hobia irekiko den eguna eta ordua adieraziz.

Aranzadi Zientzia Elkarteak horren berri emango die Ertzaintzari eta instrukzio-epaitegi eskudunari. Hala-ber, dagokion lurraldeko Foru Aldundia ere jakinaren gainean jarri beharko da.

Ekintza guztiak koordinatuko dituzte Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak, Aranzadi Zientzia Elkarteak eta hobia aurkitu den lekuko Udalak. Betiere kontuan hartuko dira Memoria Historikoko elkarteak, batez ere hobia dagoen tokiko elkarteak.

Ateratako gorpuaren nortasunari buruzko zantzu nahikoak daudenean, arreta handia eskainiko zaio senideei informazioa bidaltzeari. Senideek parte-hartze aktiboa izango dute prozesuan, hala nahi izanez gero.

#### Hobiak irekitzeko lantaldearen eskema.



## 4. Memoria Historikoaren Legetik eratorritako protokoloa

Memoria Historikoari buruzko 2007ko Legearen garapenaren barnean, Justizia Ministerioak Memoria Historikoaren arloko elkarteekin eta autonomia-erkidegoekin kontsulta-erronda hasi zuen protokolo bat osatzeko asmoz.

Ondutako dokumentua 2011n argitaratu zen: PRE/2568/2011 Agindua, irailaren 26koa, 2011ko irailaren 23ko Ministroen Kontseiluaren Erabakiaren bitartez, gerra zibileko eta diktadurako biktimen hobiak irekitzeko jarduera-protokoloa Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea agintzen dena (**I. ERANSKINA**).

Euskadin, hobiak irekitzeko jarduera-protokoloa honakoek gidatzen dute: 2002az geroztik metatutako esperientziak, Estatuko jarduera-protokoloan ezarritakoak eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak arlo horretan ezarritako zuzentarauak..

## 5. Orain arte egindako lanaren emaitzen adibide batzuk

Orain arte baliatutako lan-metodoari eta metatutako esperientziari esker, informazio asko osatu ahal izan da, eta gaia nahikoa gizarteratzea lortu da, nagusiki biktimen senideek egindako eskaerari erantzunez.

Bestalde, hainbat proposamen egin dira azken urteetan ikerketa-taldeek esperientziaren ondotik:

·«Panorama organizativo sobre Antropología y Patología Forense en España. Algunas propuestas para el estudio de fosas con restos humanos de la Guerra Civil española de 1936», Francisco Etxeberria (2004). Liburu honetan: *La memoria de los olvidados. Un debate sobre el silencio de la represión franquista*. Argitaratzailea: Eremua. 183-219 or.

·«Aportaciones de la Antropología Forense en el estudio de las víctimas de la Guerra Civil y el franquismo», Fernando Serrulla (2005). Liburu honetan: *Actas do II Congreso da memoria. A II República e a Guerra Civil*. 707-714 or.

·«El análisis de los restos», Manuel Escarda (2006). Liburu honetan: *La represión franquista: mito, olvido y memoria*, 299-330 or.

·«Métodos internacionales empleados para la identificación de restos óseos humanos», Manuel Polo (2009). Aldizkari honetan: *Revista d'Estudis de la Violència*, 8. zk.

Aurreko guztiaren oinarrian nazioarteko zenbait protokolo daude, tartean, Nazio Batuek argitaratutako exekuzio judizioz kanpokoak, arbitrarioak edo sumarioak modu eraginkorrean prebenitu eta ikertzeko eskuliburua (New York, 1991) eta gerora Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoak egindako garapena (Mex/00/AH/10 proiektua). Azken horretan zehazten da giza eskubideak urratu direlako susmoa dagoen heriotzen auzitegi-ikerketarako eredu zko protokoloa.

---

# I. Eranskina

---

## Hobiak irekitzeko jarduera protokoloa

---

### I. Sarrera

Protokoloa 2007ko abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera osatu da, eta horren bidez gerra zibilaren eta diktaduraren garaian jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubiak aitortzen eta zabaltzen eta haien aldeko neurriak ezartzen dira.

Manu hori bete, eta honako bitartekoa osatu da, biktimak berreskuratzen eta identifikatzen adituak diren erakundeen eta arlo horretan jardun diren autonomia-erkidegoen esperientziari esker. Horren oinarrian nazioartean oso ezagunak diren bitartekoak daude, NBEren 1991ko Minnesotako Protokoloa kasu, exekuzio sumario, judiziorik kanpoko, arbitrario edo lege kanpokoak modu eraginkorrean prebenitu eta ikertzekoak.

Metodologia eta prozedura gidatzeko protokolo horren helburua da orientazioa eta jarraibideak eskaintzea desagertutako pertsonen bilaketari, berreskuratzeari eta identifikatzeari ekin nahi dioten pertsoneri, baldin eta dagokion autonomia-erkidegoak ez badu jarduera-protokolorik onartu, eta betiere autonomia-erkidegoen zein toki-administrazioen araudi aplikagarria nahitaez betez.

Hobi komun bat ireki eta gorpuak ateratzea diziplinarteko egitekoa da, espezialista hauek esku hartzea beharrezkoa dena:

- Historialariak.
- Arkeologoak.
- Auzitegiko espezialistak.

Halaber, giza identifikazioko edo auzitegi-antropologiako zerbitzuak edo unitateak dituzten Auzitegi Medikuntzako Institutuek eta Unibertsitateek parte hartzea bilatuko da, hobia kokatuta dagoen lurraldea gorabehera.

## II. Lanak egiteko eskabideak, proiektua aurkeztea eta administrazioaren behin-behineko onespina

Hobi komun bat ireki eta gorpuak ateratzea egintza berezia denez, ezinbestekoa da biktimen zuzeneko senideek gorpuzkiak ateratzea eskatu izana, edo interesdunek, Memoria Historikoa aldarrikatzeko eraturako elkarteak kasu, ekimena bultzatzea.

Interesdunek hobiak irekitzeko baimen-eskabidea gorpuzkiak dauden lekuko toki-erakundeari edo autonomia-erkidegoari aurkeztu beharko diote, kasuan kasuko araudian ezarritakoaren arabera. Ondorio horietarako, interesdunak honakoak dira:

- Biktimen zuzeneko senideak.
- Ikerketa-, kokatze- eta identifikazio-jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteak.

Eskabideei proiektu bat atxiki beharko zaie, ahal dela, honako alderdiak egiaztatuko direna:

- Jarduera sustatzen duen erakundea, elkarte edo partikularra eta sustatzeko arazoak.
- Aurretzako ikerlanak (ahozko iturrietan eta agirietan oinarrituta), hobiaren kokapenari eta gorde ditzakeen banakoei buruzkoak, hala nola aurkitutako senideei buruzkoak.
- Hobia irekitzeaz eta ondorengo jardueraz arduratuko den talde teknikoa identifikatzea, arduradunak zehaztuta.
- Esku-hartze arkeologikoko proiektuaren funtsezko ezaugarriak eta, hala dagokionean, egin beharreko auzitegi-azterketarenak.
- Proiektuaren baliozkotasunari eta bideragarritasunari eragin diezaiokkeen zeinahi datu interesgarri.



### III. Jarduteko prozedura

Administrazioak proiektuak barne hartzen dituen jarduerak onartu ondoren, prozedurak honako faseak izango ditu:

- A. Aurretiazko ikerketa.
- B. Esku-hartze arkeologikoa.
- C. Gorpuzkien auzitegi azterketa.
- D. Azken txostena.
- E. Gorpuzkien azken norakoa.

Oro har, prozesu osoaren koordinatzaile bat beharko da, hobiak irekitzen esperientzia kualifikatuta izango duena. Gainera, zuzendari bana beharko da fase bakoitzeko (horien ardura izango da dagokien jardue-ra-esparruari buruzko txostena egitea).

#### A. Aurretiazko ikerketa

Fase honetan, desagertutako pertsonaren nortasuna, kasuaren xehetasunak eta tokiko inguruabar historikoa ahalik eta zehatzen ezagutzea da helburua. Horretarako, dokumentalisten, elkarrizketatzaileen eta psikologoaren laguntza jasoko da.

##### 1. Jarduerak

Informazioa eman nahi duten senideen eta pertsonen eskabideak dira ikerketa-prozesuen abiapuntua. Prozesua hasteko, interesdunei datu pertsonalak eskatuko zaizkie, hala nola, desagertutako pertsonaren datuak eta lurperatu zuten tokia, data, baldintzak eta, ahal dela, argazkiak, agiriak, objektuak, eta abar, aurkeztea. Informazio hori osatu egingo da gero, datu gehiago eskain ditzaketen pertsonekin zuzenean harremanetan jarrita.

Elkarrizketak ahal bezain laster egingo dira, eta idatziz jaso, edo grabatu. Ondoren, grabatutakoa transkribatu eta gorde egingo da.

Senideei fase honetan jakinarazi behar zaizkie desagertutakoak aurkitzeko eta identifikatzeko dauden egiazko aukerak, kasu zehatz horren eta antzekoen baldintzak kontuan hartuta.

Edonola ere, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritako betekizunak beteko dira, prozesuan parte hartuko duten pertsonen dagokienez. Era berean, pertsona horiei jakinaraziko zaie legeak sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko edo aurkaratzeko eskubidea aitortzen diela. Balizko datu-lagapenen berri ere eman beharko zaie.

Aipatutako datuekin osatuko da *ante mortem* fitxa, aurretiazko fase horren zuzendariak gainbegiratuta. Fitxa horretan honakoak adieraziko dira:

- Informazio-emaielaren datu nagusiak.
- Desagertutako pertsonaren datuak (izen-abizenak, sexua, adina, jaioteguna eta jaioterria, egoera zibila, ikasketak, lanbidea edo ogibidea, ezaugarri fisikoak, patologia, lesioak, eta abar). Ahal dela, biktimaren nortasuna adierazten duten agiriak lortu behar dira.
- Pertsona desagertu zen moduari buruzko datuak (data, ordua, lekua, desagertze/atxiloketatik exekuziora eta lurperatzera arte igarotako denbora), eta baldintzei buruzkoak (lekua, bakarrik edo

---

taldean zegoen, lekukoak, arrazoiak, nora eraman zuten, bilaketa-lanak, eta abar).

- Bizi diren senideei buruzko datuak, gorpuzkiak identifikatzeko balizko DNA analisien bideragarritasuna balioztatzeko.

Informazio pertsonalizatua ikerketa historiko eta dokumentalarekin osatu behar da (fitxategiak, bibliografia, eta abar), inguruabar historikoaren eta gertatutakoaren gaineko oinarritzko informazioa lortze aldera.

## 2. Txostena

Aipatutako datu guztiak jardunaren zuzendariak izenpetuko duen txosten batean jasoko dira.

# B. Ikerketa arkeologikoa (landa lanak)

## 1. Txostenak eta baimenak

Hobiak irekitzea sustatzen dutenek honako jarduerak egin beharko dituzte:

**a)** Hobiaren kokapenari eta ezaugarriei buruzko aurretiazko txostena.

**b)** Esku-hartze arkeologikoaren proiektu bakarra, honakoak barne hartuta: lehen fasea, hobiaren ingurunea aztertzearena, kokapen zehatza ezagutzeko, eta bigarrena, indusketa bera, baldin eta proiektua ez badago bietako bakarrera mugatuta, bigarren fasea gerorako uzten duelako edo lehen fasea dagoeneko eginda dagoelako.

Proiektuaren edukia hauxe izango da:

- Arkeologia-lanak eta plangintza deskribatzea.

- Metodologia, eta, prospekzioaren kasuan, behaketa-lanak gauzatzea eta/edo teledetekzio geofisikoko metodoak erabiltzea zehaztuta. Prospekzioan nahiz indusketan, datuak eta dokumentazioa erregistratzeko eta materialak tratatzeko eta biltegitratzeko erabilitako metodologia zehatz azalduko da. Prospekzio-tekniko egokienak erabili beharko dira, nazioartean onartutako ikerketa-estandarrak betez.

- Giza baliabideak eta baliabide materialak.

- Esku-hartzea gauzatzeko epea eta lanen hasiera-data.

- Esku-hartzearen aurreikusitako gastua.

**c)** Dagozkion baimenak eskatzea.

- Hildakoen senideen edo lege-ordezkarien idatzizko baimena. Behar izanez gero, gorpuzkiak dauden lekuko toki-erakundeek zein autonomia-erkidegoek iragarkiari argitaratu ahal izango dituzte udal iragarki-oholetan, eskualdeko edo erkidegoko aldizkari ofizialetan edo irakurle gehieneko egunkarietan.

- Senideetako bat edo ordezkatzan dituzten elkarrekin hobia irekitzearen aurka badaude, autonomia-erkidegoak egoera aztertu beharko du: lehenik senideen interesari erreparatuko die eta, interesdunei entzun ondoren, lanak osorik, zati batean edo ez egitea erabakiko du.

- Lurzoruetarako sarbidea: titulartasun publikoko lurzoruen kasuan, agintari eskudunek baimena eman ahal izango dute, interes publikoko arrazoiren batengatik izan ezik, lurzorua aldi baterako okupatzeko. Titulartasun pribatuko lurzoruen kasuan, gorpuzkiak dauden lurzoruen

titularren baimena eskuratu beharko da. Baimenik jasotzen ez bada, horren berri eman behar zaio administrazio eskudunari, lurzoruen aldi baterako okupazioaren izapideak hasi ditzan.

- Lurzoruen aldi baterako okupazioak prospekzio- eta indusketa-lanak egiteko beharrezkoa den denbora iraungo du, eta jabetza nahitaez kentzeari aplikagarri zaion araudian ezarritakoa jarraituko du. Jardunari berrekingo zaio lurzoruen okupazioari buruzko administrazio-espeditientea ebatzi eta bat.

- Prospekzioa, gorpuk ateratzea eta identifikazioa egin ahal izateko baimena eskatu beharko zaio lurzoruen titularra den administrazioari. Gainera, autonomia-erkidegoek indusketa arkeologikoen gainean ezarritako eskakizunak bete beharko dira (baimenak lortzea, materialak biltegiratzea, epeak, eta abar).

- Gorpuzkiak kokatuta dauden lekuko toki-erakundearen baimena ere beharko da, baldin eta udalei edota gainerako toki-erakundeei (hilerriak eta hileta-zerbitzuak, hirigintza-betearazpena, obrak edo bestelako zerbitzuak) dagozkien eskumenak urratzen badira.

- Aurkikuntzak berehala jakinaraziko zaizkie dagokion toki-erakundeari, autonomia-erkidegoari, polizia edo Guardia Zibilari eta instrukzio-epaitegi eskudunari. Estatu administrazio orokorrari edo bere mendeko erakundeei atxikitako lurzoruen kasuan, horiek ere jakinaren gainean jarri beharko dira.

## 2. Jarduerak

Indusketari ekitea erabakita, honela jokatu behar da:

- Plangintza: zuzendaritza, taldekideak zehaztea, lanak banatzea, indusketa-plana, beharrezkoa den materiala. Taldekideei dagokienez, hobia irekitzeko beharrezkoa denaren arabera, honako teknikari guztiek edo batzuek parte hartuko dute:

- Arkeologoak: jarduera ikuspuntu arkeologikotik zuzenduko dute. Nekropolien indusketan eskarmentua izatea komeni da.
- Auzitegi-antropologiako adituak: behar izanez gero, *in situ* ikerketaz arduratuko dira, hala nola materialen garraioa zaintzeaz.
- Mediku tanatologoak: ireki beharreko hobia hilerri batean badago.

Bestalde, kontuan hartu beharko da hobiaren kokapena, eta bertan egon daitekeen pertsona kopurua beharrezkoa den materiala zehazteko. Nazioartean onartutako ikerketa-estandarretan adierazitako beharrezko indusketa-ekipoa erabili beharko da. Komeni da lanabes txikiak erabiltzea, tartean, palletak, brotxak, zurezko espatulak eta odontologiako lanabesak. Bitarteko mekanikoak salbuespenez eta behar bezala arazoituta bakarrik erabiliko dira.

- Egindako lanen dokumentazioa. Esaterako, dokumentazioa testu, marrazki, argazki eta bideoz osatu daiteke. Argazkiak atera behar zaizkio lan-eremuari lanak hasi aurretik eta amaitu ondoren. Halaber, jardueren egunerokoa idatzi beharko da, teknikari esku-hartzaileak, arduraldia eta gerta litezkeen gorabeherak jasotzeko.

Lan-eremuan bertan dokumentatu behar dira gorpuzkiak identifikatzeko lagungarriak gerta daitezkeen datu guztiak, hala nola desagertuei loturiko elementu guztiak (ondasun pertsonalak, ehunen hondarrak, eta abar) zein gertakariei loturikoak (bala-zorroak eta munizioaren hondakinak, eta abar).

- Indusketa: Indusketa-lanen lekuko izango dira, hala nahi izanez gero, biktimen zuzeneko senideak.

Esku-hartze arkeologikoei aplikagarri zaizkie Espainiako Ondare Historikoari buruzko uztailaren 25eko 16/1985 Legearen V. tituluko aurreikuspenak, ondare arkeologikoari buruzkoak, hala nola arlo

---

horretan aplikagarri diren autonomia-erkidegoen arauak.

Prozedura horiek nazioartean onartutako ikerketa-estandarren arabera gauzatuko dira. Horretarako, oso garrantzitsua da honako zehaztapenen arabera jardutea:

- Indusketa-prozeduren oinarriak hartu behar dira kontuan; erreferentzia metrikoak, hondeatze ordenatua, lurren baheketa, laginketa, zangaren profilen behaketa, ingurunearen babesa, ebidentzien bilketa, materialaren *in situ* behaketa, gorpuzkien tratamendua, eta abar.
- Funtsezkoa da segurtasunezko perimetro bat ezartzea, balizatuta eta babestuta, gorpuzkiak hondatzea edo lapurtzea ekiditeko, baimena duten langileak bakarrik sartuko direna. Edonola ere, tentu handiz gordeko dira hobitik ateratako materialak, kalterik eragin gabe.
- Gorpuzkiak aurkituz gero, autonomia-erkidegoa, toki-erakundea, instrukzio-auzitegi eskuduna, polizia edo Guardia Zibila jakinaren ginean jarri beharko dira, aurkikuntzaren ezaugarriak azalduta.
  - Gorpuzkiak jasotzea: betiere auzitegi-antropologiako adituek parte hartuko dute eta zaintza-katea bermatu beharko da, lagina hartzen denetik desegin edo itzultzen den arteko gorabeherak jasota gera daitezen.
  - Gorpuzkiak zaintzea eta laginak ateratzea: adituek lagin adierazgarriak hautatuko dituzte, protokolo honen xedeetarako analisi onena egin eta aurkitutako gorpuzkiak identifikatu ahal izateko.

Gainerako aurkikuntzen kasuan, ezinezkoa balitz laborategira eraman, eta aztertzea, udalerriko hilerria edo udalak zehaztutako lekura garraiatuko dira. Bestela, aurkitutako lekuan utziko dira, behar bezala babestuta eta adierazita. Antropologiako adituek gomendatuko dute zer egin, udalak edo autonomia-erkidegoak eskainitako baliabideak gorabehera, betiere gorpuzkiak identifikatzeko eta babesteko premia kontuan hartuta.

Edonola ere, garraioa eta zaintza autonomia-erkidegoan indarrean jarritako Osasun-hileta Araudiaren eta kasuari aplikagarri zaion toki-araudiaren arabera izango dira.

- Laginen garraioa: datuak jaso eta gorde beharko dira bai laginketan, baita laginaren kontserbazioan, garraioan, laborategira sartzean, analisisa egin bitartean eta analisisa egin ondoren ere. Txostenak, edonola ere, JUS/1291/2010 Agindua, maiatzaren 13koa, Toxikologia eta Zientzia Forentseen Institutuak aztertu beharreko laginak prestatu eta bidaltzeko arauak onartzekoa, bete beharko du (EAO, 2010eko maiatzaren 19koa), baldin eta laginak aipatutako institutura bidaltzen badira.

Gainerako kasuetan, aipatutako erreferentziako arauak aplikatu ahal izango dira laginen azterketan. Era berean, Genetika Forentseko Nazioarteko Sozietateak identifikazio genetikorako laginketari eta laginen bidalketari buruz emandako gomendioak ere (Justizia Ministerioak argitaratzen ditu) erabili ahal izango dira.

Edonola ere, gorpuzkiak garraiatzeko ezinbestean jaso beharko da autonomia-erkidego eta toki-erakunde eskudunaren baimena, eta autonomia-erkidegoan indarrean jarritako Hilotzen Osasun-alderdiei buruzko Araudiaren eta toki-araudiaren arabera egingo da garraiatzeko prozedura..

### 3. Txostena

- Taldekideen eta egindako lanen zerrendak eta egitekoen banakapena.
- Aurkitutako gorpuzkien deskribapena eta inbentarioa.
- Hobitik ateratako gorpuzkien egoera.
- Gorpuzkiak aurkitzen direnetik azken norakora iritsi arte babesteko neurriak, arduradunak eta gor-

puzkiak kontserbatu, ontziratatu eta biltegiatzeari buruzko xehetasunak.

- Jasotze planimetrikoa eta banako bakoitzaren fitxa, gorabehera antropologiko nabarmenenak jasota.
- Dagozkion agiri grafikoak eta argazkiak.

## C. Auzitegi ikerketa (laborategiko lanak)

### 1. Jarduerak

Fase honetan, hezurak eta gainerako ebidentziak aztertuko dira laborategian, helburu hauekin:

1. Identifikazioa.
2. Heriotzaren diagnostikoa.
3. Etiologia mediko-legala.
4. Heriotzaren data.
5. Heriotzaren inguruabarrak.

Munta handiko aurkikuntza bada, baldintzak eta bitarteko erabilgarriak kontuan hartuta, ahal dela, honakoak sartuko dira taldean:

- Auzitegi-antropologiako aditua (antropologo fisikoa).
- Auzitegi-biologoa (genetikan aditua).
- Auzitegi-patologoa (Lege eta Auzitegi Medikuntzan osagile espezialista).
- Auzitegi-odontologoa.

Aukerarik baldin badago, auzitegi-koordinatzaile bat izendatuko da, auzitegi-patologiaren arloan gaitasun eta esperientzia egiaztatutako, auzitegi-adituen txostenetatik eratorritako informazio guztia bate-ratu eta zenduaren nortasunari zein heriotzaren kausa eta baldintzei buruzko ondorioak jasoko dituen amaierako txostena osatuko duena.

Ondoko jarduerak egingo dira:

- Jarduerak eta emaitzak dokumentatzea.
- Gorpuzkiak prestatzea: esaterako, kaltetutako materiala erradiografiatzea, errotulatzea eta kon-pontzea.
- Identifikazio berreraikitzailea: gorpuzki mota (gizakiarenak/animaliarenak), laginean ordezkaturako pertsona kopurua, adina, sexua, jatorria, garaiera eta abar zehaztuko dira.
- Identifikazio konparatiboa: besteak beste, pisua, *pre*, *peri* eta *post mortem* lesioak, bestelako ano-maliak eta aurpegi-berregitea zehaztuko dira, baita aztarna genetikoa ere, aurreko metodoak ez badira eraginkorrak suertatu eta senideen lagin nahikoak eskuratu badira.
- Gorpuzkiak zaintzea.

Prozedura normalizatuen eta gaitasun zein neutraltasun egiaztatutako erakundeek onartutako zehazta-penen arabera egingo dira jarduera horiek.

### 2. Auzitegi-txostenak

Txosten bat egin beharko da laborategiko identifikazio-lanetan parte hartzen duen espezialitate ba-

---

koitzeko (antropologikoa, genetikoa, histopatologikoa, eta abar). Txostena osatzeko, kontuan hartu beharko da *ante mortem* fitxan eta indusketa-txostenean jasotako informazioa.

Txosten horiek honakoak jasoko dituzte:

- Aurkitutako pertsonaren edo gauzaren deskribapena, aurkitutako modua edo egoera azalduta. Ahal izanez gero, aurkitutako pertsonaren nortasuna adieraziko da, auzitegi-antropologoak hala egiaztatuta.
- Perituek egindako eragiketa guztien xehetasunen eta emaitzen zerrenda.
- Perituek datu horietatik aterako dituzten ondorioak, bere lanbideko printzipioen eta arauen arabera.

## D. Amaierako txostena

Alderdi guztien gaineko txostena egin beharko da, prozeduran parte hartu duten espezialisten txostenak barne hartuko dituena.

Txosten hori jasoko dute senideek, elkarte interesdunek edo jardueretan parte hartu dutenek, toki-erakunde erantzule edo parte-hartzaileek eta hobia kokatuta dagoen autonomia-erkidegoak.

## E. Gorpuzkien azken norakoa

Gorpuzkiak aztertu eta identifikatu ondoren, nortasuna zehaztu den edo ez kontuan hartuta, honela jokatu beharko da:

1. Identifikatuz gero: senideek gorpuzkiak jaso eta nahi erako zeremonia egingo dute. Gorpu guztiak tratatuko dira behar bezalako errespetu eta begirunearekin.
2. Identifikatu ezean: hobia kokatuta dagoen udalerriko hilerrian lurperatuko dira. Horretarako, edukiontzi egokienak erabiliko dira, kontserbazio- eta lehengoratzte-teknikarien argibideak betez. Banako guztiak banan-banan lurperatuko dira, aurkitutako ondasun pertsonalekin eta identifikatuta, etorkizunean hobia ireki nahi denerako. Identifikazio horretan beti adierazi beharko da ikerlaneko erregistro-zenbakia.

Halaber, gorpuzkiak garraiatzeko, berrehorzteko edo errausteko, autonomia-erkidego eta toki-erakunde eskudunen baimena beharko da.







---

# 7. dokumentua

---

**«Memoriaren ibilbideak»**  
lanen laburpena

---



---

# «Memoriaren ibilbideak» lanen laburpena

---

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

---

**EUSKO JAURLARITZA**

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
Bikimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza



**GOBIERNO VASCO**

PRESIDENCIA  
Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



## «Memoriaren ibilbideak I» lanaren laburpena

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak 2015ean UPV/EHUko Biography and Parliament Ikerketa Taldeari egindako enkargua «Memoriaren ibilbideak: Gerra Zibilaren memoriarekin lotutako espazioen zerrenda I» izena darama. Proiektuaren xedea da 1936an porrot egin zuen estatu kolpe militarrek sorrarazitako gerran garrantzi historikoa izan zuten gertaera bereziak zehaztea. Gerra, gertaera belikoa, 1937ko uztailan amaitu zen Euskadin, altxatuek garaipen militarra lortu baitzuten legeria errepublikanoaren eta «Euzkadiko Jaurlaritzaren» aurka.

Hala ere, 1937tik aurrera altxatuek Francisco Franco jenerala botere osoko estatuburu zuen diktadura militarra ezarri zuten, gerrak diktadura frankistan izandako ondorioak ere gerraren dinamikan kokatzen dira; hortaz, subjektibotasun horren baitan, gerrak jarraitu egin zuen 1937tik aurrera ere, garai hartako gertaera gerraren emaitza eta ondorio zuzenak baitziren. Erregimen diktatorial berriak ezarritako salbuespen egoera militarra egoera haren froga garbia da, eta pertsona asko eta asko itzultzeko batere aukerarik gabe erbeste-teratu izanak berretsi egiten du orduko errealitatea.

Enkargu horren jatorria Eusko Legebiltzarrak 2014ko ekainaren 12an onartutako legez besteko proposamena izan zen:

«Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egin dadila txosten independente eta osatu bat, sei hilabeteko epean, UPV/EHUri edo Valentín de Foronda Institutuari enkargatu ahal zaiena, non jasoko baita estatu-kolpe militarren ondorengo gerrak eta diktadura frankistak iraun zuten bitartean izandako gertakari edo jazoera berezi edo aparteko garrantzi historikodunei lotutako tokien zerrenda (memoria historikoaren ibilbideak), bai eta izandako gertakariei buruzko informazio historikoa, tartean egon ziren pertsona eta erakundeei buruzko datuak, eta haiekin zerikusia daukan beste edozein informazio ere.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea, euskal udalekin akordioak egin, memoria historikoaren ibilbideen identifikazioa, babesa eta seinalizazio-prozeduraren erregulazioa, eta orobat susta dadila kendutako sinbolo frankistekin interpretazio-eremuak sortzea, horiek testuinguruan kokatuz».

Txosten honek 1936tik 1937ra bitarteko gerra garaia hartu du azterketarako ardatz gisa. Garai horretako gertaera politiko garrantzitsuenetako bat lehen Eusko Jaurlaritzaren eraketa eta haren kudeaketa politiko eta administratiboa izan ziren, zalantzarik gabe. Lehen Eusko Jaurlaritza 1936ko urriaren 7an eratu zuten, eta José Antonio Aguirre izan zuen lehendakari.

Lan honek zehaztasunez azaldu nahi izan ditu borroka belikoen gertalekuak, eta interes berezia eskaini die bonbardaketei, bereziki biztanleria zibilen gainekoei; horien helburua izua zabaltzea zen, eta ikaragarri baldintzatu zuten gerra moderno berria. Italiaren eta Alemaniaren laguntzari esker, altxatuek nagusitasuna lortu zuten aire armadan, eta nagusitasun hura nabarmena eta erabakigarria izan zen, bonbardaketak jasan zituzten herrien maparen ibilbideak adierazten duen moduan. Halaber, espetxeak, ospitaleak eta gerrako presoek bortxazko lanak egiten zituzten tokiak aipatuta ageri dira.

Baina gerraren memoria oroimen bizia da, eta horixe ondorioztatzen dugu gerraren oroimena eta azterketa historikoa sustatzen dituzten erakunde zibilen zerrendari erreparatuta. Beraz, ez da iraganeko kontua; elkarre horien ekimenei esker, presentzia eta indar eguneratua ditu egungo errealitatean.

Errepresaliatuen hobi komunak aurkitu eta memoria leku bilakatzea, lapurtutako haurren gaiari heltzea eta erbesteko ibilbideak zehaztu eta oroitaraztea dira elkarre horien beste helburuetako batzuk. Eusko Jaurlaritzaren webgunean jasota daude beste garai batzuetan abiarazitako ekimenak, eta txosten honetan orain arte egindakoa hartu dugu abiapuntutzat, ekintza eta ekimen berriak abian jartzeko asmoz.

«Memoriaren ibilbideei» egin beharreko ekarpena ezin da mugatu errealitate fisiko-geografiko batera; aitzitik, oroimen kolektiboan eta gaur eguneko islatuta dagoen esperientzia traumatiko baten iraganeko eta oraineko barrenako ibilbide bat behar du izan, baita iraganetik orainera igarotzeko bidea ere.

---

## Etorkizuneko lanetarako aholkuak

Txosten honek gerra memoria lekuen zerranda luze bat jasotzen du, baliabide aproposa Gerra Zibilari lotutako memoria historikoaren ibilbideak prestatzeko. Nolanahi ere, txostena egitean, agerian gelditu da gai batzuk sakonago ikertzeko premia.

Hona hemen aholku batzuk bildutako informazioa erabiltzeko moduei eta etorkizuneko balizko ikerketei buruz.

### 1. Ekimen orokorrak

**Memoria leku bat edo web gune bat sortzea**, izaera monografiko eta espezifikokoa, memoriaren ibilbideak eguneratu eta garatzeko. Atari honetan, **“izen guztiak”** bildu behar dira, eta 1937tik aurrera frankismoak eragin zituen biktimak eta errepresaliatu guztiak, azalpen batekin, memoria iraunkor modura. Pertsonen bereziki eskainitako atal honek txosten honen bigarren zatia izan beharko luke. Izan ere, helburua ez da izen zerranda huts bat osatzea, frankismoaren biktimen adierazpena eta aitortza egitea baizik, metodologia biografiko baten bidez.

Web monografiko honek, horrenbestez, aipatu ditugun elkarrekin koordinazio lotura bat artikulatu behar du, eta, esperientzia horretatik abiatuta, bi ekimen zehatz proposatzen ditugu:

1.1. **Oroimenaren autobusa**: inbentario orokorrean aipatzen diren memoria leku guztietara joango dena, erakusketa ibiltari batekin, iraganari lotutako gaur egungo esperientzia bat garatzeko. Nafarroan dagoeneko martxan jarri dute antzeko ekimena. <http://www.autobusdelamemoria.org/>

1.2. **Memoriaren ontzia**: kostaldeko herriak bisitatuko lituzke, itsas armadari eta gerrako itsas gertakariei buruzko erakusketa batekin. Gainera, erakusketaren atal batek umeen erbesteratzea eta Bermeotik eta Santurtzitik irten ziren erbesterako ibilbideak erakutsiko lituzke. Galizian, antzeko ekimena jarri dute abian (<http://www.galiciaparaelmundo.com/blog/programa-693.html>), [http://elpais.com/diario/2006/08/09/revistaverano/1155074401\\_850215.html](http://elpais.com/diario/2006/08/09/revistaverano/1155074401_850215.html),

Beste autonomia erkidego batzuetan, unibertsitateetako ikertaldeak arduratzen dira web monografikoa kudeatzeaz (Galizian, «Nomes e voces» <http://vitimas.nomesevoces.net/>), eta ikerlan zuzenak eta hedapen lanak egiten dituzte. UPV/EHUko *Biography&Parliament* ikertaldea gai da metodologia biografiko bat garatzeko, eta, txosten honen jarraipen gisa, Ataria sortu eta kudeatzeko, hurrengo ekimenen motor dinamiko gisa.

Azterketa monografikoa dela-eta, ondoko lerroetan aipatzen diren aholkuak ere proposatzen ditugu, txosten honen atal espezifikoen arabera:

### 2. Memoria historikoa lantzen duten erakunde publikoak eta pribatuak

- Elkarteen errolda zehatza egitea, prestatutako fitxa betez (ikus II. eranskina).
- Elkarteen webgunea sortzea, fitxetako informazioarekin, haien jardueren berri emateko.
- Errolda bat osatzea elkarte hauek eta erakunde publikoek jaso dituzten oroimen monumentuekin.

### 3. Eusko Jaurlaritzaren egoitzak

- Txosten honetan Eusko Jaurlaritzaren sailen egoitza nagusiekin egin den errolda osatzeko, beste errolda bat osa liteke, sail horiek erabili zituzten beste egoitza batzuekin (Bilbon eta beste udalerrri batzuetan kokatuta egon zirenak).
- Webgune bat sortzea egoitza horien informazioarekin (fitxak eta kokapen planoak).
- Oroimen plakak ezartzea leku eta eraikin horietan.

### 4. Gerra lekuak

Atal honetan, informazio bolumen oso handia bildu da; beraz, oso zaila litzateke leku guztiak seinalizatzea. Horrenbestez, hasiera batean, gure aholkuak lirake:

- Fitxak eta kartografia biltzea web orri batean.
- Leku garrantzitsuenak hautatzea eta seinalizatzea.

Bonbardaketen atalean, ez dugu kontsultatzerik izan Aire Armadaren Artxiboko informazio guztia. Hori horrela, aholkuak lirake:

- Bonbardaketei buruzko ikerketa osatzea, Aire Armadako Ministerioko Artxiboko iturrien bidez:
- «Aire Buruzagitza. Hirugarren Sekzioa. Operazioen laburpena»-ren parteak.
- Aviazione Legionaria komandoa. Aire Buruzagitza. Salamanca, Italiako abiazioaren ekintzei buruzko informazioa.
- Condor Legioaren operazioen parteak, Alemaniako abiazioaren ekintzei buruzko informazioa.
- Pilotuen hegaldien egunerokoak, gerra ekintzak deskribatzen dituztenak.

## 5. Espetxeak

Espetxeak identifikatu ondoren, egokia litzateke lan monografiko bat egitea Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeei eta kontzentrazio esparruei buruz. Honako hauek aipatuko litzuzke:

- Noiz hasi ziren erabiltzen espetxe horiek.
- Zenbat gizon eta emakume preso izan zituzten.
- Zer-nolako bizigarritasun baldintzak zituzten.
- Espetxeetako zuzendariak eta langileak.
- Espetxe edo esparruaren kokapena 1936-1939an.
- Noiz itxi ziren.
- Gaur egungo egoera.
- Leku horiek memoria leku gisa katalogatzea, giza eskubideak urratu ziren leku modura.
- Oroimen plakak ezartzea.

## 6. Osasun militarra

Lan monografiko oso bat egitea 46 ospitaleei buruz, informazio zehatza bilduz:

- Artatutako zaurituen kopurua.
- Ospitaleetan lan egin zuten mediku eta erizainen kopurua (ez dakigu zenbat izan ziren).
- Zer gertatu zen mediku eta erizain horiekin gerra ondoren.
- Zer gertatu zen ospitaleekin frankisten garaipenaren ondoren (zer gertatu zitzairen eraikinen jabeen beren jabetzak Eusko Jaurlaritzaren esku uzteagatik).

## 7. Lan behartua

Gerra zibilean eta gerra ondoren lan behartua egin zen lekuak identifikatu ondoren, gure aholkuak lirateke:

- Oroimen plakak jartzea leku horietan.
- Leku horietan egin zen lan behartuari buruzko ikerlana osatzea.

## 8. Erbestea

Ikerlan honen jarraipen modura, beharrezkoa litzateke euskaldunen erbeste ibilbideei buruzko azterlan xehe bat egitea: erbesteratuak hartzeko hitzarmenak Amerikako herrialdeekin; erbesteratuen erroldak Europako eta Amerikako harrera herrialdeen arabera.

---

## «Memoriaren ibilbideak II» lanaren laburpena

---

Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz UPV/EHUko Biography and Parliament Ikerketa Taldeak egindako Memoriaren ibilbideak<sup>1</sup> txostena zabaltzea da lan honen helburua.

Bigarren entrega hau hiru gai nagusiren inguruan bildu da. Lehenik, zabaldu egin dira aurretik egindako ekarpenak bonbardatutako herriei dagokienez (1936-1937). Bonbardaketen inguruko atal horretan informazioa garatu da, Aireko Armadaren Artxibo Historikoan hegazkin bonbaketarien hegaldi-txostenak aztertu ondoren, zehaztasun handiagoz finkatu ahal izateko milakoa gainditu zuten terrorrezko bonbardaketen estrategia.

Bestalde, «Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzaren» (1936-1937) eremu politiko-administratiboen mapa garatu eta sakondu da. Hala, eguneroko administrazio-kudeaketari dagozkion memoria-lekuek dimentsio berri bat hartzen dute, aintzat hartu beharreko dimentsio bat.

Azkenik, erbestean sortutako memoria-lekuen laburpen bat eskaintzen da, bereziki lehen fasekoa (1936-1940): «Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzak» erbestean zituen egoitzak; Frantziara, Belgikara, Erresuma Batura, Sobietar Batasunera eta Suitzara ebakutatutako haurren abegi-tokiak; «Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzak» iheslariak jaso zituen lekuak, eta Frantziara erbesteratutako jendeak pairatu zituen konfinamendu-esparruak.

«Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzaren» eremu politiko-administratiboen mapari buruzko kapituluak, garrantzi berezia dute gerra dela-eta lekualdatutako gizarte-laguntza ematera zuzendutakoek, bereziki Bizkaian errefuxiatutako kasuan, Nafarroatik eta Arabatik zetozen altxatuen etorreraren aurrean. Errefuxiatu horiei zuzendutako gizarte-laguntza Juan Gracia sailburu sozialistak zuzendutako Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Laguntza Zaingoaren eskumena izan zen 1936tik. Ondoren, Euzkadiko Jaurlaritzak Parisera bidali zuen, Alfredo Espinosa sailburuarekin batera, Frantziara iritsitako euskal errefuxiatuen exodo gero eta handiagoarentzako laguntza antolatzeke. Hala, 1937ko urritik aurrera, euskal errefuxiatuen premiazko beharrak bideratzea eta kudeatzea bilakatu zen Eusko Jaurlaritzaren zeregin nagusi erbestean.

Azkenik, gerraren ondorioen artean, herritarren exodoa eta ondorioz biztanleriaren zati baten erbesteratzea Francoren diktaduran zehar iraun zuenetako bat izan zen. 1936 eta 1937 artean, euskal biztanleen zati garrantzitsu bat, % 15 inguru, etengabeko lekualdaketen mende egon zen norberaren segurtasuna bermatuko zuen babesa bilatze aldera.

Prozesu horretan hiru aldi bereiz daitezke herritarren lekualdaketei dagokienez:

1. Altxamendu militarrek eta ondoren Nafarroako iparraldeko eta Gipuzkoako mendebaldeko altxatuen okupazioak eragindako hasierako lekualdaketa. 16.000 pertsona inguru ebakutu zituzten Donostia erori baino lehen (1936ko irailaren 13an), eta horiei gehitu behar zaizkie aurretik muga oinez zeharkatu zuten beste 2.272 pertsona<sup>2</sup>. Biztanleriaren beste zati batek atzera egin zuen Bizkairantz, eta, horregatik, sortu berria zen Eusko Jaurlaritzak gutxi gorabehera 70.000 lekualdatutako beharrak kudeatu behar izan zituen.

2. Bilboko biztanleria zibila bonbardaketen xede izan zen berriz ere 1937ko urtarrilaren 4an, eta bonbardaketa horiek eragiten zuten beldurraren eta izuaren aurrean, biztanleria zibila berriz lekualdatzea planteatu zen. Azkenik, Gizarte Laguntza Zaingoak bizkortu egin zuen 5 eta 12 urte arteko neska-mutilak ebakutzeko plana, Armada britainiarraren eta hainbat erakunde humanitarioren lankidetzarekin beste herrialde batzuetara eramate aldera. Martxoaren 21ean 450 haur eta beren zaintzaileak ontziratu ziren Bermeon, Frantziara bidean. 1937ko maiatzaren 6tik aurrera eta bi hileko epean, guztira 26.659 pertsona –horietatik 19.144 haurrak ziren<sup>3</sup>– erbestera eraman zituzten ontziak abiatu ziren Santurtziko portutik. Hurrei Frantziara, Belgikara, Erresuma Batuan, Sobietar Batasunean eta Suitzara abegi egiteko eta han finkatzeko politika da hunkipen handieneko kapituluetakoa bat, abegi-herrialdeetan erakutsitako elkartasunarengatik. Jesús J. Alonso Carballés, Gregorio Arrien edo Basque Children org erakundeek egindako ikerketa garrantzitsuetan oinarrituta, mapetan kokatu dira haur horiek bildu eta jaso zituzten tokirik garrantzitsuenak; izan ere, euskal memoria-lekuek European barna dituzten adibide azpimarragarriak dira horiek<sup>4</sup>.

3. Altxatuek 1937ko ekainaren 19an Bilbo okupatu zutenean, Eusko Jaurlaritzak, Telesforo Monzónek zuzendutako Erri Zaintza Zaingoko Fidel Rotaetxeren gidaritzapean, biztanleria Santanderko eta Asturiasko portuetatik ebakutzeko plana kudeatzen jarraitu zuen, 1937ko urriaren 25ean Gijóngo portua konkistatu zuten arte. Exodoaren zifrak aldakorrek dira. Eusko Jaurlaritzaren zenbatespenen arabera, guztira 130.000



pertsona ebakuatu ziren, haien artean 32.000 adingabe. J. C. Jiménez de Aberasturiren hitzetan, 1937an 79.538 euskaldun erbesteratu ziren<sup>5</sup>, eta Miguel Mayoralek<sup>6</sup> berriki egindako ikerketaren arabera, gerrak Espainiako iparraldean iraun zuen 15 hilabeteetan guztira 145.653 pertsona ebakuatu ziren Frantziara, eta Eusko Jaurlaritzak izan zen ebakuazio horren eragile eta antolatzaile nagusia.

Aipamen berezia merezi du Bordelen Eusko Jaurlaritzaren ordezkari zen Juan Zubiagak egindako txosten xehatuak. Bordeleko kaietan bertan ibilia, Zubiagaren lanak aukera ematen digu Europako iritzi publikoak interpelatzeko jarraitzen duen gerra-errefuxiatuen gizarte-fenomenora hurbiltzeko<sup>7</sup>. 1937ko urtarrilean Bordeleko Ordezkaritza sortu zen, Baionako Ordezkaritzaren mendekoa. Haren egoitza Bordeleko eraikin historiko batean kokatu zen, Cours Marechal Foch, 15 bis helbidean. Lehendakartzako bulegoaz gain, Euzkadiko Jaurlaritzaren Gizarte Laguntza, Ogasun, Osasun eta Itsasketa Zibila Zaingoekin ere egiten zuen lan. Ebakuatutako jendea 1937ko maiatzaren 7an hasi zen iristen, lehen itsasontzia Pauillac herrian porturatu zenean, eta prozesua 1937ko urriaren 25era arte luzatu zen, hau da, Gijón erori arte. Honako hau kontatzen da txostenean: «Bordeleko Ordezkaritzak, Euzkadiko Jaurlaritzaren izenean, eskua zabal luzatu zien gure ebakuatuekin batera iritsi ziren Santanderko eta Asturiasko pertsoneri»<sup>8</sup>.

Baionan Erri Zaintza sailburuaren mendeko «Errolda eta Estatistika» bulegoa eratu zen, euskal errefuxiatuen errolda egiteko helburuarekin, eta Bordeleko Ordezkaritza lankidetzan aritu zen bulego horrekin. Aipatutako Bordeleko Ordezkaritzaren txostenak estatistika zehatza eskaintzen du, hurrengo izenburuarekin: «Pauillac, Verdon, Saint Nazaire eta Nantesko portuetara ebakuatutako pertsonak, Bilbo, Santander, Rivadesella, Musel-Gijon eta Avilésetik etorriak 1937ko maiatzaren 7a eta urriaren 25a bitartean». Txostena kontsulta daiteke 7. oharrean adierazitako helbide elektronikoan, eta Euzkadiko Artxibo Elektronikoan aurki daitezke aipatutako pertsoneri dagozkien zerrendak. Guztira 116.746 pertsona ebakuatu iritsi ziren aipatutako portuetara, hainbat ontzi eta itsasontzitan, eta horietatik 87.000 euskal herritarrek zirela onartu da, modu honetan banatuta: 30 urtetik gorako 30.000 emakume, 30 urtetik beherako 10.000 emakume, 40.000 guztira; 45 urtetik gorako 8.000 gizon, 45 urtetik beherako 18.000 gizon, 24.000 guztira; eta horiei 23.000 haur gehitu behar zaizkie (txosteneko 25. or.). Txostenak xehetasunez adierazten du itsasontzien izenen zerrenda eta bakoitzak egindako zeharbideen kopurua.

Txostena idatzi zen urtean, 1938an, Frantziako errefuxiatuek «refoulement» politika pairatu zuten, hots, gaitzespen-politika, eta errefuxiatuek Frantzian zituzten zailtasunen aurrean erantzukizun politikorik ez zuten erbesteratuen zati batek itzulera-prozesu bat abiarazi zuen, Juan Gracia sailburuaren laguntzarekin baita ere<sup>9</sup>. 1940an, gerraren amaieran, 30.000 euskal herritar inguruk errefuxiatuta jarraitzen zutela zenbatetsi da.

Francok Eusko Jaurlaritzak deuseztatu eta lurraldetik kanporatu zuen arren, euskal herritarren lekualdaketa masiboak izan ziren José Antonio Aguirre lehendakariak 1937ko urrian baliatutako arrazoiak. Legitimosasun demokratikoak eta lekualdatutako euskaldunen beharrek haren agintaritzak eskatzen zuten. Lehenik eta behin Bartzelonan finkatu zen, Parisko eta Bruselako ordezkariak sortzen ziren bitartean<sup>10</sup>. Zenbatespenen arabera, Katalunian errefuxiatutako euskaldunak 80.000 izatera iritsi ziren<sup>11</sup>. Luis Areitioaurtenaren zuzendaritzapean, 1937ko apirilean abegi eta laguntza sozialeko sistema bat antolatu zen, bai eta haurrentzako udalekuak ere. 1939an, tropa frankistek Katalunia okupatu zutenean, kopuru bat Frantziara zuzendu zen, eta errepresioaren beldurrik izan gabe itzul zitezkeen horiek etxera bueltatu ziren. Laburbilduz, 1940 inguruan 30.000 euskal herritarrek erbesteratu jarraitzen zuten eta Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen zuen haien beharrezan kudeaketa, demokratikoki eratuakota erakunde gisa.

Aipatutako lehen bi kapituluak egiteko, lehen txostenaren egile berberak izan ditugu. José Ignacio Aranés Usandizaga, Carmelo Landa Montenegro eta Lorenzo Sebastián García osatutako Doku taldeak prestatu du «Euzkadiko bitarteko Jaurlaritzaren» egoitzei dagokien atala. Xabier Irujo Amézaga Nevadako Unibertsitateko (Reno) irakasleak garatu du bonbardaketei buruzkoa. Bestalde, Iñaki Goiogana Sabino Arana Fundazioko ikertzaileak gauzatu du erbestearen inguruko sintesia.

Txosten honekin batera Beatriz Fernández de Manuelek egindako kartografia gehitu da, eta bertan adierazten dira txostenean jasotako tokiak.

Aurreko txostenen bezala, txosten honen informazioa erabiltzekotan kontuan hartu beharreko zenbait gomendio erantsi dira, orobat haren hedapenari begira.

---

## Hurrengo jarduketetarako gomendioak

Prestatutako txostenak memoria-tokien zerrenda luze bat eskaini du emaitza moduan, eta horiek aukera ematen dute Gerra Zibilari buruzko memoria historikoko ibilbideak prestatzeko, 2015ean argitaratutako aurreko lanak («Memoriaren ibilbideak I») eskainitakoak zabalduz.

Hona hemen gomendio batzuk aurkeztutako informazioari eman dakioken erabilerari eta etorkizunerako balizko ikerketei buruz

### 1. Jarduketa orokorrak

Memoria-leku edo webgune monografiko eta espezifiko bat sortzea memoria-ibilbideak eguneratzeko eta garatzeko.

### 2. Eusko Jauriaritzaren egoitzak

- Sarean espazio bat sortzea egoitza horien inguruko informazioarekin (fitxak eta kokapen-planoak).
- Kokaleku guztietan oroipen-plakak ipintzea.

### 3. Bonbardatutako tokien zerrenda

Atal honetan eskuratutako informazio-bolumena oso handia da, eta, hortaz, zaila litzateke toki guztiak adieraztea. Beraz, honako hau gomendatzen dugu alde aurretik:

- Fitxak eta kartografia webgune batean jasotzea.
- Leku nabarmenenak hautatzea eta seinaleztatzea.

### 4. Erbestea

Atal honetan eskuratutako informazio-bolumena oso handia da, eta, hortaz, zaila litzateke toki guztiak adieraztea. Beraz, honako hau gomendatzen dugu alde aurretik:

- Fitxak eta kartografia webgune batean jasotzea.

---

1 Izenburua: J. Agirreazkuenaga eta M. Urquijo (zuzendariak). Memoriaren ibilbideak. Lekuen zerrenda.

2 **Ikuspegi orokor baterako, ikus bedi Juan Carlos Jiménez de Aberasturiren lanaren lehen kapitulua**, De la derrota a la esperanza: políticas vascas durante la Segunda Guerra Mundial (1937-1947), **Bilbo, HAEE, 1999, 1-35. orr. Erbestearen ondoz ondoko faseen sintesia, Jesús J. Alonso Carballésen «El primer exilio de los vascos, 1936-1939» artikuluan, in Historia Contemporánea, 35, 2007, 683-708.**

3 **Jesús J. Alonsoren zenbatespenen arabera**, op. cit., 692. orr.

4 Ikus: <http://www.basquechildren.org>, **Jesús J. Alonso Carballés**, 1937 Memoria e historia de un éxodo infantil, 1936-1940, **Bilbo, Asociación de Niños Evacuados el 37 – 37an Atzerriraturiko Haurren Elkarte, 1998 eta Gregorio Arrien**, ¡Salvad a los niños! Historia del Exilio vasco en Gran Bretaña, **Bilbo, Sabino Arana Fundazioa, 2014.**

5 **Juan Carlos Jiménez de Aberasturiren arabera, zifra hori 79.538 euskal erbesteratura murriztu beharra dago 1937an. Eusko Jauriaritzaren erbesteko jarraipena ulertzeko, ikus bedi haren hurrengo lana**: De la derrota a la esperanza: políticas vascas durante la Segunda Guerra Mundial (1937-1947), **Bilbo, HAEE, 1999.**

6 **Miguel Mayoral**, Evacuación y acogida en francia de los refugiados procedentes del frente norte durante la guerra civil española 1936-1937. **2013an Salamancako Unibertsitatean irakurritako tesia.**

7 Euskadiko Artxibo Historikoa. Bordeleko Ordezkaritzaren jardueren informazioa. Juan Zubiagak 1938 inguruan lehendakariarentzat egindako txostenaren kopia: [http://dokuklik.snae.org/badator\\_zoom.php?cdc=001&cdd=00955](http://dokuklik.snae.org/badator_zoom.php?cdc=001&cdd=00955).

8 Bordeleko Ordezkaritzaren jardueren informazioa. Juan Zubiagak 1938 inguruan lehendakariarentzat egindako txostenaren kopia, 8. or.

9 **30.000 joan ziren Kataluniarantz eta 60.000 itzuli ziren beren etxeetara, I. Anasagasti eta K. San Sebastiánen zenbatespenen arabera**, Los años oscuros. El Gobierno vasco. El exilio (1937-1941), **Donostia, Txertoa.**





---

## 8. dokumentua

---

Memoria historikoaren egia  
errekonozitzea lortzeko  
prozesuan aurrera egiteko eta  
frankismoaren biktimei ordaina  
emateko proposamenak

---



---

# Memoria historikoaren egia errekonozitzea lortzeko prozesuan aurrera egiteko eta frankismoaren biktimei ordaina emateko proposamenak

---

**Donostia, 2016ko maiatzak 14**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

---

**EUSKO JAURLARITZA**

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza



**GOBIERNO VASCO**

PRESIDENCIA  
Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos





---

# Erresilientzia eta memoria historikoari buruzko jardunaldia

---

Donostia, 2016ko maiatzak 14

## Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiaren hasiera-hitzaldia

Jardunaldi honek ideia bat izango du oinarri: erresilientzia, edo ezbehar bat jasan ondoren egokitzeko izaten den gaitasuna. Erresilientziak esan nahi du gaintitu egiten dela orainean iraganean nozitutako kolpe bat, eta gaintituta izango dela etorkizunerako, haren ondorioak gaintitzeko eta ohikotasuna berreskuratzeko gai izan garelako.

Zenbait hausnarketa egin nahiko nituzke, parte hartzeko aukera emango digun geroko hizketaldiari hasiera eman aurretik.

Lehenengo hausnarketa biktimei buruzkoa da. Biktimizazioa blokeo suntsitzaile bat da, ezbehar traumatiko batek gure bizitzan sortu duena. Biktimizazioa gaintitzea biktima-izate hori gure biografiaren parte egitea da, eta ez gure biografia oso. Biktimismoa, berriz, biktima-izate hori geure errealitatearen beste edozer alderdiren gaitetik jartzea.

Biktimizazioa gaintitu egin behar da; biktimismoa, berriz, saihestu, kroniko bihurtzen baitu biktimizazioa.

Biktima-izate hori, gure bizitza osoa baldintzatzen duen errealitate gisa, gure bizitza guztiz hartzen eta mugatzen duen errealitate gisa, behin-behinekoa izan behar da. Beste era batera esanda, denbora bat igaro ondoren, biktima izatea, halabeharrez, gure biografiaren eta gure bizitzaren parte bat izango da, baina ez gure bizitza guztiz baldintzatuko duen osotasun hori.

Horregatik da hain garrantzitsua erresilientzia biktimei buruz ari garenean. Biktimizazioa gaintitzen laguntzen duelako, eta biktimismoa saihesten.

Erresilientzia-gaitasuna izan zuten, esate baterako, frankismoa nozitu zuten belaunaldiek. Haien bizitza bideratzeko eta aurrera ateratzeko gai izan ziren, eta bidegabeko eta biktimizazioko historia hori gaintitzeko gai, beste zerbait hobea sortzeko. Pairamena ez zuten ardatz bihurtu, aldatzeko gai izan ziren errealitate baten parte oso gogor bat baizik.

Indarkeriaren biktima den batek sufritzen duen bizipen traumatiko eta bidegabeak ez du zerikusirik gizartearen gainerakoek bizi dutenarekin. Eta desberdintasun horrek urrundu egiten ditu biktima eta gizartea. Biktimologiaren azterketak erakusten du urruntasun-gertutasunezko ardatz batean dabilela biktimen eta gizartearen arteko erlazioa, hemen nahiz munduko beste edozein bazterretan.

Denborak aurrera egin ahala, biktimak eta gizartea gerturaten dituzten faktoreak edo urruntzen dituztenak agertzen dira. Politika publikoek areagotu, gutxiagotu edo ezabatu egin dezakete tarte hori. Eusko Jaurilaritzari dagokionez, lehenetasunezko balio bat nagusituko da biktimen inguruko jarduera guztietan: biktimen eta gizartearen arteko interakzioa, bat-egitea eta elkartasuna sustatzea, etorkizuna eta bizikidetzaren jomuga hartuta.

---

Iragan irailaren 22an, Batera Konpromisoa onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Biktimei buruzko politika publikoetan beste urrats bat egiteko oinarriak jaso dira dokumentu horretan. Oinarri horietako zenbait ideiek harreman zuzena dute erresilientziarekin. Lehena: biktimez ari garela, iraganerako begirada kritikoa izaten jarraitzeaz gain, etorkizunari ere begiratu behar zaiola; gakoa, konstruktiboak izatea. Bigarrena: biktimen eta gizartearen arteko batasuna sustatu behar dela, bizikidetzara irazi dadin.

Biktimei buruzko politika publikoak iraganari begira egon dira. Beharrezkoa izan da, da eta izango da. Baina biktimen zatik murriztailea da iraganari soilik begiratzen dion ikuspegia, eta mugak baino ez ditu jartzen biktimizazioa gainditzeko. Paradigma hori hedatu egin nahi du Eusko Jaurlaritzak.

Izan ere, biktimekiko begirada etorkizunarekin ere uztartu daiteke. Ikuspegi berri hori izateak esan nahi du biktimengan pentsatzen dugunean iraganean jasan zuten bidegabeko kaltean pentsatuko dugula, baina baita, gizarte osoarekin batera, orainean eta etorkizunean bizikidetzara erakitzeke duten zereginen ere.

Bigarren hausnarketa gisa, memoriarekin eta biktimekin zerikusia duen galdera bat egin nahi dut. Hauxe da galdera: Zer unetan joko genituzke burutuztat memoria historikoaren egiaren onarpen eta biktimekiko erreparazio prozesuak? Galdera egin beharrezkoa da, lortu beharko ditugun helburuen bidean jarriko gaituelako erantzunak, eta soilik iraganari begiratu beharrean, etorkizunari begiratzen ere utziko digulako. Guztion artean eman behar diogu erantzuna galdera horri.

Eta zeregin horretan, datoen urteetarako, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusian lantzen ari garen zenbait proposamenen berri eman nahi dizuet labur-labur:

## **Lehenengo lan-ildoak.** Desagertutako inguruko erantzunak sendotzea

Biktimen arloan, desagertutako inguruko erantzunak lehenetsun handiena izan behar duela nabarmen-tzen dute nazioarteko erakundeek. Estatu espainiarrari berariaz, esplizituki eta modu urgentean egindako gomendio batzuen parte da lehenetsun hori. Gomendio horien egileak dira, batetik, bortxazko edo nahi gabeko desagertzei buruzko Nazio Batuen Lantaldea eta horren errelatore berezia, eta bestetik, egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermeak sustatzeko errelatore berezia.

Alde horretatik, lehenetsuneko bi jarduerak garatzea aurreikusi du Eusko Jaurlaritzak. Batetik, Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko EAEko Plana garatzen jarraitzea, hobien koka-pena ikertzeko eta lokalizatzeko. Plan horri esker, 60tik gora gorpu atera dira hobietatik azken urteetan. Aurrera jarraituko dugu lan-ildo horrekin.

Bestetik, eta identifikazio-prozesuak errazteko, DNA-banku bat sortzeko proiektua lantzen ari gara; banku horri datu-base genetiko bat eta web-bilatzaile bat uztartuko zaizkio, desagertutako pertsonak bilatu ahal izateko.

## **Bigarren lan-ildoak.** Frankismo garaian izandako giza eskubideen urraketen egiari buruzko mapa egitea

Une honetan, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren, Gogoraren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmen bat izapidetzen ari gara, 1936tik 1978ra izandako giza eskubideen urraketei buruzko txosten bat egiteko. Azterketa horren helburua da egiaren mapa bat egitea, Gerra Zibilean eta Francoren diktadurak iraun zuen bitartean giza eskubideen urraketen arloan benetan eta zehatz gertatutakora ahalik eta gehien hurbiltzeko.

Proposamen horren helburua da memoria historikoak, hau da, frankismoaren biktimek eta gizarte osoak egia jakiteko duten eskubidea bete dadin sustatzea. Egia jakiteko eskubidearekin, gertatutakoa argitu dadin bultzatzeko betebeharra sortzen zaie erakundeei.

Lehenetsun honek giza eskubideak babesteko Nazio Batuen mekanismoek, Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarrak, Arartekoak eta elkarte-mugimenduak egindako deia erantzuten dio, memoria historikoari buruzko egia argitzeko mekanismoak sor daitezela eskatzen baitute guztiek aho batez.

## **Hirugarren lan-ildoak.** Biktimen eta memoria historikoaren erakunde-aitorpena

1936-1978 bitartean izandako giza eskubideen urraketek buruzko txostenaren ondorioak bi jardueren oinarri izateko balioko du. Batetik, memoria historikoaren egiari eta oroimenari buruzko EAEko erakunde-aitorpenaren akordio politikoa sustatzeko, non EAEko erakunde eta gizarte-erakunde guztiek bat egingo luketen. Bestetik, biktimen familien erreparazio moralerako, biktima bakoitzari eta haien familiei jasan zuten bidegabeko sufrimendua pertsonalki aitortuta.

Jarduera horiek guztiek, besteak beste, helburu hau dute: bukatu gabe dugun zeregin bat burutzea; hain zuzen ere, memoria historikoari buruzko egiaren eta biktimen aitortzea. Erresilientzia dute gako. Iraganerako begirada kritikoa abiaburu hartuta, orainean eta etorkizunean proiektatzen dira, giltza bizikidetzara erakitzea dutela.